

**2024KO APIRILAREN 17KO BATZAR NAGUSIAREN
BATZAR-EGUNKARIA
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA
DE FECHA 17 DE ABRIL DE 2024
(TRADUCCIÓN)**



AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	5
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau	5
<p>“1/2024 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergan neurri jakin batzuk egokitzen dituen, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondoriozko ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko.”</p>	
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Berrojalbiz Zabala andreak hartu dau berbea	5
- Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatu Laespada Martínez andreak hartu dau berbea	8
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	8
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea	9
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	11
- Euzko Abertzaleak taldeko Pieló Muguruza batzarkide andreak hartu dau berbea	13
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau ..	13
<p>“2/2024 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, martxoaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga.”</p>	
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Berrojalbiz Zabala andreak hartu dau berbea	14
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	15
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea	16
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	17



- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	18
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea	19
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	20
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea	21
- Euskal Sozialistak taldeko Álvarez Castrejón batzarkide jaunak hartu dau berbea	22
- EH Bildu taldeko Sarasola Lartategi batzarkide andreak hartu dau berbea	22
- Euzko Abertzaleak taldeko Díaz Insausti batzarkide andreak hartu dau berbea	23
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau	24
“Metroaren 5. linea.”	
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	24
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	27
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	29
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	32
- EH Bildu taldeko Méndez Urigoitia batzarkide jaunak hartu dau berbea	33
- Euskal Sozialistak taldeko Jerónimo Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	35
- Euzko Abertzaleak taldeko Lerma Mentxaka batzarkide jaunak hartu dau berbea	36
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	37
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	38
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau	39

“Politika publikoak hobetu eta zaintzen pisua erakundeetan edo erantzukizun publikoan jartea, familia-zaintzarena murrizteko.”



- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	40
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	41
- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	43
- Bizkaiko Talde Popularreko Pagadigorria Wicke batzarkide jaunak hartu dau berbea	44
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	45
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	47
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	48
- Euzko Abertzaleak taldeko López de la Fuente batzarkide jaunak hartu dau berbea	49
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	50
- IDAZKARI andreak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau “Krisian dauden enpresen egoeraren aurrean Aldundiak garatzen duen jarduera.”	51
- EH Bildu taldeko Casanova Alonso batzarkide jaunak hartu dau berbea	52
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	54
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	55
- Euskal Sozialistak taldeko Zurro Tobajas batzarkide jaunak hartu dau berbea	57
- Euzko Abertzaleak taldeko Arregi Osoro batzarkide jaunak hartu dau berbea	58
- EH Bildu taldeko Casanova Alonso batzarkide jaunak hartu dau berbea	60
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako Vaquero Moreno batzarkide jaunak hartu dau berbea	62
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea.....	63



- Euskal Sozialistak taldeko Zurro Tobajas batzarkide jaunak hartu dau berbea	64
- Euzko Abertzaleak taldeko Arregi Osoro batzarkide jaunak hartu dau berbea	65
- LEHENDAKARI andreak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau “Zainketen Aldeko Herri-Itunaren akordio instituzionala”	67
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	67
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	69
- Euzko Abertzaleak taldeko Urquieta Zuzaeta batzarkide andreak hartu dau berbea	70
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	72
- Bizkaiko Talde Popularreko Gómez-Guadalupe García-Tejedor batzarkide jaunak hartu dau berbea	73
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea	75
- Euskal Sozialistak taldeko Otermin Eraso batzarkide jaunak hartu dau berbea	76
- Euzko Abertzaleak taldeko Urquieta Zuzaeta batzarkide andreak hartu dau berbea	77
- Talde Berezia-Elkarrekin Bizkaiako De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea.....	78
- Batzarra amaitu da.....	79



2024ko apirilaren 17ko batzarra goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 17 de abril de 2024 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señora Diputada General, Diputados y Diputadas, estimados junteros y junteras, miembros de los medios de comunicación, y a todas las personas que van a seguir esta Junta General vía streaming. Buenos días, y gracias una vez más por seguir este día a día del Parlamento de Bizkaia.

Comenzamos a tratar el orden del día, y para ello, señora Secretaria, ¿cuál es el primer punto?

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak: Buenos días.

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Decreto Foral Normativo (Transposición)
[\(R.E.12/E/2024/0000539\)](#)

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: Decreto Foral Normativo 1/2024, de 7 de marzo, por el que se adaptan determinadas medidas en el Impuesto sobre el Valor Añadido, en el Impuesto Especial sobre la electricidad y en el Impuesto sobre el valor de la producción de la energía eléctrica, para responder a las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo.

Documento Principal:

[\(R.E.12/E/2024/0000539\)](#)

Boletines: [Admisión a trámite](#) (4A)

Expediente: [\(12/A/03/0000878\)](#)

1.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Foru Dekretu Arauemailea (Transposizioz)
[\(12/E/2024/0000539SE\)](#)

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: 1/2024 Foru Dekretu Arauemailea, martxoaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezian eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergan neurri jakin batzuk egokitzen dituen, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondoriozko ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko

Dokumentu Nagusia: [\(12/E/2024/0000539SE\)](#)

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (4A)

Espedientea: [\(12/A/03/0000878\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Tiene la palabra en nombre de la Diputación, la señora Berrojalbiz Zabala, para presentar el proyecto.

La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Gracias. Señora Presidenta, Diputada General, junteros y junteras, señoras y señores, buenos días.



Hoy traemos a estas Juntas Generales el Decreto Foral Normativo 2024/1 para su aprobación, si ustedes lo consideran oportuno. Y a qué viene y a qué responde el porqué de este Decreto Foral Normativo.

Dakizuenez, 2022ko udabarritik, lurralde komunaren eremuan, hainbat neurri-pakete onartu dira, Ukrainako gerrak lurralde komunean ekarri dituan ondorioei aurre egiteko. Neurri arauemoileak eta ez-normatiboak sartu dira, eta egoera ekonomiko eta sozialaren bilakaerara egokitu dira, ondoz ondoko Errege Lege Dekretuen bidez.

Zergen arloan, preminazko neurri horreen oinarrizko helburuak honeek ziran: energiaren prezioei eustea, herritar eta enpresa guztientzat; sektore kaltetuenei eta kolektibo zaurgarrienei laguntzea; eta prezioen egonkortasuna indartzea eta horreek egokitzea Bizkaian, jagokozan Foru Dekretu Arauemoileen bidez.

2023ko azken hileetan, elikagaien, lehengaien eta bitarteko ondasunen prezioen ganeko goranzko presinoak desagertu egin dira, eta 2023ko amaieran, merkatuak egokitu egin dira ziurbakotasun geopolitiko iraunkorrera. Horren ondorioz, 2024rako prezioen bilakaeraren aurreikuspenak ez dira hain ezkorak.

Halan be, Ukrainan eta Errusian gerra luzatzeak, Israelen eta Gazaren artean gatazka barriak sortzeak eta tentsino geopolitikoetan gora egiteko aukerak ziurbakotasun handia sortzen jarraitzen dabe, eta horrek aurreikuspenak edozein unetan atzera egitea eragiten dau. Horregaz batera, orain arte onartutako neurriak erabat kentzeak ondorio kaltegarriak ekarri leikez prezioetan, gura ez diran ondorioakaz, batez be kolektibo ahulenengan.

Testuinguru horretan, joan dan abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez, Ukrainan eta Ekialde Hurbilean izandako gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dira, eta, kasu honetan, orain arte hartutako neurri horreek apurka-apurka kentzen joatea erabagi da, prezioen ezusteko bilakaera eragozteko, eta kolektibo ahulenak bereziki babesteko, baina finantza publikoen iraunkortasuna eta defizita eta zor publikoa murrizteko helburuak betetea arriskuan jarri barik.

Beraz, Foru Dekretu Arauemoile honen helburua da Bizkaiko Lurralde Historikoko araudian sartzea abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuan jasoten diran nahitaez bete beharreko zerga-edukiko xedapenak. Eta, zeintzuk dira 8/2023 Errege Lege Dekretu honek txertatzen dituan neurriak, gaur egun Foru Dekretu Arauemoile honetara dakarguzanak?

Balio Erantsiaren ganeko Zergaren arloko neurriak. Elikagaiei jagokenez, elikagaien arloko BEZari jagokenez, 6 hilebetez jarraituko jako 1/2023 Foru Dekretu Arauemailearen 6. artikuluan ezarritako BEZaren murrizketari. Dakizuenez, murrizketa horren indarraldia 2023ko abenduaren 31n amaitzen zan, eta, beraz, orain, zenbait elikagairen BEZA 2024ko bagilaren 30era arte jaistea proponiduten da.

Zehazki, BEZaren %5eko tasa, honako produktu honeen erkidego barruko entrega eta inportazioei eta erosketei: oliba-olioak eta haziak, eta elikadura-pastak. Eta, kasu horretan, baliokidetasun-errekargua %0,62 da.

Bestalde, %0ko tipoa aplikau behar da; lehen %5eko BEZa aitatu dogu, orain %0ko BEZa da, egindako entrega eta inportazioei eta erkidego barruko erosketei honako produktuotan: ogi arrunta, ogi arrunt izoztuaren orea, ogi arrunt izoztua egiteko soilik erabilten dan ogi arrunta, urun ogi bihurtuak, eta edozein animalia naturaletatik sortutako esne mota honeek: ziurtatutako pasteurizatua, kontzentraua, gainbakotua, esterilizaua, UHTa, lurrundua, eta hautsa; produktu naturalzat hartzen diran gaztai, arrautza, fruta, berdura, ortuari, lekale,



tuberkulu eta zerealak, elikadura-kodearen eta garatzeko emondako xedapenen arabera produktu naturaltzat hartzen direnak. Kasu horretan, baliokidetasun-errekargua %0 da.

Energia elektrikoaren inportazioen edo erosketen entrega jakin batzuk be bai. Orain arte elikagaiak erabili doguz, orain energia elektrikoa. 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean elektrizidade-entregaren fakturaren osogai guztiei jagoken %10eko BEZaren tasa murriztua aplikau beharko da, 2023ko abenduaren 31ra arte aplikau beharreko %5eko tasaren orde. Noren alde? Elektrizidadea horniduteko kontratuen titularren alde, bete be kontratautako potentzia, potentziari jagokonez, 10 kW-koa edo hortik beherakoa bada, horniduraren tentsino-maila eta kontratazino-modalidadea edozein dirala be, eta epealdiaren azken eguneko azken hilebete naturalari jagokon merkatuko prezio aritmetikoa megawatteko 45 eurotik gorakoa bada.

Elektrizidade-hornidurako kontratuen titularrei be, elektrizidadearen gizarte-bonua jasoten badabe eta kalteberatasun larria edo gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagozan kalteberatasun larria autortuta badaukie. Horri %10eko tasa murriztua aplikauko jako 2024ko ekitaldi osoan.

Era berean, %10eko tasa murriztua aplikauko jake gas naturalaren entreegi 2024ko urtarrilaren 1etik martiaren 31ra arte, transposizio kasu horretan. Horregaz batera, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko bagilaren 30era bitartean, %10eko tasa aplikauko jake biomasatik datozen briketen eta pelleten erkidego barruko entrega eta inportazioei eta eskuratzei, eta egurrerako zurari.

Aldaketa gehiago, 8/2023 Errege Lege Dekretu honen ondorioz Foru Dekretu Arauemoile honek sartzen dituan neurri gehiago. 2024ko ekitaldian nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide sinplifikaua eta araubide berezia apliketako mugak. Kasu honetan, 2024ko zergaldirako luzatzen dira Balio Erantsiaren ganeko Zergan nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide sinplifikaua eta araubide berezia apliketako mugak.

Zerga-tasak, kasu honetan elektrizidadearen ganeko zerga berezirako. Elektrizidadearen ganeko zerga bereziari jagokonez, 2024ko lehenengo hiru hilekoan zerga-tasa %2,5ekoa izango da, eta bigarren hiru hilekoan, barriz, %3,8koa.

Eta, azkenik, 2024an energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zergan zatikako ordainketen zerga-oinarria eta zenbatekoa zehaztea. Kasu honetan, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zergari jagokonez, dakizueneg, etenda egotea 2023ko abenduaren 31ra arte luzatu da, eta orain 2024ko ekitaldirako, zerga horren zerga-oinarria honetara ezartzea dator: zergadunari energia elektrikoa ekoizteagaitik eta sistema elektrikoan sartzeagaitik zergaldian instalazino bakotxeko –zentraleko barretan neurtuta– jaso beharreko zenbateko osoa izango da. Horri kenduko jako alde batetik, lehen hiru hileko naturalean sisteman sartutako elektrizidadeari jagokozan ordainsarien erdia, eta bestetik bigarren hiru hileko horretan sisteman sartutako elektrizidadeari jagokozan ordainsarien 1/4, kasu honetan, arinduz joateko. Zerga-oinarri horren zehaztapan horren helburua hori da, 2022an eta 2023an ekitaldi bitan hartutako salbuespenezko neurriak arintzen joatea.

Nada más. Espero recibir su respaldo.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señora Berrojalbiz Zabala.

Pasamos a votar si las Juntas Generales Eta, jarraian, bototara jarriko dogu si las Juntas Generales ratificamos o no el Decreto Foral Normativo. Podemos votar.



El resultado es el siguiente. Se han emitido 46 votos, 29 a favor, no ha habido votos en contra, 17 abstenciones. La diputada Laespada advierte de algo. Si?

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: No puedo votar.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Supongo que el sentido de su voto será a favor. Lo recogemos en acta, gracias.

Ratificado el Decreto Foral Normativo, abrimos el turno de los grupos para la explicación de voto. Por tanto, tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga.

La Sra **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Buenos días. Gracias señora Presidenta.

Gure Taldeak ohikoa dauan moduan, Estaduko araudiaren transposizinoari buruzko Foru Dekretu Arauemaileei jagokenez, gure taldetik nahiago dogu posizionamendua ez oinarritu Kontzertu Ekonomikoak marketan dauen betebeharrean, sartzen diran neurrien balorazioan baino, eta, batez be, neurri horreek Bizkaiko biztanlerian izango daben eraginari erreparauta.

Beraz, eta Foru Dekretu Arauemoile honen edukiari jagokenez, orokorrean esan behar dogu Dekretu honek Unidas Podemosetik Estaduko Gobernuan bultzatzen doguzan neurrien zati handi bat jasoten dauela, krisi-garai honetan eta konplexutasun ekonomiko handiko une honetan, Bizkaiko herritarren eskubideak babestea eta bermatzea ahalbidetu eban ezkutu sozial bat sortzeko helburuagaz. Neurri horreek funtzinonetan dabela ikusi da, eta ez naz nekatuko errepikatzen, baina agirian geratu da, baita be, ezkerreko gobernuok krisi ekonomikoei heltzeko dogun moduak, gastu soziala zabalduz, eta ez murrizketen eta austerizidioaren bidez, emoitza hobeak dituala epe laburrean, ertainean eta luzean, jentearentzat zein ekonomiarentzat.

Baina, zer neurri jasoten ditu Dekretu honek eta zergaitik Elkarrekin Podemosen botoa. Foru Dekretu Arauemaileerako baietza emon dogun arren, azaldu gura dot baiezko kritikoa dala. Lehenengo eta behin, oinarritzko elikagaietarako BEZ murriztua mantenduten da 2024ko bagilera arte. Neurri horregaz zati baten ados gagoz, eta zergaitia azalduko dot. BEZ murriztua 2023ko urtarrilean jarri zan martxan, foru diputaduak azaldu dauen moduan, lehengaien, erregaien eta elikagaien prezioen igoera zala-ta. Eta BEZ murriztuaren neurri hori erabilgarria izan da herritarrentzat, eta eraginkorra ekonomiari jagokenez be. Halan be, aurtengo bagilera arte bakarrik egongo da indarrean.

Gure erakunde politikoak, Elkarrekin Podemosek, elikagaietarako BEZ murriztuaren neurri hori sendotu egin behar dala uste dogu. Ez gabilz delicatessen produktuei ezta Kobe txuletari buruz. Esnea, ogia, arrautzak, uruna, frutak eta ortuariak darabilguz, eta oinarritzko elikagai horreek eskuragarri egon behar dabe persona guztientzat. Beraz, gure ustez, neurri hori ez da soilik aurtengo bagilera arte luzatu behar, ezpada egiturazko neurri gisa sendotu behar da.

Bigarren, Foru Dekretu Arauemoile honek, jakina, Lege Dekretuaren moduan, %10eraino igoten dau elektrizidadearen konsumoaren zerga-tasa. Era berean, laugarren artikulua elektrizidadearen ganeko zerga berezia eteten eban neurria ezabatzen dau, eta igoera horreek oraingo egoera politiko, ekonomiko eta sozialean BEZaren %5etik %10era pasa daitekeela edo elektrizidadearen ganeko zerga bereziaren zerga-tasa handitzen joan daitekeela balorau ondoren jazoten dira. Eta esan behar dot, aurreko neurriagaz gertatu dan moduan, kasu



honetan be ez gatozala bat neurriagaz, ezta neurri hori hartzera daraman argudioagaz be. Zerbitzu jakin batzuk oinarritzakoak dira, derrigorrekoak, eta elektrizitatea, gasa, ura edo elikagaiak hori dira, bizitzeko oinarritzakoak. Eta persona guztiek bermatuta izan behar dabe, gastu apartekoa eragin barik. Hau da, guk eskubideak bermatzeaz berba egiten dogu, horreek eskainiko dauzan lege-esparrua ezarritz.

Halan be, aldaketa horrek sortzen dauena da jente kalteberak laguntza eskatu behar izatea. Ez da egia BEZ horreek murriztuta eukiteak, jatorrian egozan moduan, finantza publikoak arriskuan jarriko dituanik. Horretarako dago fiskalitatea, BEZaren bidez diru-sarrerarik ez sartzea konpentsauko daben beste neurri batzuk hartzeko.

Garrantzitsua da gogoratzea be, ekonomiaren hobekuntzaren ganeko zurrumurruak gorabehera, eta enpresa handien emoitza handiak, aberastasunaren banaketa ez dala justua, eta familia askoren errealitatea gogorra dala orain be. Eta neurri horreek ez dabe laguntzen. Faktura elektrikoaren BEZaren murrizketea, ez dakit gogoratzen dozen, baina ez zan erraz hartutako neurria izan. Baina esan behar da oso onuragarria izan dala familientzat, batez be errenta txikerrena daukientzat, izan be, eta hori ez da ahaztu behar, energia edo elikadura ordaintzera diru-sareren ehuneko handiena bideratzen dabenak dira.

Beraz, gure ustez, Foru Dekretu hau eta Lege Dekretua, apurka-apurka, familia askok eutsi ahal izatea ahalbidetu dauen ezkutu soziala desegiten doaz. Gure ustez, bide hori hasierako egoera baino hobea da beti, eta horregaitik emon dogu aldeko botoa. Halan be, neurri horreetako batzuk egiturazkoak bihurtu behar dirala uste dogu.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Buenos días. Gracias señora Presidenta.

Hain zuzen be, Foru Dekretu Arauemoile honen transposizinoan, 8/2023 Dekretuaren transposizinoan gure botoa abstentzinoa izan da, gai horreetako Foru Dekretu Arauemoileen transposizinoetan egin izan dogunari jarraituz.

Egia da, Podemosen aurreko esku-hartzean esan daben moduan, orain arte izan doguzan Foru Dekretu Arauemoileak zergetan, oro har, beharpenak sartzen edo jagoten izan dabezala, hemen ikutzen diran 3ei buruz berba egiteko, eta honetan aldaketa bat dago, zerga batzuk gehitzen hasi diralako.

Alde materialari jagokonez, guk beti defendidu izan dogu BEZaren zatian beste elikagai batzuk sartu behar dirala, eta ez gabiliz esaten txuletoia, baina haragia, arraina eta kontserbak euki doguz gogoan, eta hasieratik ganera. Inoiz ez da jaso, eta hori be 8/2023 Dekretuari eta transposizino honi buruz gure botoari koherentzia apur bat emoteko errazoa izan da.

Baina joera-aldaketaren puntu horretan sartu gura dot. Dekretuaren zioen azalpenetan bertan agiri da oindino be ziurbakotasunak dagozala merkatuan. Hau da, BEZaren



zergak elektrizidadean, gasean eta produkzio elektrikoan sartzen hasi da, baina, aldi berean, ziurbakotasun geopolitiko eta ekonomiko batzuk dagozala esaten dau.

Orduan, beharbada zuhurragoa izan behar zan, hain zuzen be, zerga horreekaz eutsi behar geuntsan denpora luzeagora arte, igon barik; izan be, Ganbera honetan danok argi daukaguna da seihileko honetan daukaguzan elementu ekonomikoak: inflazino handia izaten jarraitzen dogu elikagaietan eta edarietan, 2024ko zezeilean %5,8koa. Inflazinoagaz nahiko ondo bizi gara, baina hori, aurtengo bigarren seihilekora arte gitxienez jatsiko ez diran tasakaz batera, errenta erabilgarria murrizten dau, eta askotan esan dot hemen, familien errenta erabilgarria. Beraz, horrek estutu egiten dauz familiak, baliabide gitxien daukiezan familiak, beren gastu-ahalmena, eta hori oso argia da.

Beraz, gure hasierako asmoa beste neurri batzuetan be handitzea zan, beste zerga batzuetan. Baina, aldi berean, egia da beti defendidu dogula herrialde gisa egiturazko neurri batzuk hartu behar doguzala, ze krisietan preminazko paketeetara funts publikoak bialtzea amaitu egingo jaku. Hemendik gitxira jatorkuzan arau fiskalakaz, amaitu egingo jaku. Orduan, ekonomiari begirutzen hasi behar jako, eta egitura ekonomikoari eta prezioen egiturari beste era batera begirutzen, duda barik, eta elementuak eta aldaketak sartu behar dira, laguntzen edo zergen murrizketaren menpe bakarrik ez egoteko. Familien errenta erabilgarri txikerrago horri beste modu batera egin behar deusagu eraso. Eta hori da gu, alderdi gisa, erakunde guztietan sartzen saiatu garana. Eta uste dogu ez dala jasangarria, ez dala jasangarria epe luzean, ez arau fiskalakaitik bakarrik, ezpada herrialdeak benetan behar ditualako egiturazko beste aldaketa ekonomiko batzuk, ekonomia beste parametro batzuetatik igaroten laguntzeko, inflazinoa benetan bajatzeko eta enpresek eta familiek errenta erabilgarriak handitu ahal izateko.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaiko kideak, jaun-andreak, batzarkideak.

2022aren hasieran, Espainiako Gobernuak hainbat neurri onartu ebazan, Ukrainako gerrak herritarrentzat eta sare ekonomikoarentzat izan ebazan ondorioei aurre egiteko, eta, esandako moduan, barruan hartu ebazan, bai araudiari lotutako ekintzak bai bestelakoak. Ekintza horreek egoera ekonomikoaren bilakaerara egokitzen joan dira, eta Lege Dekretuaren preminazko prozedura horreen bidez gauzatu dira. Gogoratu behar da, Europa ekialdeko ezegonkortasun horren ondorioz, inflazinoa %9,8ra heldu zala 2022ko martian, eta %3,4ra azpiko inflazinoa; izan be, 2022ko garagarrian lortu zan gehieneko kopurua, %10,8koa inflazino orokorrean, eta %6,1ekoa azpiko inflazinoan.

Fiskalidadearen ikuspegitik, preminazko neurri horreen oinarritzko helburuak honako honeek ziran: guztiontzako energiaren prezioei eustea, herritarrentzat eta enpresentzat; sektore kaltetuenei eta kolektibo ahulenei laguntzea; eta prezioen egonkortasuna indartzea. Neurri horreek gure zerga-esparru juridikora egokitzeke, Foru Dekretu Arauemaileen bidez egin zan.

Gaur egungo egoera, egia esan, desbardina da, eta zorionez esan beharko litzateke, hartutako neurri-multzo horren eraginkortasuna erabat eztabaidaezina izan dala.



Halan, 2022ko abenduan, inflazio orokorra %5,7ra jatsi zan, eta azpikoa, egia da, tarte handituagoan mantentzen zana, %7an. Aurtengo martian inflazioa %3,2an egoan, eta azpiko inflazioa %3,3an.

Hartutako neurriei jagokenez, orain arte indarrean egon diran neurriak bapatean kentzeak prezioen ganeko errebote-ondorioak ekarri leikez, gura ez diran ondorioakaz, batez be kolektibo ahulentzat. Beraz, 2022an hartutako neurri horreek mantentzea edo apurka-apurka kentzea erabagi da, neurri batzuk mantentuz, prezioen ezusteko bilakaera eragotziz, eta bereziki babestuz, edo helburu horregaz, kolektibo ahulena, beste neurri batzuen iraunkortasuna arriskatu barik, eta defizita eta zor publikoa murrizteko helburuak betetz.

Azkenik, gogoratu behar dogu, errazoren bategaitik nire aurretik berba egin dabenek ez dabelako halakorik egin, Europar Batasunaren 2003/96 Zuzentarauak, 2003ko urriaren 27koak, elektrizitatearen energia-produktuen zergaren Erkidegoko araubidea berregituratzen dauenak, eskatzen dauzan gitxieneko zerga-tasak errespetatu behar dirala. Nik ulertzen dot zuek memoria selektiboa izatea, baina memoria selektiboa be ekarri zeinkie esateko hemen, BEZari jagokenez, Europar Batasuneko herrialdeek ez daukiela erabateko soberanotasunik.

Azkenik, eta Ekonomia Itunean xedatutakoa beteteko, beharrezkoa da Ogasuneko foru diputaduak eta nire aurretik parte hartu dabenek batzuek zehatz-mehatz deskribitu dituen aldaketak Bizkaiko zerga-ordenamenduan sartzea. Eta nik bakarrik esan nei batzuk oso egokiak dirala, eta beste batzuk, dudarik barik, egoerak halan eskatuko baleu, barriro islatuko lirakeela.

2024ko zergaldirako luzapen hori, erregimen sinplifikatua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezia apliketako mugetan, oso garrantzitsua da, baita gas naturalaren entregetan eta elektrizitate-osagaietan %10eko tasa murriztua be.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Álvarez Castrejón jauna.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días.

En el pleno de septiembre aprobamos los nuevos tipos del IVA para hacer frente al contexto provocado por la subida de la inflación. Entonces el voto de EH Bildu fue favorable, porque decidimos rebajar los tipos de IVA en materia de consumo básico para poder vivir, lo que contribuía a paliar la regresividad de esta figura impositiva ya de por sí regresiva al tratarse de un impuesto indirecto, y a aliviar las condiciones de vida de las personas de rentas bajas que peor lo pasan en los tiempos de crisis económicas.

En esta ocasión, sin embargo, el objetivo de este proyecto de Decreto Foral Normativo es ir retirando poco a poco estas medidas paliativas. En el prólogo de este Decreto Foral Normativo dice que se busca que la protección de los colectivos más vulnerables no ponga en riesgo la sostenibilidad de las finanzas públicas y el cumplimiento de los objetivos de



reducción del déficit y la deuda pública. Y así, aunque se mantendrá el tipo impositivo reducido del IVA de los alimentos básicos, subirán los tipos impositivos sobre la electricidad; mejor dicho, ya han subido y se le dará carta de naturalidad. Y sabemos que nuestra capacidad normativa sobre este impuesto está totalmente limitada; es decir, que solo contamos con aquella que el Estado reconoce como tal.

Pero, de la misma forma que eso es cierto, también lo es el hecho de que la aplicación de este impuesto que nos viene dado debe aplicarse en el contexto generado por otras decisiones que adoptan – o no– las instituciones locales. Es decir, qué hacer con el IVA que nos viene ya impuesto de fuera, pero su aplicación se va a aplicar en el contexto generado por nuestras instituciones, por lo que han hecho y por lo que no.

Y si hablamos de nuestro contexto, ¿cuál es la situación?, ¿dónde aplicaremos estas medidas fiscales impuestas?

- En primer lugar, hay que tener en cuenta la situación de muchas personas trabajadoras vizcaínas empobrecidas por las inacciones de nuestras instituciones: ¿cuántos son, por ejemplo y sin ir más lejos, los convenios que no han podido subir sus salarios por encima de la inflación porque la Diputación ha mirado para otro lado?, y por lo tanto, ¿cuántas personas trabajadoras hay en una situación más vulnerable y más pobre que antes porque la Diputación ha mirado hacia otro lado? Podríamos recordar, por ejemplo, la situación del personal de intervención social. Unas 4.000 personas trabajadoras que no tienen renovado su convenio desde 2021 y que han tenido que hacer frente a una subida de precios del 12,3% sin ningún tipo de incremento salarial.

Eta, ganera, neurri horreek aplikau beharko litzatekezan Bizkaiko egoeraz edo testuinguruaz berba egiten badogu, eta defizita eta zor publikoa murrizteko edo kontroletako erronkei aurre egiteko Bizkaiko testuinguruaz berba egiten badogu, zein da Aldundi honek defizit eta zor publiko horri aurre egin ahal izateko sortu dauen egoera? Ba pentsetan dogu seguruenik askoz egoera hobean egongo gintzatekezala helburu horreek bete ahal izateko, Foru Gobernu honek persona aberatsenei Fortuna Handien Zerga jatsi izan ez baleutse. Edo, adibidez, Ondarearen ganeko Zergan Araban, Gipuzkoan edo Nafarroan apliketan diran tasa berberak ezarriko balira, etab., adibidez, enpresa handiei Soziedadeen ganeko Zergan apliketan jaken tasa jatsi ez balitz.

Y, además, tampoco podemos subestimar la inacción de la Diputación en la falta de soberanía en los impuestos indirectos. De hecho, en el programa de gobierno acordado por PNV y PSE muestran su compromiso para profundizar en nuestra capacidad de soberanía fiscal y en estos 8 largos meses desde la formación del Gobierno foral el gobierno foral no ha dado ningún paso en esa dirección.

Por lo tanto, hemos valorado algunos aspectos para fijar nuestra posición:

- Por un lado, la inacción mostrada por la Diputación ante la falta de soberanía fiscal y la subida en materia energética nos lleva a votar en contra.

- Pero no podemos dejar de tener en cuenta que se aborda el IVA reducido de los alimentos básicos, que es muy importante.

Y por lo tanto, hemos decidido abstenernos en esta ocasión. Muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi andrea.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señora Pieló Muguruza.

La Sra. **PIELÓ MUGURUZA** andreak: Gracias señora Presidenta, buenos días.

Foru Aldundi honek Ganbera honetara ekarten deusku, berresteko, martiaren 7ko 1/2024 Foru Dekretu Arauemailea, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren, Elektrizidadearen gaineko Zerga Bereziaren eta Produzino elektrikoaren balioaren gaineko Zergaren tributu-neurriei buruzko zezeilaren 28ko 1/2023 Foru Dekretu Arauemailea aldatzen dauena, Ukrainan eta Ekialde Hurbilean izandako gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunari erreparatuta, 23 quarter, 26 eta 33. artikuluetan ezartzen dau energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren ganeko zerga, balio erantsiaren ganeko zerga eta elektrizidadearen ganeko zerga berezia, hurrenez hurren, itundutako zergak dirala, eta Estaduak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak arautuko dabezala.

De esta forma, el Decreto Foral Normativo que nos ocupa, establece una serie de modificaciones y prórrogas de determinadas medidas tributarias en los impuestos señalados anteriormente, con el objetivo de beneficiar al consumidor final y apoyo a los sectores más afectados y a los colectivos más vulnerables.

No voy a entrar a explicar cada medida en concreto porque ya lo ha hecho en su intervención la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas, la Señora Berrojalbiz.

Desde nuestro grupo entendemos que estas modificaciones van a permitirnos avanzar a un sistema tributario más justo y equitativo y a su vez será beneficioso para la población vizcaína, debido a que con la recaudación de los mismos se podrán ofrecer mejores servicios públicos, además de proteger a los colectivos más vulnerables.

Foru dekretu arauemoile horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko gure zerga-sistemara nahitaez egokitu beharreko aldaketa horreek jasoten ditu, eta, horregaitik, Foru Aldundiak dekretu hori emon behar dau, eta horretarako gaitasuna dauka. Horregaitik guztiagaitik, eta segurtasun juridikoa bermatze aldera, Euzko Abertzaleak taldeak aitaturako Foru Dekretu Arauemailearen aldeko botoa emon dau.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Pieló Muguruza.

Pasamos al segundo punto del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso,

2.- Ekimenari(ei) buruzkoak azertu,



del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Decreto foral norma de urgencia ([R.E.12/E/2024/0000592](#))

Autor: Diputación Foral de Bizkaia

Asunto: DECRETO FORAL NORMATIVO 2/2024, de 14 de marzo, por el que se modifica el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

Documento Principal:

([R.E.12/E/2024/0000592](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (1A)

Expediente: ([12/A/04/0000909](#))

eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Presako foru arau-dekretua ([12/E/2024/0000592SE](#))

Egilea: Bizkaiko Foru Aldundia

Gaia: 2/2024 FORU DEKRETU

ARAUEMAILEA, martxoaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga

Dokumentu Nagusia: ([12/E/2024/0000592SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (1A)

Espedientea: ([12/A/04/0000909](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: También en este caso, la representante de la Diputación presentará la iniciativa. Por tanto tiene la palabra la señora Berrojalbiz Zabala.

La Sra. **BERROJALBIZ ZABALA** andreak: Gracias señora Presidenta.

Presentamos en este segundo punto el Decreto Foral Normativo 2/2024, para su aprobación si lo consideran oportuno, con el que se modifica el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. Como saben, según la Norma Foral 9/2005, según el Fuero de Haciendas Locales, son las entidades locales las facultadas para solicitar este impuesto sobre el incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

Zerga bat, esan dodan moduan, uri-lurren balio-gehikuntzaren ganeko zergea. Zuzeneko tributu bat da, lursail horreek daukien balio-gehikuntzea zergapetzen dauena, eta lur horreen jaubetza eskualdatzearen ondorioz agirian jarten dana, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan dagozanean.

Artikuluetakoz zehetasunen baten sartuta, Foru Dekretu Arauemoile honen bidez zer aldatzen gabilzan ulertu ahal izateko, Foru Arauaren laugarren artikulua, zerga hau arautzen dauen 8/1989 Foru Arauak, zehazten dau zergaren zerga-oinarria lurren balio-gehikuntzaz osotuta dagoala, sortzapenaren unean agirian itxi zana eta gehienez be 20 urteko aldi izan zana, eta, artikulua horretako laugarren atalean xedatutakoari kalterik egin barik, honetara zehaztuko da: sortzapenaren unean lurak daukan balioa, udalak onartutako koefizientea bidertuz, balio-gehikuntza sortzeko aldiari, aurreko 3. atalean aurreikusitakoaren arabera.

Beraz, sortzapen-unean lurak daukan balioa jagokon udalak onartutako koefiziente horregaz bidertu behar dogu, udalak daukalako, esan deusuedanez, zerga hori eskatzeko eskumena.

Era berean, aitatutako 4.3 artikulua ezartzen dau gehienezko koefiziente horreek urtero eguneratuko dirala Foru Arau bidez, eta eguneratze hori egin ahal izango dala, besteak beste, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Foru Arauaren bidez.

Zenbatekoak eguneratzeko aurreikuspen hori igazko ekitaldian egin zan, 2023rako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren abenduaren 28ko 10/2022 Foru Arauaren bidez. Baina 2024. urterako, eguneratze hori Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauaren bitartez egiteko ezintasunak, izaera tekniko-juridikoko arrazoiakaitik, Foru Dekretu Arauemailearen figura erabilera behartu gaitu, Zerga hau arautzen dauen Foru Arauaren 4.3 artikuluan adierazitakoagaz bat etorrira, figura horren bitartez jagokozan



gehienezko koefizienteak eguneratu ahal izateko. Egokiena eta azkarrena figura hori erabiltea zala pentsau dogu, gura genduana dalako udalek tresna juridikoa izatea euren gehieneko koefizienteak aldatu ahal izateko, kasu honetan.

Nada más, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Berrojalbiz Zabala.

Damos paso al turno de grupos. Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Foru Aldundiak eztabaidagai dakar Foru Dekretu Arauemoile hau, 2/2024, eta foru diputaduak azaldu eban moduan, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren laugarren artikulua hirugarren puntua aldatzen dau. Kasu honetan, sortzapearen unean lurraren balioari aplikau beharreko koefizientea aldatzen da, eta aldaketa hori urtero egin behar da, lehen azaldu dogun lez.

Alde horretatik, eta lehenengo esku-hartzea aprobetxautu, galdetu gura neuke zergaitik ez zan aldaketa hori egin 2024. urteko Aurrekontuaren tramitazioan. Sailak azaltzen dauen errazoiak, diputaduak barriro be esan dau, ez dau argi askorik emoten Foru Dekretu Arauemoile moduan tramitau beharraren benetako zergaitari buruz, eta errazoi tekniko-juridikoak ez dira oso argiak une honetan, gero azalduko dodanaren harira.

Dekretuaren edukiari helduz, adierazo gura dogu Foru Aldundia koefizienteak aldatzera mugatu dala soil-soilik. Halanda be, guk uste dogu, gaur egungo egoera juridikoa kontuan hartuta, baina baita azken urteetako be, Zerga hori barriro pentsau behar dala. Beste une batzuetan esan dogun moduan, Elkarrekin Podemosentzat, uri-lurren gehikuntzaren ganeko zergea, erabilera egokia emoten bajako, higiezinaren espekulazioaren kontrako burruka-elementua izan daiteke, eta gai horrek eragin handia dauka biztanleek etxebizitza eskuratzeko orduan.

Zerga horrek espekulazio-mobimentuak hozteko balio leikela esan geinke, eta, aldi berean, zerga horrek beteten dauen beste funtzioetako bat da diru-kutxa publikoetara itzultzen dauela guztion ahalegin ekonomikoaren zati bat, inguruneak hobetzen dituen eta etxebizitza horreei balio handiagoa emoten deutseen inbersino eta esku-hartzeetan.

Halanda be, esan dodan moduan, zerga-figura hori apliketeak gatazkak sortzen ditu. Azken urteetan agirian geratu dira haren segurtasun falta juridikoak. Izan be, legeria berregin behar izan zan, Auzitegiak Konstituzioaren aurkakotzat jo ebalako zerga kalkuluetako oinarria. Teknikoki arazoak besterik emoten ez dauzan errealdadea da. Izan be, Auzitegi Gorenaren epai barri batek atea edegiten deutso erreklamazio-aldi barri bati, zerga inolako irabazirik barik ordaindu dan likidazioen kasuan. Izan be, orain erabat deuseztat jotzen dira likidazioak, eta horrek atea edegiten deutso Zerga Administrazioari barriro ofizioz berrikusi behar izateko.

Egia esan, uste dogu zerga-figura hori barriro planteetako unea dala, gai bi kontuan hartuta. Alde batetik, udalerriei baliabide ekonomikoak emoten deutsezan sistema izaten jarraitzea, eta, bestetik, nire esku-hartzean aitatzen dodan funtzio bikotxa betetea, hau da, higituezinaren espekulazioa hozten dauen tresna izatea eta udalerritari bertan egiten dituan hobekuntzako inbersino ekonomikoak itzultzeko balio izatea.



Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Gracias. Buenos días de nuevo.

Oraingo honetan, Aldundiak eta Ogasun Sailak urgentziazko beste Foru Dekretu Arauemoile bat ekarri deuskue, baina, benetan, hemengo larrialdia eta lehen geunkan larrialdia guztiz desbardinak dira. Nire aurretik Podemos taldeak esan dauen moduan, hau ez da zerga baketsua izan aspalditik, eta guretzat agirikoa da Foru Arauak adierazoten dauela koefiziente horreek urtero barrikusi behar dirala eta, beraz, urtero barrikusi behar dirala. Udalok jokoan kanpo itxi ahal gaitue ordenantza fiskalakaz, hori holan da.

Baina hainbat zalantza sortzen jakuz hemen, hain zuzen be, aurreko taldeagaz bat egiten dodan bat errazoiak dira, hau da, errazoi tekniko-juridikoa. 2022an koefiziente horreek Aurrekontuen Foru Arauagaz aldatu ziran, eta 2023an ez da holan egin. Nik gehiago jakin gura neuke txosten juridikoen eta memoria ekonomikoak ezartzen daberen errazoi tekniko-juridiko horretaz.

Eta harritzen nauen beste gauza bat, beharbada prozedura-kontu bat dago, baina Batzordean be ez dogu ikusi Dekretu hau, eta ez da tansposizino hutsa eta, beraz, koefiziente horreek osotzen dituen elementuei buruzko materialtasun apur bat dago.

Eta, benetan, sortzen jakun zalantzetako bat da zer jazo zan abenduaren 30etik martiaren 14ra bitartean. Hau da, hor egon da, egia da Dekretua Ogasun Saitetik urtetan dala, uste dot zezeilaren 7koa dala, baina hor aldi baten ez dakigu oso ondo zer jazo dan. Halanda be, benetan, zergea apliketaren ondorioetarako, pasau dana da ordura arte indarrean egozan koefizienteak erabili dirala, jakina, udalek ezin izan dabezalako euren ordenantza fiskalak aldatu, edo ezin izan dabelako arau fiskal hori erabili koefiziente barriak eguneratzeko. Eta, orduan, zalantza hori konpondu egin behar deuskuela uste dot.

Beste kontu bat be sortzen jat, eta talde honi, ondo be ondo dakizue zergei buruz daukagun jarrera, koefizienteak aldatzea. Hau da, Legeak edo Foru Arauak esaten dau koefiziente horreek etxebizitza-salerosketen arabera aldatuko dirala. Eta koefizienteen aldaketa barrikusten dozunean, batzuk beherantz doaz eta beste batzuk gorantz. Nik badakit, printzipioz, elementu komun bat dagoala, hain zuzen be, espekulaziorik egon ez daiten laguntzea, edo salerosketaren eta salmentaren artean epealdi laburragoa daukien espekulazino-elementuak gehiago zergapetzea.

Baina nik jakin gura neuke ea aldaketa horreek zehazten laguntzen deuskuen elementu objektiborik ba ete dagoan, hau da, zergaitik, ez dakit, 16 urteagaz egindako transmisioetan 0,03 jasten da? Ez dakit, jakina, hemen badago gauza bat, lehen 8/2023 Dekretuaz berba egin dogu, baina 2023ko 8/2023ko 24. artikulua zerga honen koefizienteak be aldatzen ditu Estatu osoan, eta koefizienteak bardinak dira. Hau da, gure legerian Dekretuaren koefiziente berberak sartu doguz, bai, holan egin behar gendualako, aldaketarik ez dagoalako, edo Bizkaiaren ikuspuntutik ez dagoalako inolako justifikaziorik koefiziente horreek aldatzeko?



Galdera hori, jakina, egin egin behar dogu Foru Gobernuaren kontrol-lan leiala bete gura izan ezkerro, ze batzuetan Etxebizitza Legea eskatzen gabilzala emoten dau, eta hori be garrantzitsua da, horrek zeozelako loturea daukalako horregaz, jakina. Gure Etxebizitza Legearen eskumenak ez inbaditzeko eskatzen gabilz, eta errekurritu egiten dogu. Eta, beste batzuetan, araugintzarako ahalmen osoa daukagunean koefiziente batzuk egiteko, edo Zergaren Araua une jakin baten gure interesetara edo gure Lurraldeko errealdade sozial eta ekonomikora ondoen egokitzen dan moduan zehazteko, ez dogu hori egiten, eta 8/2023ko 24. artikulua transposizinoa egiten dogu.

Orduan, denporea amaitzen doa, baina beste zalantza bat, eta hori aurrekoagaz alderatuta nahiko desbardina da. Sortzen jatan beste zalantza bat da ea Bizkaiko udalak benetan koefiziente barriak apliketan ete dabilzan Dekretu hau argitaratu zan egunetik, martiaren 14tik edo 17tik, euren zerga-ordenantzetan aldatu barik. Iruditzen jat baietz, eta ez dakit hemen udalek, udalek eurek, arazo bat euki leikien egiten dabezan likidazinoakaz, Foru Arauaren arabera egin dabelako, baina ez ordenantza fiskalen arabera.

Azalpenak argi emon izana espero dot, zerga ez da erraza eta.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke. Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Buenos días.

Izan be, Pagadigorria jauna, zerga hori ez da erraza. Errazoi osoa daukazu. Ea argi apur bat ekarten dogun. Bagilaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren bidez, uri-lurren balio-gehikuntzaren ganeko zerga arautu zan. Zuzeneko tributu bat da, lursailon balio-gehikuntza zergapetzen dauena, eta jabaria mugatzeko edozein eskubide errealean bidez eta Foru Arauan jasotako salbuespen eta hobariakaz haren jaubetza eskualdatzean agirian ixten dana.

Gogoratu behar da, era berean, zemendiaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez, lehen aitatutako uri-lurren balio-gehikuntzaren ganeko zergari buruzko Foru Araua Konstituzino Auzitegiak zerga horri buruz emondako erabagira egokitu zala. Eta aitatutako 1.4 artikulua 2021etik aurrera geratu zan jasota, honako honetan:

“Lurraren eskualdaketetan ez da zergarik atxikiko, izan be, eskualdatze-eta eskuratzeko-datetan lur horreen balioen arteko diferentziagaitik ez da balio gehikuntzarik izango”.

Horixe izan zan, beraz, hemen aitatu dan Konstituzino Auzitegiaren epaiak sartu eban elementua. Zelan kalkuletan da udal gainbalioaren zerga-oinarria, hain zuzen be 2021ean aldatu zana?

Koefizientea aplikauko jakon zerga-oinarria kalkuletako orduan, edo, halan bajagoko, irabazi-gehikuntzaren arteko aldea kalkuletako orduan, badago edo galtzen bada, bi elementu dagoz: sistema objektiboa eta plusbalio erreala.

Gainbalio errealarri jagokonez, lurraren eskuratzeko-balioaren eta salmentaren balioaren arteko aldea izango litzateke beste barik. Kasu horretan, lortutako benetako gainbalioa, halakorik badago, izango da zerga ezarriko jakona. Bestalde, eta sistema objektiboa



badrabilgu, zergaren zerga-oinarria hauxe izango da: lurzoruaen katastro-balioa udalek onartzen dabezan koefizientakaz bidertzearen emoitza. Koefiziente horreek ezin dira ezelan be Foru Dekretu Arauemailean adierazitakoak baino handiagoak izan, eta, gainera, higiezina erosi zanetik igarotako urteen arabera arautzen dira. Koefiziente horreek, eta halantxe esan da, urtero eguneratu behar dira Foru Arau bidez. Koefizienteak ezarri ondoren, jagokezan udaleko zerga ordenantzetan sartu beharko dirala uste dot. Horraino emon neike eretxia.

Foru Dekretu Arauemailearen erabilereari jagokonez, aurrekontuei buruzko arau orokorra erabili ahal dan arren, modalidade edo arau hau be badago. Ezarritako epea betetean bermea ahalbidetuko deuskun tresna bakarra da, eta tresna horren bidez bermatzen da erispideen aplikazinoan distorsinorik ez egotea tributazino-oinarria zehaztu ahal izateko; izan be, zergadunak egiaztetan dauenean benetako gainbalioa balioespen objektiboaren metodoaren ondoriozkoa baino txikiagoa dala, Errealia aplikau ahal dau. Koefizienteak ezelan be ezin dira saihestu.

Hori esanda, gogorarazo gura dot hori guztia bidezkoa dala, alde batera itxi barik zergapekoari autortzen jakon ahalmena, zerga-karga benetan lortutako balio-gehikuntzara egokitzeke. Hau da, inolako onurarik lortu barik zergak ordaindu behar ziran unea urrun geratu da.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. A continuación tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Gracias de nuevo, señora Presidenta.

En este caso la Diputación presenta este Decreto Foral Normativo, solicitando el voto favorable de los grupos políticos aquí representados; aunque para concitar ese voto favorable la Diputación no aporte ninguna explicación ni motivación. Con lo que aquí se regula decidiremos cómo gravar la plusvalía que se genera a consecuencia de la venta de la vivienda o de terrenos. Es más, lo que vamos a decidir es cómo se valora esa plusvalía.

Para ello había que hacer dos cosas:

- Por un lado, el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi señaló en 2022 que dada la complejidad de la materia, se iba a conformar un grupo de trabajo para la elaboración de la nueva Norma Foral. Pero estamos en 2024 y todavía no sabemos nada de ese grupo de trabajo. No sabemos en qué punto se encuentran las labores de este grupo de trabajo, por no saber no sabemos ni si se han puesto manos a la obra, no sabemos nada. Y mientras tanto, para valorar esta plusvalía año tras año han empleado ustedes la vía del Decreto Foral Normativo o la de la inclusión de un artículo en la Norma Foral de Presupuestos.

- Por otro lado, en referencia a los coeficientes de aplicación en 2024, los teníamos que haber decidido antes del comienzo del ejercicio. Pero, sin más explicaciones, en el preámbulo de este Decreto Foral Normativo la Diputación dice que, por razones jurídico-técnicas, no se han podido aprobar estos coeficientes en los presupuestos de 2024, y la



conclusión es que vamos con retraso a la hora de decidir los nuevos coeficientes a aplicar a los Ayuntamientos a lo largo de 2024.

Gainbalio horreek ebaluetako, lurraren edo higiezinaren balioa aplikau behar da, hau da, merkatuko higiezin salerosketen prezioen bilakaerak zehaztuko dauen koefizientea. Hori da urtero onartu behar dogun koefizientea, eta, beraz, salerosketa horreen prezioek azken urteotan izan daberen bilakaera aztertu beharko litzateke.

Orduan Aldundi honetako Gobernu Taldeak belu ez eze, belu eta txarto be aurkezten dau Foru Dekretu Arauemoile hau, ez daukalako beragaz batera higituezinaren prezioaren bilakaera ebaluauko dauen azterketarik, eta, besterik barik, estatu mailan onartutako koefiziente berberak apliketea proponiduten deuskulako. Zergaitik? Egia esan, ez dakigu oso ondo.

Lo único que sabemos es que este ejercicio no se puede hacer así, creemos que esto no es fundamento. Lo que sí sabemos es que la Diputación tenía que haber elaborado un informe económico para presentar estos coeficientes y no lo ha hecho.

Y llegados a este extremo, tenemos que hacer una pregunta. El Decreto Foral Normativo anterior sobre el IVA que hemos tratado hoy aquí era de transposición, por lo que no podíamos cambiar nada. No obstante, en el presente Decreto Foral, estas Juntas Generales podrán acordar los coeficientes. De verdad pensamos que ha habido una evolución igual? Nosotros no lo pensamos. Es verdad que este impuesto debería valer para desarrollar una política de vivienda de fundamento, como ha dicho la señora de Madariaga, y no estamos aprovechando esa potestad que tenemos. ¿Por qué? A nuestro entender por falta de responsabilidad y fundamento. Y además esto lo hacen después de cuatro meses de empezar el año. A los ayuntamientos les ha llegado mal y tarde la norma que dice qué coeficientes aplicar. No vemos razón para ese retraso.

Por tanto:

1) A la vista de la ausencia de informes que determinen los coeficientes adecuados, y de que en el informe económico existente no se dispone de información alguna sobre el impacto económico de la aplicación de los coeficientes aprobados por el Estado.

2) Y a la vista de que no vemos voluntad de analizar el tema en profundidad y presentar una nueva Norma Foral, nos abstendremos. A no ser que acepten una propuesta que haremos ahora.

Creemos que lo que determina el apartado 3 del artículo 143 da opción a tramitar el Decreto Foral como Proyecto de Norma Foral. Y solicitamos que sea tramitado de ese modo. De esta forma podremos hacer enmiendas a las propuestas y corregir las lagunas que detectamos. En caso contrario nos abstendremos.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: gracias a usted, señora Sarasola Lartategi. Es el turno de la señora Díaz Insausti, portavoz del grupo Euzko Abertzaleak.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.



La Diputación Foral trae hoy a esta sesión el Decreto Foral Normativo de modificación del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, con la actualización de los coeficientes que se realiza anualmente. Y quiero adelantar que nosotros votaremos a favor de este Decreto.

Dakigunez, eta behin baino gehiagotan aitatu danez, zerga horrek, udal-gainbalioen zerga esaten jakonak, uri-lurren balioaren gehikuntzari ezartzen deitso zerga, jaubetza hori edozein tituluren bidez eskualdatzen danean edo jaubetza mugatzeko edozein eskubide errealek eratzten edo eskualdatzen danean. Toki Ogasunei buruzko Foru Arauan sortu zan, autonomia eta finantza-nahikotasunaren printzipioak benetan gauzatzea ahalbidetuko eban udal-baliabideen sistema arautzeko helburuagaz. Eta joan dan legegintzaldian be aitatu izan da, Konstituzino Auzitegiaren zenbait epaik zerga hori lurralde erkidean arautzen eban Legearen manu batzuk Konstituzioaren kontrakotzat jo ondoren. Eta kontuan hartuta gure araudiak antzekotasunak eukazala Konstituzinoaren aurkakotzat jotakoagaz, gure araua aldatu eta egokitu egin zan auzitegiaren erabagi horreetara. Ondoren, Ganbera honetan be, udalen autonomiaren eta finantza-nahikotasunaren printzipioak hobetze aldera, udalek ezarri eikien gehieneko kargatasa handitzea onartu zan, %15etik %30era igoz.

Bestalde, foru-arauak sortzapenaren unean aplikau behar diran gehieneko koefizienteak be ezartzen dauz, eta horretaz be berba egin da. Koefiziente maximo horreek urtero eguneratzen dira, zerga-oinarria zehazteko jasotako erispideen aplikazinoan distorsinorik ez dagoala bermatzeko. Joan dan ekitaldian, hemen aitatu izan dan moduan, koefiziente horreek 2023rako Aurrekontuen Foru Arauaren bidez eguneratu ziran. Oraingoan, Aldundiak azaldu dituan arrazoiak dirala eta, ezin izan da holan izan, eta, beraz, Foru Dekretu honen bitartez gauzatu gura da.

Gure aldetik, esan behar dogu, aurreratu dogun moduan, Dekretuaren alde bozkatuko dogula, behar-beharrezkoa ikusten dogulako koefizienteak higituezinen merkatuaren errealdadera eta bilakaerara eguneratzea, azken urtean egindako salerosketa-prezioak eguneratzea eta, esan dodan moduan, zerga-oinarria zehazteko erabilitako erispideetan distorsinoak saihestea. Eta bigarren txandan erantzungo deutset aitaturako galdera batzuei.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Díaz Insausti. Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Labur-labur. Nire ustez, momentua da, edo Foru Gobernuak aprobetxau eikean unea zan, arautzeko gaitasuna daukalako, zerga horri buelta bat emoteko, benetan gura badogu zerga eraginkorra izatea daukan funtzinorako, eta, kasu honetan, ez da halan. Eta hori bai, Bizkaiko udalerritarako aplikazinoa buruhaustea da, eta, jakina, gai bat daukagu berbabide, hain zuzen be, zerga honek euki beharko leuken funtzinoetako bat espekulazino-mobimentuak hoztea bada, Bizkaian etxebizitzaren preziorik altuenak ditugula ulertuta, ezer gitxirako balio dau lurralde erkiderako balorau diran koefizienteak hartu ahal izateak, ez dalako Bizkaiko errealdadera egokitzen. Eta nik uste dot Aldundiak autozuzenketa-ariketa bat egin behar dauela Foru Dekretu Arauemoile honetan, ez datorrelako bat bizkaitarrok Bizkaian etxebizitzaren arloan bizi dogun errealdadeagaz, eta zerga horretatik askoz gehiago espero dalako eta une honetan zerga hori araututa dagoan modua aldatu behar dalako.



Gure aldetik, funtzino bi horreetan sakondu besterik ez dogu egin behar, hau da, alde batetik, etxebizitza-arloko espekulazino-mobimentuak hoztea, eta, bestetik, udalerrien finantzaketa-ahalmen moduan, kasu honetan be egia dalako Bizkaiko udalerrri guztietan ez dala funtzino hori behar dan moduan beteten dauen zergea.

Gure aldetik besterik ez. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Pagadigorria Wicke.

El Sr. **PAGADIGORRIA WICKE** jaunak: Muchas gracias.

Tira, Álvarez Castrejón jaunari bakarrik, lehen zergaren aplikaziorako ikastaro bat emon deuskunari, baina Auzitegi Konstituzionalaren epaiak zentzu handiko gauza bat esaten eban. Hau da, zerga-oinarria zehazteko formula bietan, bata subjektiboa zan, jakina, baina nonor konturatu zan formula objektiboak bere etxebizitzaren salerosketan benetan izan ez ebazan zerga-oinarriak adierazoten eutsazala. Beraz, baten bat kexau jakon Konstituzino Auzitegiari, Konstituzino Auzitegiak errazoa emon eutsan, eta zerga aldatu behar izan zan. Horregaitik, zerga zehazteko modu bi daukaguz, eta onuragarriena zergadunarentzat da, jakina.

Zerga horrek iraunkortasuna edo udalenzako baliabideak ditu ardatz. Egia da etxebizitza-politikea dagoala atzean, baina zerga-politikak edo guk ulertzen doguna da, zerga-politikak, oro har, etxebizitza-politikeari laguntzen deusien elementuak dirala, baina Zerga hori erabili daben udaletara bideratuta dago batez be, jakina, baina ez danetara, ze Bizkaian, ez dot gogoratzen, baina uste dot 30 udalerrri dagozala hori apliketan ez dabenak. Baina esan gura dot etxebizitza-politikaz gabilzanean, ze arazo handia da, nik esaten dodan lez, horrek ez dauela etxebizitza-politika konpontzen, eta hori etxebizitza-politikaren albokoa da. Baina ados gagoz horrek Foru Arau bat merezi ebal, eta azterketa apur bat gehiago merezi ebal.

Jakina, egia da Bizkaiko zergak aldatze unean gagozala, beraz, beharbada une horretara eroan behar zan eta zerga honen gaia zabaldu, udalen lantalde bat gehituz. Hori positibotzat daukat, baina, gainera, katastro aldatzen gagoz. Ez daigun ahaztu hemen katastrotik datorren lurzorua balioak zehazteko elementu bat dagoala. Igon egingo badogu, eta zalantza daukat, danok zalantzan jarten dogulako katastroko balioak murriztuko doguzala, zergadunentzako efektuak zerga-karga handiagoa izango dau, benetan. Orduan, elementu biakaz olgaten gabilz. Beraz, argi eta garbi egin behar jako aurre zerga honen errealidadeari, eta oso ados gagoz nasaitasun handiagoz eta interes handiagagaz ekarri behar zala, akordio orokorrigo bat lortzeko.

Dana dala, guk, ulertzen dogulako, eta jarrera hori daukagulako, nik askotan errepikatzen dot, baina Gobernuko alderdi bat gara eta gauza horreek ulertzen doguz, abstenidu egingo gara. Izan be, uste dogu udalek 6 hilebete dituela euren ordenantza fiskalak egokitzeko, lehen esan dodan ñabardura horregaz, ez dakidala zelan dabilzan likidatzen eta arazoa izan daitekela. Izan be, nahiago dogu arau eguneratu bat euki eta Zergaren Foru Araua bete, ez betetea baino.

Muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Pagadigorria Wicke. Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Orain zentratzen itxiko deustazue, tratetan gabilzan hori. Etxebizitza-politikari buruz, katastroaren aldaketari buruz, beste zerga-tasa batzuei buruz, horra heltzen garanean berba egingo dogu horretaz. Hortik aurrera, 2-3 gauzatxo aitatu baino ez. Urtebete baino gitxiagoan sortutako gainbalioak zergak ordaintzen hasi dira, eta, beraz, lehen eukiten eben alderdi espekulatiboena zeozelan konpondu egin da. Udalek zergaren kuoten %95era arteko hobaria emon leiikie hainbat egoeratan.

Udal batzuek, esan izan denez, guztiek ez daukie hobaririk, beste batzuek ez dabe tributua kobretan, azken baten, bakotxak, bere udal-subiranotasunaren barruan, bere lurraldeari gehien egokitzen jakona erabagiten dau. Garrantzitsua da azpimarratzea koefiziente maximoak dirala Foru Dekretu honetan agertzen diranak, eta, udalak txikiagoak baditu, dagozan moduan itxi leikezala, eta handiagoak badaukaz, jatsi egin behar dituala. Hau da, ez gabilz endredetan ordena hutsa ez dan zerbaitetan, eta zerga izugarri garrantzitsua da udalen kontuetarako. Orduan, hemendik udal soberanotasuna be errespetau behar dogu. Are gehiago, tresna hori egiten bada, udalek soberanotasun hori erabili ahal izateko da.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Álvarez Castrejón. Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Sarasola Lartategi.

La Sra. **SARASOLA LARTATEGI** andreak: Lo cierto es que en las explicaciones de la Diputada no hemos encontrado explicación suficiente para resolver las dudas que tenemos ante este Decreto Foral Normativo. No sabemos por qué, porque no lo ha explicado en sus explicaciones, se decide aplicar estos coeficientes y no otros. Y una vez escuchadas las opiniones de los dos grupos que han anunciado su voto afirmativo, lo cierto es que seguimos con las mismas dudas, porque en sus explicaciones no han dado esa razón.

Por lo tanto, nosotros seguimos manifestando nuestra opción por la abstención ante este Decreto Foral Normativo, a no ser que, insisto, se acepte la posibilidad que proponemos de tramitar y debatir esta Norma como Norma Foral. Esto nos permitiría, mediante enmiendas, ver realmente cuál ha sido la evolución de los precios de las Compraventas Inmobiliarias y en función de eso hacer otras propuestas adaptadas a la misma. Sabemos que si se tramitara como Norma Foral esto supondría un retraso, y que supondría un retraso a los Ayuntamientos, pero pensamos que lo haríamos con más altura de miras, y una vez llegados a este punto, ya que venimos de 4 meses de retraso, no nos parece que alargar más pudiera suponer un problema extraordinario.

Insisto, por tanto, en la falta de explicaciones suficientes, en la falta de altura de miras, que será la principal razón para abstenernos, y pedimos que se tome en consideración la propuesta que hacemos sobre el modo de tramitación.

Nada más, muchas gracias.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Sarasola Lartategi. Tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señora Díaz Insausti.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Gracias señora Presidenta.

Lehenengo eta behin, Sarasola andreari esan behar deutsagu gu dekretu moduan izapidetzearen alde gagozala, Aldundiak ahalmena daukela holan egiteko, eta Foru Arau moduan tramitetea, ekarriko leukeen gauza bakarra denporan atzeratzea izango litzatekela, eta horrek udalerriei kalte egitea baino ez dakar.

Eta uste dot eztabaida lekutik atera dala. Dekretu hau koefizienteak eguneratu egiten ditu, eta hori ez da inoiz eztabaidatu, inoiz ez da koefizienteei buruz eztabaidatu, inoiz ez da hain eztabaida sakona egin. Koefizienteen eguneratze hori urtero egiten da, guk behar-beharrezkoa ikusten dogu, eta ezinbestekoa, batez be udalerrientzat, udal horreen finantza-nahikotasuna babesteko.

Aldundiak EZKOn lan egin dau udalen eskutik, Eudelen bitartez. Bertan, Sarasola andrea, Bilduk gobernetan dituan udalek be ordezkartzea daukie lantalde horretan. Halanda ze, ez dakit; zuk dinozu ez dozula ezer jakin lantalde horri buruz. Eudelen zuek ordezkatuta zagoze, eta hor zabizie lanean. Eta hain da buruhaustea zerga hori ze Aldundia lantalde horretan lantzen dabil, udalei araudi hori eguneratzen lagunduz, eta eurakaz lan eginez.

Zerga horri buelta bat emon behar jakon ala ez eztabaidatzea. Gaiari buruz berba egin behar bada, eta horri buruz berba egin behar bada, konfigurazino barriari buruz, egingo da. Orain ziur nago Aldundia pozik jasoko dituala, De Madariaga andrea, konfigurazino barri horren edo emon gura jakon buelta barri horren ganeko proposamenak. Dana dala, barriro dinot, erakundeek lantalde bat daukie EZKOn, eta bertan gai horri buruz eta konfigurazino posible horri buruz berba egiten dabil.

Eta, azkenik, PPri be esan gura deutsat katastroa eguneratzeari buruz, apur bat arriskutsua iruditzen jaku egin dozuzan baieztapenak, batez be, kontuan hartuta, edo lantzen balio txostenak euki barik, egiten dabilan eguneratzea, barriro be, udalen eskutik. Beraz, nire aldetik, besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora Díaz Insausti. Terminado el debate, sometemos a votación, en primer lugar si las Juntas Generales de Bizkaia ratifican o no el Decreto Foral Normativo. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Se han emitido 49 votos, 31 votos a favor, no ha habido votos en contra, 18 abstenciones y, de acuerdo con lo establecido en el artículo 143 de nuestro reglamento, la señora Sarasola Lartategi ha solicitado la votación de dicha tramitación como Norma Foral una vez convalidada. Entonces, realizaremos esa segunda votación respecto a la tramitación. Así que podemos votar.

El resultado es el siguiente. El número de votos emitidos ha sido de 49, 16 a favor, 30 en contra, 3 abstenciones. Por tanto, no se tramitará como proyecto de Norma Foral.

Y punto 3 del orden del día.



La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:
Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000635](#))
Autor: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)
Asunto: Línea 5 del metro
Documento Principal:
[\(R.E.12/E/2024/0000635\)](#)
Expediente: ([12/B/20/0000931](#))

3.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:
Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000635SE](#))
Egilea: Méndez Urigoitia, Raul (EHB)
Gaia: Metroaren 5. linea
Dokumentu Nagusia: ([12/E/2024/0000635SE](#))
Expedientea: ([12/B/20/0000931](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Méndez Urigoitia, tiene usted la palabra.

En este punto quiero dar la bienvenida a los vecinos y vecinas que se han acercado desde Usansolo.

Tiene usted la palabra.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias señora presidenta, buenos días a todos y a todas, y muy especialmente a las personas representantes de la Comisión Gestora de Usansolo y a los ciudadanos y ciudadanas que nos acompañan hoy. Bienvenidos y bienvenidas a esta cámara.

Hoy traemos a esta Cámara la moción derivada de la pregunta formulada en el anterior pleno de control sobre la llegada de la línea 5 del metro al municipio de Usansolo.

En aquella sesión de control, la diputada de Transportes, la señora Pérez Ezquerria, tuvo la ocasión de exponer la opinión de la Diputación sobre el estudio de alternativas para llevar el metro hasta Usansolo, pero yo creo que la desperdió, y no nos aclaró casi ninguna de las dudas planteadas.

Yo, al igual que hice en el pleno anterior, sin pretender ser portavoz de nadie, sino como correa de transmisión, pondré en mi boca las palabras del pueblo de Usansolo.

Los grupos culturales, sociales y deportivos de Usansolo queremos aprovechar este momento, como PUEBLO y en unidad, para comunicarnos lo siguiente:

En 2022, ETS (Euskal Trenbide Sarea), en nombre de la Diputación Foral de Bizkaia y del Gobierno Vasco, organizó diversas reuniones informativas para presentar el nuevo proyecto de la línea 5 del metro.

Este proyecto eliminaba el apeadero existente en el centro de Usansolo y lo sustituía por una estación en las inmediaciones del hospital: lejos de nuestro casco urbano, sin accesibilidad para personas con movilidad reducida, y en un punto negro que no proporciona ninguna seguridad.

Ante esta propuesta se nos emplazó a presentar alegaciones dentro de los plazos administrativos y los grupos de Usansolo, con el apoyo de la ciudadanía, presentamos varias alegaciones para reivindicar la necesidad de una estación en el centro de Usansolo.



Desde entonces y hasta la actualidad, ETS, la Diputación Foral de Bizkaia o el Gobierno Vasco no han mantenido reuniones informativas adicionales y hemos tenido que conocer el proyecto definitivo por la prensa.

Un proyecto que, lamentablemente, no tiene en cuenta las alegaciones presentadas por los ciudadanos y ciudadanas de Usansolo. A este respecto, consideramos que la forma de actuar ha sido desleal y poco transparente.

No nos han informado ni escuchado y el proyecto final es una imposición que empeora la situación actual del pueblo y no responde a las necesidades de la ciudadanía. Tal y como se adelantó en las alegaciones presentadas, la lanzadera no es una alternativa y toda solución debe tener acceso a metro en el propio centro de la localidad.

Por todo ello, instamos a la Diputación Foral de Bizkaia y al Gobierno Vasco a:

1. Convocar una nueva reunión informativa para escuchar las necesidades de la ciudadanía de Usansolo.

2. Paralizar el proyecto presentado hasta que Usansolo prevea una alternativa que mantenga una estación en el casco urbano.

Usansolo tiene la capacidad para conocer, opinar y decidir su futuro.

Hemos trabajado duro para constituirnos como municipio, para que nos vuelvan a escuchar ahora: ¡METRO EN EL CENTRO USANSOLO AHORA!

Gorosibaiko Auzo Elkarteak.

Burtotza Mendi Taldea.

Usansoloko Odol Emaileak.

Usansoloko Esku Pilota Taldea.

Gazteberri Kultur Elkarteak.

Gure Etxea Adinekoen Zentroa.

Kabilduk, Lamintxu Gazte Asanblada.

Mirari Emakume Taldea.

Oinarin Dantza Taldea.

Usansoloko Orfeoia.

SD Umore Ona.

Umore Ona Txokoa.

Unkina Saskibaloia Taldea.

U113 Triatloi Taldea.



Ujaba.

Usansoloko Ludoteka.

Usansolo Racing.

Usansolo Euskaraz Taldea.

Usgaldu Elkartea.

Usansolo Herria.

EAJ.

Eta EH Bildu.

Todos los agentes que acabo de mencionar participaron en la manifestación y se adhirieron al comunicado que voy a leer a continuación.

Hori da, nik uste, Usansoloko herriaren eretxia, bai behintzat bere gizarte-eragileena eta bere erakunde politikoena, eta halantxe adierazo eben joan dan zapatuan.

Testuaren esaldi batzuk laburbilduko dodaz gaztelaniaz, euskeraz irakurri dodazanak argi geratu ez badira be:

ETSk, Bizkaiko Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak ez dabe informazino-bilera osogarririk egin, eta prentsaren bidez behin betiko proiektuaren barri izatea egokitu jaku.

Proiektu horrek, harritzeko, ez dauz aintzat hartu usansolotarrek aurkeztutako alegazioak.

Jokabide desleiala eta ez oso gardena egiten jaku.

Ez deuskue informazinoarik emon, ezta entzun be, eta azken proiektua, gure ustez, inposizinoa da, herriaren egungo egoera okerrera eroan eta herritarren beharrei erantzuten ez deutsena.

Aurkeztutako alegazinoetan aurreratu zan moduan, lanzadera ez da alternatiba bat, eta edozein konponbide emoten dala, Metrorako sarbidea Usansoloko erdiunean egon behar da.

Hori da Usansoloko kultur, gizarte eta kirol taldeen komunikaduak jasoten dauena, joan dan zapatuan bere udalerrian egindako manifestazinoaren ostean irakurritakoa. Eta uste dogu ez dala bateragarria Foru Gobernuari eusten deutsien taldeek aurkeztutako zuzenketeagaz.

Uste dogu zuzenketa hori berandu datorrela, zuek berandu zoaziela, ez da auzotarren eskaerak aztertzeke garaia, horreek egin ziran, eta orain urtebete baino gehiago erregistrauta dagoz, ez da azterlan teknikoan garaia, eginda dagoz, eta oso argiak dira eta alternatibak aurreikusten ditue.

4 alternatiba dagoz, eta aukerarik egokiena Usansoloko herriagaz erabagi behar da, alkarregaz, eragile sozial eta politikoakaz alkarlanean, eta horretarako BORONDATE



POLITIKOA baino ez da behar. Alderdi teknikoa eginda dago. Asmetako dago, eta asmau dinot, aukerarik egokiena.

Gure ustez, kolektibo horreek eskatzen dituen puntu biak, lehen irakurri dodazanak, EH Bilduk aurkeztutako mozinoan jasoten dirala, eta gaur eztabaidatu behar doguzala, eta holan dino, eta honegaz amaitzen dot:

Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deusie:

1.- Egitea Usansolon alternatiben azterketaren aurkezpen publiko bat, han azaltzeko 4 aukeretako bakotxaren alde onak eta txarrak.

2.- Usansoloko Kudeaketa Batzordeagaz erakundeen arteko lankidetzaz-esparru bat ezartzea, Usansoloko udalerrirako alternatibarik onena zehazteko eta modu adostuan ezartzeko.

Talde guztiei eskatzen deusegu horren alde egin daiela, uste dogulako argi geratu dala zein dan usansolotarren jarrera nagusia.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Méndez Urigoitia. Tienen la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días y gracias señora Presidenta. Egun on batzarkide guztioi eta sare sozialetan jarraitzen gaituzuen guztioi, eta eskerrik asko erakunde honetako langileei eta Osoko Bilkura hau egitea eta jentaurrean zabaltzea ahalbidetzen dozuen komunikabideei, baita gugaz dagozan Usansoloko herritarrei be.

Gaur, metropoli-trenbidearen 5. lineari buruzko mozino bat aztertuko dogu, Pérez Ezquerria andreak Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio, Mugikortasun eta Turismoko diputadu andreak zabal eta zehatz erantzun eban itaunetik eratorria. Egia esan, foro honetan hainbat aldiz eztabaidatu dogu 5. lineari buruz, eta argi itxi gura dot proiektuak aurrera egiten dauela, eta behar dan moduan egiten dauela aurrera. Aurrera doa, ibilbide-orri argia dagoalako, eta ezin dalako aldaketa etenbakoien edo jarraituen menpe egon, proiektua geldiarazoko litzatekeelako eta aurrerapen hori desegoki eta beharrik barik atzeratuko litzatekeelako.

Lehenengo eta behin, laburpen bat egin gura dot, linea horrek izan dauen bilakaera gogorazoteko. Trazadura barri hori 3. lineatik dator, Sarratutik Galdakaoko herrigunera eta Usansoloko ospitalera trenbide-zerbitzuko 3 tarte barri eraikitzeke, eta, ondoren, Usansolo inguruan Durangoko lineagaz lotzeko. Trazadu barri horrek 6,2 km eta 5 geltoki barri daukaz. Azpiegitura horrek erabiltzaileen beharrak modu koherentean eta egokitan hobetu gura dauz, Durangaldea eta Arratia lotuz, eta, era berean, Galdakaoko eta Usansoloko bizilagunen eta Usansoloko ospitaleko langileen konektibidadea hobetuz.

Azpinarratu gura dot, era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak %50ean finantzatzen dauela azpiegitura hori, eta, horregaz, Gobernu honi eusten deusagun taldeok garraio publiko jasangarriaren aldeko konpromisoa hartzen dogula. Eta barriro be azpinarratu gura dot euskal sozialisten borondate sendo eta irmoa. Eta hori ez da sortu orain, aspaldi-aspalditik datorrena da-ta, bene-benetan, tren honetara, ez beste talde batzuen moduan tren honetara, Metro honetara azkenengo aldian igon dirala emoten dabenak, lehen holako azpiegitura guztien aurka egozalako. Gu ez, ez gara orain igon. Sozialisten konpromisoa luzea



da eta benetakoa da, prisa barik, baina etenik barik egin dogu lan horretan. Gure konpromisoa irmoa da, eta ez hauteskunde-kanpainan bakarrik, orain halan da, lehen be halan izan da, eta aurrerantzean be halan izango da.

Gu ez gara azkenengo modako pentsakereagaz bat egitearen aldekoak, politagoak diralako edo erara etorri diralako; hau da, populistagoak diranakaz. Ez, sozialistek garraio publiko jasangarriagaz daukien konpromisoa jasangarria da, eta, zehatzago esanda, 5. linea horregaz aspalditik. Izan be, 5. linea hori 2009-2012 urteetan planifikau zan, Eusko Jaurlaritzan Lehendakari Sozialista egoala, une haretan Patxi López buru zala. Proiektu ha ezin izan zan gauzatu garai haretako krisiagaitik eta beste errazoi batzukaitik, baina batez be krisiagaitik. Baina ez dogu ahaztu, eta gauzatzeko baldintzak barriro bete diranean, egin egin dogu.

Ez daitela zalantzarik egon, 5. linea errealidade bihurtuko da eta euskal sozialisten konpromisoa dauka. Barriro dinot, 180.000.000 euro bideratuko dira erakunde honetatik, eta hori ikusteko moduko errealidadea da, ez da hauteskunde garaiko promesa bat.

Proiektuan zehatzago sartuta, trenbidearen arloan eskumena daukan organoak, ETSk, konponbide zehatz bat zergaitik aukeratu dauen jakin behar da. Hasiera baten, 2010-2012 urteetan, lehenengo informazino-azterlanek zalantzan jarri eben azpiegitura hori, ez ebazalako beteten gitxieneko errentagarritasun sozioekonomikoaren parametroak, batez be Europako Inbersino Bankuagaz, harek finantzatzen ebalako zati bat behintzat. Errealidade horrek informazino-azterlan osogarri bat egitea aholkatu eban, eta 2022an egin zan, jagokon jente-aurreko aldiagaz. Azterlan horren ondorioek proponiduten eben trenbide-zerbitzua Usansoloko urigunera hurbiltzea, hipotekau barik eta proiektua gauzatzea geldiarazo barik. Euskal erakunde guztiek, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, behar egiten dabe herritarrentzako konponbiderik onena lortzeko, eta, horregaitik, Eusko Jaurlaritzak 2023ko urrian 4 aukera posible emoten ditu, eta horreen artean egingarriena, Usansoloko kanoia esaten jakona 100 metro luzatzea aurreikusten dauena da. Sarbide horregaz batera, Metroaren zerbitzutik eta Usansoloko erdiunetik urrunen dagozan auzoetako erabiltzaileak sartu ahal izateko lanzadera bat martxan jartea aurreikusten da. Azken formula horri beste mobikortasun-sistema bat deitu jako, hasieran ezarritako parametroak eta helburuak beteten dauzana.

Horregaitik, zuzenketa bat planteau deusagu hasierako mozinoari, gure ustez herritarren borondatea be jasoten dauen zuzenketa-eskeari, eta, bertan, Bizkaiko Batzar Nagusietatik Eusko Jaurlaritzari, ETSri eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsegu Usansoloko Kudeaketa Batzordeagaz batzeko, besteak beste gure erakunde honek berak 5. linea diseineteari buruz egindako azterlana azaltzeko herrian pasatzean. Era berean, eskatzen da, azterlan horren ondorioak oinarri hartuta, bilera horretan herritarren eskaerak aztertu daitezala, eta, azterlan teknikoek halan ondorioztatzen badabe, eraikuntza-proiektuan sartu daitezala, proiektu horren idazketa kontratazino-fasean dago eta.

Azkenik, esan gura neban, edozein kasutan baten batek aitatu dauela geldiarazotea be. Gu, eta holan dino talde biok, Euzko Abertzaleak Taldeak eta Talde Sozialistak planteau dogun zuzenketeak, batzar gehiago egin behar badira egitearen aldekoak gara. Izan be, holan egitea eskatzen dogu, baina proiektua gelditu barik.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno. Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Lerma Mentxaka.



El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Gracias señora Presidenta, y por nuestra parte la bienvenida a todos los invitados que os habéis acercado a esta Casa de Juntas, tanto a los que formáis parte de la Comisión Gestora de Usansolo, como a todos los que habéis venido como ciudadanos.

Yo creo que no hay mucha diferencia, la verdad, entre la moción presentada y la enmienda conjunta con el Grupo Socialista que nosotros hemos dispuesto. Yo diría que no hay mucha diferencia.

Zer dino gure zuzenketeak? Jaurlaritzari, eta ETS erakundeari be, eta Aldundiari, Usansoloko Kudeaketa Batzordeagaz alkartzeko eskatzen jako, 5. linearen diseinuari buruz udalerritik igarotean egindako azterlana azaltzeko. 5. linea esan daigun ez dala Usansolon amaitzen, Euskotrenen zerbitzuagaz eta Euskotrenen lineagaz konektetan amaituko dau. Era berean, azterlan horren ondorioak oinarritzat hartuta, berez eginda dagoz honezkero, herritarren eskaerak aztertzen dira, eta, azterlan teknikoek halan esaten badabe, eraikuntza-proiektuan sartu daitezke.

¿Cuál es, en realidad, la diferencia o diferencia principal? Que esa moción original, la moción presentada por Euskal Herria Bildu, sólo hace la petición a la Diputación Foral, lo que a nuestro entender no tiene ningún sentido. Esa sería la principal diferencia. En cuanto a contenido no hay tanta diferencia.

La primera demanda es muy similar, a fin de cuentas, presentar y explicar el estudio realizado y esas 4 alternativas diferentes que se pueden considerar al principal o más importante agente de Usansolo, el más básico, la Comisión Gestora de Usansolo.

Eta, bigarrena, alkarreragin horretatik sortu daitezkezan eskaerak aztertzea, eta, azterketa teknikoak halan badino, eskaera horreek gehitzea.

Entendemos que la nuestra es una propuesta mejor que la de definir de forma consensuada con los agentes de Usansolo cuál es la mejor solución, la enmienda lo mejora porque, al fin y al cabo, es más eficaz.

Askoz be eraginkorragoa da, egia esan, ze mozinoaren arazoa da Foru Aldundiari bakarrik eskatzen deutsola, eta, nire ustez, Euskal Herria Bilduko ordezkariak guztiz kontziente dira trenbideko garraioaren arloko eskumena eta erantzukizuna Eusko Jaurlaritzarena dala, bai konponbideen diseinuan, eraikuntza-proiektuen kontratazioan edo egin beharreko aurretiazko dokumentazio guztian, bai obrak gauzatzean eta zerbitzua emotean, egia esan. Ez da Foru Aldundiarena.

Beste batzuetan be eztabaidatu dogu horren ganean, eta ez dogu benetan ulertzen Foru Aldundiari eskatzea zeozer egiteko, gero, benetan ez bada bere eskumenekoa; ez dau eskumenik izango eta ez dau "ezertarako" balioko. Izan be, beharbada Foru Aldundiak ez dau gauza jakin batzuk egiten saiatu behar, bitartekaritza edo Eusko Jaurlaritzagaz beragaz lankidetzan ez bada. Bestela, errespetu falta be izango litzateke eskumenak dauzanarekiko, Jaurlaritzarekiko berarekiko, Eusko Jaurlaritzarekiko berarekiko. Eta benetan ez dot ulertzen planteamentu hori, benetan uste dodalako Euskal Herria Bilduk ondo baino hobeto ezagutzen dituala administrazio bakoaren eskumenak. Eta gure zuzenketa-eskeak hirurei eskatzen deutse.

Horregaitik, planteetan dot jatorrizko mozinoan planteetan danak ez daukala benetako eraginkortasunik. Emon daigun akordio bat dagoala soluzinoetako bati buruz, Foru Aldundiaren eta Usansoloko Gestorearen arteko hartu-emonean gustukoena danari buruz. Horrek eragingo al dau konponbide horren eraikuntza-proiektua idaztea edo konponbide hori osoaren eraikuntza-proiektuan sartzea? Ba ez, bitartekaritza edo adostasunez eta Eusko



Jaurlaritzaren presentziagaz ez bada, hori ez dalako holan izango. Kontratauko da urtenbide horren eraikuntza? Ez da kontratauko konponbide hori eregitea, izan be, Foru Aldundiaren eretxia gorabehera, Aldundiak ez daukalako konponbide hori definituteko eskumenik. Horregaitik, uste dogu benetan hobea dala guk aurkeztu dogun zuzenketea, uste dogulako behar-beharrezkoa dala Eusko Jaurlaritzea tartean izatea urtenbiderik onena definituteko.

Eta ganerakoa, egia esateko, iruditzen jaku herritarrak engainetea edo erdi engainetea dala, ze, benetan, eta beti bat esateko arriskuagaz be, Foru Aldundiak ezin dau ziurtau onenatzat hartu leiteken urtenbidea gauzatuko danik.

Amaitu aurretik kontu bat aitatu gura dot. Izan be, ezin dot onartu esatea Aldundiak ez daukala interesik, edo ez dala jentteagaz batzen, ez daukala interesik herritarrek agertzen dabezan arazoak konpontzeko. Foru Gobernuak beti entzun ditu gizartearen eta herritarren eskaerak, edo, gitxienez, kezkak. Eskariak, esan dot, baina, benetan, askotan ezin da egin herritarrarentzat egin gura dan guztia. Eskumena ez daukan esparruetan be, beti entzun izan da zein diran herritarren arazoak eta arazo horreek konpontzeko ahalegina egiten da.

Mozinoan egin dogun planteamentua, eta beste era batera esanda, arazo bat dago? Ez gagoz ziur komunikabideen bidez ezagutzera emon dan konponbidea egokiena ete dan. Gauza garrantzitsu bat, Usansoloko herritarrek eta Usansoloko ordezkariak ez dabe sentitzen behar dan moduan tratau dabezala? Gerora batzar gehiago egongo ziralakoan egon dira? Alderdi edo arazo informatikoetan askotan jazoten dan lez, amatau eta biztu, resetau eta egin behar diran batzarrak barriro egin daitezala eskatu. Eskatu, ze ez dot uste aukera posible bakarrak alkarreraginetik eta Usansolo ordezkarien eretxetik definituta geratu diran laurak diranik. Ziur asko, hobekuntza batzuk sortu daitezkeza, proiektuan sartzeko modukoak. Eta zentzun horretan, Usansoloko ordezkarien eskaera horreei behar dan moduan erantzun.

Baina hori bai, behar-beharrezkoa da horretan parte hartzen dauena Eusko Jaurlaritza edo haren menpeko erakundea, ETS, izatea.

Eta itzuli egiten dot, ez da eztabaidatzeagatik, onean itzultzen dot. Euskal Herria Bilduko ordezkariak mozinoa bere horretan proposatu dauen eskatu badau be, benetan diotsut, zuzenketaren alde bozkatzera proposatzen dot, izan be, uste dot hobetu egiten dauela, askoz gehiago egokitzen jakozala eskumenak, eskubidea eta zelan jokatu behar dan arazo hau konpontzeko.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias señor Lerma Mentxaka. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Gracias señora Presidenta, y buenos días. Ondo etorriak Usansoloko herritarrak.

Beno, gauza batzuk. Iazko urriaren 30ean, gure taldeak oso galdera zehatzak erregistratu ebazan 5. lineari eta ha martxan jartzeari buruz. Inguruan sortzen hasi ziran zalantzek eta ziurbakotasunak eragindako galderak ziran, ordura arteko informazioa ez etorrelako bat, neurri handi baten, gero prentsan agertzen zanagaz. Obren hasierari, tarte bakotxerako aurreikusitako epeei, Europako funtsekin finantzatzeko aukerari eta amaitzeko aurreikuspenari buruzko informazioa eskatu genduan.



Ba erantzunak zehatzak bialdu arren, deigarria iruditu jakun horreetako asko bat ez etortea informazio-ekitaldian herri-plataformei emondako azalpenakaz. Izan be, askotan engainauta sentiduten zirala esaten eben, eta beste hainbatetan, parte hartu barik. Orain EH Bildu taldeak mozino bat aurkeztu dau, aurkezpen prozesu barri bat martxan jartea eskatzeko, Usansoloko egoera barriaren ostean dagozan alternatiben alde onak eta txarrak kontuan hartu daitezcan, eta, aldi berean, udalerrri barriko kudeaketa batzordeagaz erakundeen arteko lankidetzera eskatu dau, alternatibarik onenak bilatzeko.

Zer arazo dago, Lerma Mentxaka jauna? Zer arazo dago? Zuk dinozun moduan, Foru Gobernuak beti entzun izan dau, zer arazo dago alternatiba onuragarriak bilatzen ahalegintzeko? Logikoa dirudi alternatibak entzuteko eta artatzeko edozein prozesuk lekua izatea onura ekonomikoaren aurrean onura soziala helburutzat daukien jarduerak praktikan jartzean. Ala ez da egia? Egia dirudi, ostera, entzuteko prozesuak oso mugatuta dagozala azkenaldian, eta gero eta sarriago entzuten dogu proiektu hori egin egingo da bai ala bai. Eta, jakina, gero gizarte-kolektiboak etorri eta kexau egiten dira, Guggenheim, ibaipekoa...

Ez naz gaitik alduko errietarik ez egiteko. Baina hemen guri jagokun gaia entzutea, arreta, alternatibak eta eguneratzea da. Hori da mozino honek bilatzen dauena, edo, behintzat, hori da ulertu doguna. Zergaitik ez onartu? 5. linean zentratzearen, "Sarratu Intermodal BAI, baina HORRELA EZ" plataformak hilabete baino gitxiagoan Basauriko bizilagunen 3.500 sinadura baino gehiago biltzea lortu eban, Sarratuko geltoki barriaren proiektua eta herri horretako trenbideko garraioa berrantolatzeke. Plataforma hori hogei bat alkartek osotzen dabe, eta euron artean dagoz Basauriko bizilagunen alkarte guztiak eta beste alkarte sozial, ekologista, kultural eta kirol alkarte batzuk. Beren aldarrikapenakaz bilatzen eben Basauri eta Galdakaoko ospitalearen arteko lotura ahalik eta zuzenena izatea, eta geltoki hori benetako intermodal bihurtzea, disuasio-aparkalekua eta bizikleta-aparkaleku eta guzti, beste garraio bide publiko batzukaz lotuz, eta bide batez udalerriko trenbide-garraioaren eta salgaien garraioaren berrantolaketa aprobetxetea eta trenbide-pasaguneak kentzea be.

Sinadura horreekaz, Eusko Trenbide Sareagaz batzar bat egitea lortu eben, eta bilera horretan, Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura eta Garraio zuzendariak lan-mahaitik konpondu bako arazoetarako alternatibak aztertzea ahalbidetu eban. Mahai horretan inplikautako alde guztiak egongo ziran, hau da, ETS, Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta udalak. Baina informazio-ekitaldi hatako gauzarik garrantzitsuena zera da, Loli de Juanek, garai haretan, obra gauzatzeko aldi osoan zehar konponbiderik zentzuzkoenak planteau, aztertu eta hartzeko nahikoa denpora egoala adierazo ebal. Lana egin bitartean denporea egoan, Jerónimo Moreno jauna. Halanda ze, bere garaian berbaz esandakoaren arabera mozino honegaz ez dogu desadostasunik topetan, izan be, aldaketek, aurreikuspen faltatik edo arazo teknikoetatik eratorritako kostu igoerei lotuta egoteaz ganera, aldaketek kontuan hartu behar ditue herritarrek errealidade barriakaz eta abagune sozialagaz dituen eskariak.

Hara, gure Taldetik uste dogu garrantzitsua dala Usansolon 5. lineak daukan arazoa eta Euskotreneagaz daukan loturea Sarratuko intermodaletik udalerrri honetako herritarrei emoten jaken irisgarritasun-konponbideagaz lotzea. Basaurin, Usansolon lez, herritarren plataformek 2. linea 5. linea barriagaz eta Sarratuko linea intermodalagaz zentzuz lotzea aldarrikatzen dabe. Beraz, errazoizko konponbideak aldarrikatzen ditue, herritarrei garraio-linea barri horretara sartzea erraztuko deutseenak, eta ez dabe ulertzen zelan diran zentzuzkoak lekualdatze bi eta 300 metro inguruko oinezko joan-etorria egitea eskatzen daben alternatibak, adibidez.

Gure Taldetik itaunetik eratorritako mozinoa babesten dogu, eta Aldundiari eskatzen deusagu ez mugatzeko bakarrik Usansoloko udalerrira, baita linea barri honek inplikautako eta eragindako gainerako udalerrietara be, herri plataformek adierazotakoari erantzunez, euren udalerrietako herritarren ordezkari diralako.



Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez Guadalupe Garcia Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Gracias señora Presidenta. Buenos días. Gaur hemen dagozan Usansoloko herritar eta ordezkarietara bai.

Gaur Bilduk mozino bat ekarri dau hona, Metro Bilbaoren 5. linearen Usansoloko loturari buruz aurkezpen publikoa eta erakundeen arteko lankidetzarako esparrua proponiduteko. 5. linea, azkenean lehenengo tarteetarako argi apur bat ikusten dauen proiektua, herritarren aldarrikapena da oin dala 18 urtetik. Urte horreetan, ohikoa dan moduan, zuek, Foru Aldundiko jaun-andreok, joan-etorrien, atzerapenen, geldialdien eta, zelan ez, promesa faltsoen historia interesgarria sortu dozue, datak eta guzti, tren-azpiegiturei buruz berba egiten dogunean etxe honetan egin izan dan moduan. Baina, jakina, 5. linea, zuek urte batzuetan gura izan ez zenduen proiektua, lurralde-kohesinorako beharrezko elementua da gure lurraldearen etorkizunerako, batez be Etxebarri, Basauri eta Galdakaorako, metro-sareagaz lotzen ditualako.

2008. urteko hasierakoak Usansoloko geltokia aurreikusten eban. 2010ean egindako lehen ezarpen-azterlanean be balorau zan. Azterlan horretan, Usansolori bere herrigunean metro-geltoki bat emotea balorau zan. Eta 2012an, egindako informazino-azterlanaren esparruan, orduan baztertu zan Usansoloko geltokia, eta azterketa hori 2016an onartu zan. Bien bitartean, eta aldi horreetan guztietan, denpora tarte handiak egon dira, eta, denpora tarte horreetan, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak hasieran eskainitako datak zalantzan jartez gan, azpiegitura bera be zalantzan jarri izan da. Harritu egiten naz gaur goizean tribunan gai horri buruz betiko konpromisoari buruz berba egin izanagaitik, baina, era berean, 5. linean errealidade batzuk ez dira alde batera itxi behar.

2018an, Metro Bilbaoren 5. linea behin betiko baztertzeke zorian egon zan. Ez daigun ahaztu 2018ko maiatzean Euzko Alderdi Jeltzaleak, Euskadiko Alderdi Sozialistak eta Bilduk bat egin ebela euren botoakaz Eusko Legebiltzarrean, proiektu honen aurrean alternatibak bilatzeko. Ondoren, erakundeen iragarkiak hasi ziran, batez be hauteskundeak aprobetxauz, baina 2022ko urrira arte ez zan akordio ekonomikorik lortu Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean 5. lineari jagokonez. Eta hor, 2022an, azterlan alternatibo bat egiten da Usansoloren soluzinoari buruz, orain zuek baztertu gura dozuena.

Batzarretako Talde honetatik eta Alderdi Popularretik beti babestu dogu 5. linea, baita zuek edo zuetako askok proiektu hori ukatzen zenduenean be. Eta, jakina, Usansoloko udalerriaz konprometiduta gagoz, Usansoloko udalerrian 5. linearen proiektuagaz eta ondoren beteteagaz konprometiduta, Usansoloko herritarren eta euren ordezkarien beharizanei eta aldarrikapenei erantzun egokia emoteko, horretan argiak izan dirala uste dogulako. Eta egia da, Usansolok 5. lineagaz behar dan moduan konektauta egotea eskatzen dau, bertako biztanleentzat irisgarria izan daiten, baina hori ez da gertatzen Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak aurrera eroan gura daben egungo proiektuagaz.

Batzarretako Talde honen eretziz, ez dauka ezelango zentzunik herritarrek garraio publikorako irisgarritasunean murrizketea baino ez izateak eta Euskotrenen geltokia erdigunean eukitetik garraio sarera sartzeko udalerrien kanpokaldera joan behar izatera paseteak. Ez dogu uste hori danik egin beharrezkoa etorkizuneko garraio-proiektu baten. Metroaren ahoak, une honetan planifikauta dagoanak eta zuok aurrera eroan gura dozuena, kokaleku bat dauka, ez bakarrik udalerrien erdigunetik urrun, ibaiaren beste aldean dagoalako, baita, auzokideek eta Usansoloko ordezkariak aldarrikatu daben moduan, segurtasun faltea



eragiten dau. Eta gure ustez, halako egitasmo baten, 360.000.000 eurotik gorako aurrekontua dauen eta Bizkaiko mobikortasunaren etorkizunerako hain garrantzitsua dan proiektu honetan, Usansolo lako udalerrri batek lotura duina merezi dau, eta, jakina, bat dator herritarren eta Kudeaketa Batzordearen eskaerakaz. Gaur, 4. lineari buruz esan genduan moduan, eta gaur barrero ikusten gabiltz 5. lineagaz, Bizkaiko Foru Aldundiak barrero huts egin dau trenbide-azpiegiturei jagokenez. Bere hutsuneetako bat dala uste dogu. Eta, hemendik, Alderdi Popularretik, azpiegitura duinak aldarrikatzera gatoz, kasu honetan 5. lineagaz, eta, kasu honetan, Usansoloko sarbideagaz.

Hori esanda, gaur Mendez jaunak Bilduren izenean ekarri deuskun mozinoak hauxe proponiduten dau:

Orain, alternatiben azterketaren aurkezpen publiko batera itzuli gaitazan. Uste dot une honetara helduta, inplikau guztiek ezagutzen dabezala horri buruzko aukera guztiak.

Horrez ganera, lau aukerak barrero aztertzeke eskatu dau. Nire ustez, Usansoloko herritarrak eta ordezkariak argiak izan dira, zeintzuk ez daben balio adieraztean.

Era berean, Usansoloko Gestoreagaz erakundeen arteko lankidetzarako esparru bat ezartea eskatu dabe. Badago jarraipen-batzorde bat, baina, barrero be kasualidadez, hauteskondeen atarian atera dabe gai hori, Euzko Alderdi Jeltzaleak azpiegituren arloan egin dauen moduan. Gure ustez, kontua ez da eragile edo erakunde barriak eratzea, arazo horrek konponbide bakarra dauka, Bizkaiko Foru Aldundiaren borondate politikoa, eta une honetan emoten dau ez dagoala. Ez nahastau Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Trenbide Sarearen eskumenen nahaste-borrastean, beti hori ateratzea gustetan jatzue. Badakizue zuen alderdiak, borondate politikoa egon ezkerro, egoera horri aurre egin leiola eta Usansolok aldarrikatzen dauen konponbidea emon leikela.

Nada más, muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

En el turno de réplica, tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señor Méndez Urigoitia.

El Sr. **MÉNDEZ URIGOITIA** jaunak: Gracias de nuevo, señora Presidenta.

En primer lugar, gracias al miembro de Elkarrekin Bizkaia, el único voto a favor que tenemos de momento, y es de agradecer. Intentaremos conseguir los de los otros grupos.

Zuek aurkeztutako zuzenketea, nik Usansoloko bizilagunei eta Gestorako kideei emon deutset. Eta, esaldi bitan laburbiltzeko, ia-ia zero konpromiso dagozala esan deuste, eta, batez be, kea saltzen dauela, eta itzuli luze samarra egiten dauela, konpromisorik ez hartzeko. Nik, gainera, gero azaldu deusiet, bilkura honen aurretik egin daben kontzentrazioan, adosteko asmo gitxi dagoala uste dodala, aurreko Osoko Bilkuran esan neban, honetan dinot, beharbada nekatu egingo naz legealdi osoan esaten, zuzenketa 48 ordu lehenago aurkezten bajakuz, eta konpromiso hutsa balitz lez, gero justifikau ahal izateko aurrez aurre zeozer dagoala eginda. Baina beno, printzipioz, izan daitele hori arazorik handiena. Ezezkoa ez dator gure taldetik, Usansoloko ordezkaringandi baino.



Señor Lerma Mentxaka, dice que no hay mucha diferencia, que prácticamente quitando que no hemos puesto a ETS y al Gobierno Vasco en la línea inicial, que están de acuerdo con todo lo demás. Creemos que hay una posibilidad, y si me equivoco, desde la Mesa me dirán que es para acordar el antecedente in voce. Nosotros estamos dispuestos a incluir a estos 2 agentes en la frase anterior, y si es así, acordamos en este momento, si votan a favor, pues todos contentos, porque esa ha sido su propuesta.

La de los Socialistas no sé qué ha sido, porque han dicho puntu bat adostuta dagoala eta hori eroango dala aurrera, eta zuk esan dozu lau dagozala eta gehiago izan daitekezala. Hau demokrazia garbia da, Usansoloko herriak beste 17 alternatiba proponidu ahal izango leukezala gura izan ezker. Ez gaitez an dredau, berba egin daigun mahai gainean dagoenari buruz, berba egin daigun horri buruz. Eta gure proposamena in voce onartu gura ez badozue, proposamen honen hasieran erakunde bi horreek sartuta, gitxienez Ganbera honetan alternatiben azterketeagaz egin zenduena egin daizuela eskatzen deusuet. Izan be, alternatiben azterketa hori hemen dago Euskal Herria Bilduk proponidu ebalako, eta ez zinielako horren alde egitera ausartu, baina gitxienez absteniduteko zintzotasuna izan zenden eta holan atera zan aurrera. Gaur gauza bera egin zeinkie, argi ez badaukazue, uste badozue alde ez dala oso handia, uste badozue akordio batera heldu geintkezala, zuen abstentzinoagaz, Usansoloko herriaren gehiengoak babesten dauen proposamen hau, aurrera egin ahal izatea ahalbidetuko zeunkiela uste dot, eta bestela gero esango deusue.

Azterketan lau aukera dagoz eta oso argi dagoz, nik ez dakit, beharbada Gómez-Guadalupe jaunak oso argi dauka zer erabagiko dauen Usansoloko herriak. Nik gura dodana da Usansoloko herriagaz erabagitea. Lau dagoz, horreetako bi lanzadereagaz, eurek esan dabe, eta idatziz itxi dabe, lanzadera bat ez dala konponbidea, eta beste bik ez daukie. Bakotxak kostu ekonomiko bat dauka, bakotxak errentagarritasun bat eta eraikuntza-denborak daukaz. EH Bilduk eskatzen dauena da eurek erabagi daiela, alkarregaz, Aldundiaren, ETSren, Eusko Jaurlaritzaren eta une honetan ordezkari politikoaren adierazle nagusia dan Gestoraren erakunde arteko foro kooperatibo eta kolaboratibo baten parte hartuta, eta uste dot hori Ganbera honek aho batez onartu leikela.

Ez dot uste ezelako arazorik dagoanik horretarako, argi itxi deuskuelako Jerónimo Moreno jaunak aitatu dauen alternatibea ez dala gustetan, ez dala gustetan, eta Usansolon ez dala onartuko. Eta hemen esan neban, honi konponbiderik emoten ez badeusagu, txarto amaituko da, edo ez dau ondo amaituko. Orduan, konponbidea lehenbailehen bilatzen ahaleginduko gara, eta geldiarazoteko eta atzeratzeko mamuak saihesten ahaleginduko gara, denporea dagoalako, barriro dinot, borondate politikoa behar da hau aurrera eroateko.

Proiektua behar dan moduan doa aurrera, Gestorea ez dago jarraipen-batzordean, Gómez-Guadalupe jauna, ez dago horren guztiaren jarraipen-batzordean. Informazioa beste bide batzuetatik lortu behar dabe. Barriro dinot, EH Bilduk eskatzen dauena da Usansoloko herriaren gehiengoaren borondatea errespetetea. Hori da gure proposamena, eta aldeko botoa emoteko edo, gitxienez, absteniduteko eskatuko deusegu.

Eta amaitzeko, hemen sozialisten esentzien maletatxoaz, hauteskunderiez, populismoaz eta bestelakoez berba egin danez, alegazio guztiei, jaun horreei eta neure buruari erantzun deusena Loli de Juan da. Uste dot haren telefono-zenbakia agendan daukazuela. Eskatzen deusuet, eta nik be aldi berean egingo dot, Osoko Bilkura interaktibo moduko bat egitea, Whappera joatea, Loli de Juan bilatzea, gaur jarriko dot kamara ikusi ez daiten, Loli de Juan andrea bilatu, eta haren Whapp egoeran klik egin daizuen.

Eta esaten dabe, “Azkar heldu gura baduzu, bakarrik ibili. Urrunera heldu gura baduzu, ibili beste batzuekaz”. Hori da EH Bilduk gura dauena, beste batzuekaz ibiltea urrutira heltzeko eta, ganera, ondo heltzeko. Zuek ikusi.



Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Méndez Urigoitia.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Jerónimo Moreno.

El Sr. **JERÓNIMO MORENO** jaunak: Buenos días de nuevo. Gracias señora Presidenta.

Gauza batzuk lainotuta daukadaz, lehenengo eta behin emoten dau ez garela inogaz alkartu, orain baietz emoten dau, nonogaz alkartu garela, are gehiago, badakigu nogaz batzartu garan be, eta izen-abizenak jarri deutsaguz, Loli de Juan, hain zuzen be, Eusko Jaurlaritzako Garraio zuzendaria. Hau da, batzarra egon da, herritarrakaz harremanak egon dira, bizilagunakaz harremanak egon dira. Hori sakondu egin behar dala? Bai, ados bagagoz. Badagoz aztertu diran soluzino batzuk, lau, ekarpen teknikoa eta euskarri ekonomikoa daukienak? Badagoz.

Beraz, guk, EH Bilduren proposamenari egiten geuntsan zuzenketan, horretarako eskatzen genduan Eusko Jaurlaritza eta ETS, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera, Usansoloko batzorde kudeatzaileagaz batzartu eitezala, ze emoten dau batzuk bakarrik gogoratu dirala Gestora hori existiduten dala. Ba ez, ebazpenean argi ipini dogu. Hain zuzen be, Euzko Abertzaleak taldea eta Talde Sozialista Usansoloko kudeaketa batzordeagaz batzartu dira egin dan azterlana azaltzeko, besteak beste, Ganbera honek eskatuta, eta ez Bilduk eskatuta, erabagia eta ebazpena Ganbera honek hartu ebalako. Izan be, ez neuke sakondu gura, Bilduk esaten deusku, edo neuk esaten dodana edo bapez. Ba ez, edo geldiarazo egingo dogu, ze hori da, antza danez, asmoa. Zuek planteetan dozuen erabagia eta konponbidea da, edo ez dago konponbiderik. Ba bai, badago, teknikoki eta ekonomikoki jasangarria, eta guk idatziz esan dogu.

Beraz, erabagi horreek ekarpen ekonomiko asko dakarre, konpromiso handia, eta nik, gainera, bat nator erakundeak erabagi politikoak hartzeko dagozala, baina erakundeak eta alderdiak ezin dira erabagi teknikoetatik eta aukera ekonomikoetatik kanpo egon, eta horrek esan gura dau erabagi horreek gauzatu egiten dirala. Izan be, egia da danok gura izango geuneela, gure etxearen ondoan Metroko geltokia, baina hori ez da posible, baliabideak mugatuak diralako, baliabideak ez diralako txikleak lez, eta, beraz, horregaitik autortu dau Alderdi Popularreko jaunak, urteak daroaguzala. Holako gauzak karuak dira, baliabide asko daroetz, denpora asko behar dabe egiteko.

Eta zuk dinozun moduan, “4. linea eta 5. linea ez dira errealidade bat”, tira, errealidade bat izango dira, seguru. Nik Usansoloko herritarrei ziurtatzen deutset 5. linea errealidade bat izango dala, hor dagoalako konpromiso politikoa, baliabide ekonomikoak jarrita dagozalako, bide batez, zergak jatsi barik, ze batzuek oso ondo egiten dabean hori, zergak jatsi, baina gizarte-prestazioak igotea, besteak beste trenbidearenak, ezinezkoa da. Beno, holan jazoten da gero ekonomia ministro batzuk kartzelan amaitzen dabela, ze, jakina, bi eta bi 4 dira, ezin dira 5 izan eta ezin dira 3 izan.

Eta, beraz, uste dot planteau deutsuegun zuzenketak oso-osorik jasoten dauela herritarren euren erabagia, eta prozesua ez geldiarazoteko erabagiagaz jarraitzen dauela, izan be, denpora asko daroagu, eta azkenean 5 minuturo ezin dogu erabagi barririk hartu.



Ez neuke nahastau gura. Alkarregaz ibiltea aitatu dozu. Amaitzeko nik beste gauza bat esango deusut: ibili, ibili, ez egon geldi, ze zuk gelditutea proposatu dozu, eta, guk, Sozialistok, Abertzaleen taldeagaz, proposatzen doguna da geldi ez egotea, 5. linea errealidade bihurtzea ahalik arinen. Eta horretarako alkarrizketa gehiago egin behar badira, herritarren erabagia behar bada, edo auzotarren erabagietan oinarrituta, eurakaz adostuta, egin. Baina egingo ez doguna da bidean gelditu.

Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Jerónimo Moreno.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Lerma Mentxaka.

El Sr. **LERMA MENTXAKA** jaunak: Gracias de nuevo.

Hitzaldi batzuk. Lehenengo eta behin, nik ez daukat ezelango arazorik egin behar diran bilerak barriro egiteko eskatzeko, eta gaiari barriro heltzeko. Ez dot ondo ulertu Podemoseko ordezkariaren berbaldia. Hain zuzen be, planteetan gabilzana da egin beharreko bilerak egin daitezala eskatzea, eta Usansoloko herritarrek eta euren ordezkariak egin leikiezan ideiak eta planteamenduak aintzat hartu daitezala. Era berean, ez nau asko harritu Alderdi Popularreko ordezkariak, Gómez-Guadalupe jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiari buruz egin dituan aitamenetan egin dauen esku-hartzeak, orain dala hilabete be holan jazo zalako, 4. lineari buruzko eztabaidak zirala eta. Eta ez dakit, badirudi ordezkari bat baino gehiago dagoala areto honetan nire alderdiko kideren bat aurkitu nahian errua botetako.

Baina juridikoki eta zuzenbideari jagokonez, argi dago trenbide garraioaren arloko eskumena Eusko Jaurlaritzarena dala, ez Foru Aldundiarena, eta ez dakit zergaitik dabilza nahastu guran. Badaukat idea bat zergaitik saiatzen zarien hainbeste nahasten, arlo horretan Aldundia behin eta barriro aitatur. Ez gaizuez endredau, eta ez endredau Aldundia, ez jagokolako zuzenean, eskumenen ikuspegitik. Eta, gure eretziz, orain arte egindakoaren erantzukizuna Foru Aldundiari leporatu gura izatea, hori kea saltzea da, eta ez jaku zuzena iruditzen.

Euskal Herria Bilduko ordezkariari, Raúl Méndez batzarkideari, denpora gitxi iruditzen bajako eurak aurkeztutako mozinoaren zuzenketa erregistrau zan egunetik emon dana, pentsau zenbat denpora emoten deustazun niri orain zugaz aldaketa bat, transakzional bat adosteko in voce. Transakzionala zuok planteau zeinkien, ze, itxura guztien arabera, denporea euki dozu Usansoloko ordezkariakaz konsultetako, ez dot gogoratzen nogaz esan dozun.

Gure planteamentua lehen esan doguna da, barriro be berbiztea, Eusko Jaurlaritzaren inplikazioagaz, Usansoloko ordezkariakaz egin beharreko bilerak barriro egitea, eta hortik sortu daitekezan ideiei erantzutea. Izan be, barriro dinot, nik ez dot interpretetan alternatiba posible bakarrak, zehatz-mehatz, aztertu diran lau alternatibak diranik. Bileretatik eta alkarrekintzatik, ziur asko, horreek hobetzera heldu daitekezan ideak sortuko dira.

Eta beste idea bat be planteau gura neban. Izan be, egia da, mozinoaren eta zuzenketaren arteko desbardintasun nagusiaz aparte, alde handia dagozala nori eskatzen gabilzan, horretan ez dago ezelako zalantzarik. Baina beste kontu bat be badago, garrantzitsua, eta beste alde bat be badago. Nire ustez, zalantzarik barik, erabagiko dan azken urtenbideak teknikoki posible izan behar dau. Hori holan da definizinoz; izan be, teknikoki ezinezkoa bada, ezingo litzateke ejekutau. Eta hori, adibidez, zuen mozinoak ez dauka jasota, eta gure aldetik



planteetan gabilzan zuzenketak holan jasoten dau, behar ez danari eskatzen zabiziela zuzentzeaz aparte.

Beste kontu bat be badago. Ez dakit, nik ez daukat kristalezko bolarik, nik ez dakit bilera horreetatik sortu daitekezan proposamenak, eztabaidak eta ideak, zeintzuk izango diran eta, ados jarrita, holan adostu daitekezan. Ez dodana ulertzen da zergaitik uste dauen Euskal Herria Bilduk ezarri leitekeen edo bilera horreetatik sortu daitekezan konponbideak ez dauela ondorio gisa Usansoloko ordezkariak azkordio bat lortzea, ze hori ondorioztatzen dala dirudi. Lan egin behar da, baltartu egin behar da, barriro egon behar da, eta aukera posible guztiak aztertu behar dira, oinarrituz, edo egindako azterlanen parte diran lehen lau aukera horreetatik abiatuta. Foru Aldundia horretan arduradun moduan sartzea guzurrak esatea da, herritarrak nahastetea da, berak ez dau teknikoki oneretxia emongo eta azken konponbidea zein dan definiduko, eta, jakina, ez da bide zuzena.

Benetan uste dot batzarrak egingo dirala, beharbada orain arte aztertu diranak baino alternatiba hobek sortuko dirala, eta arazoa, benetan, herritarren eta Usansoloko ordezkarien oneretxiagaz konponduko dala, eta, tira, uste dot alde horreetatik lanean hasi behar dala.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Lerma Mentxaka.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **MORENO VAQUERO** jaunak: Muchas gracias.

Alde guztiei entzun ondoren, argi dago orain arte aukeratutako erabakiak ez dirala herritarren gustukoak izan, ez behintzat Basauri, Galdakao eta Usansolorenak. Hori errealitatea da, ikusi gura ez badogu be.

Sarbide-aldaketak, tunelak zabaltzea, inklinazinoak, ibilpideak, lanzaderak eta, batez be, gaitzuzkoak darabilguz, alde aurreko plangintzarik ez dagoalako eta benetan entzuteko prozesurik ez dagoalako. Gaur egun aurreikusitako konponbideek ez daukie udal-plataformen bermerik, erabakiak hartzetik kanpo itxi diralako eta, okerragoa dana, kasu batzuetan garraio pribadua ezabatzea be ez dalako posible izango. Usansolo herriak ez dau ezer irabazten aukera barriagaz. Gaur egun, Euskotrenen geltoki bat dauka, etorkizuneko sarrera baino askoz be erdirago eta irisgarriagoa, eta metroaren eraikuntza amaitutakoan kendu egingo da. Hori da garrantzitsua.

Zuzenketei jagokenez, eta zentretarren. Barriro be, PSOEek eta EAJk osotutako blokeak osoko zuzenketa aurkeztu dau, Usansoloko kudeaketa batzordeagaz alartzeko eskatuz, 5. linearen diseinua azaltzeko eta, era berean, herritarren eskaerak aztertzeko. Esango deustazue, mesedez, zein dan hasierako proposamenagaz desbardintasuna? Zein da desbardintasuna, eskumenen gaia, dagoeneko existiduten diran gauzak? Atzo Natura Ingurunearen eta Nekazaritzaren Batzordean jazo zanaren antzeko egoeraren aurrean gagoz? Badirudi garrantzitsuagoa dala nork irabazten dauen, arazoaren konponbidea bera baino.

Begira, gure botoa aldekoa izango da, esan dogun moduan, hasierako proposamenari jagokenez, Usansoloko jentearantz onuragarria iruditzen jakulako. Baina bardin onartuko geunke, Lekerikabeaskoa jauna, barre egiten ikusten zaitut eta, era berean,



osoko zuzenketea onartuko geunke, hain zuzen be, argumentazino horren beraren arabera. Arazoa da Usansoloko jenteak ez dauela onartzen, eta entzutea bada kontua, ba hori, kea saltzea deitzen deutso Lerma Mentxaka jaunak.

Amaitzeko, azpimarratu gura neuke alderdi politiko batzuek proiektuak gauzatzeko daben inprobisazino-gaitasuna, eta horrek arazo gehiago sortzen dauz konponbideak baino. Urteotan denpora euki dozue urtenbide teknikoak eta finantziazinoa bilatzeko, baina badirudi borondate politiko faltak eta oportunitateak ekidaderik bako proiektu baterantz eroan zaituela, eta ez dala gehiengoaren gustukoa.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

Y para finalizar el debate, tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Gracias señora Presidenta. Egun on danoi barriro.

Nire lehenengo agerraldian esan dodanez, Batzarkide-Talde honentzat, Talde Popularrarentzat, 5. linea funtsezkoa da, eta, horregaitik, sinesten dogu, beti sinistu izan dogula eta apustu egiten jarraitzen dogu, 5. lineak konexinorik onenak izan daizan, pasetan diran udalerrietatik herritarrei irisgarritasuna errazteko. Eta kasu honetan, gure ustez, Usansoloren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiak azken iragarpen horreek egin ostean begi bistan geratu dana da borondate politiko falta handia dagoala, eta Usansologazko konpromiso faltea, baina, batez be, mobikortasun-azpiegitura baten etorkizunagaz. Orain egoera birplanteatzeko unea da, bizilagunen gustuari, Usansoloko ordezkarien gustuari urtenbidea emoteko unea, eta onena da orain egitea, eta ez sartzea etorkizunean ondorio onik izango ez leuken arazo baten.

Baina, esan deusuedan moduan, uste dogu gakoa Bizkaiko Foru Aldundiaren borondate politikoa dala, orain arte egon ez dana. Orain, Bilduko ordezkariak azaldu deuskunez, foroan mota guztietako eragileak sartuko dira, NBE falta jako, Mendez jauna. Gure ustez, ez da bape beharrezkoa, garrantzitsuena, esan dodan moduan, borondate politikoa da, eta ez da beharrezkoa hutsetik hastea eta lau alternatiben jente-aurreko azalpena egitea. Argi dago zein alternatiba diran baliagarriak bizilagunentzat eta Usansoloko ordezkariarentzat eta zein ez.

Jarraipen-batzorde bat dagoala esan deusuet, baina jarraipen-batzorde horretan, esan dodan moduan, herritarren gustuko konponbidea emoteko borondatea badago eta herritarren beharrei erantzuten jake, ezin hobeto hartu lekie konponbidea, esan deusuegun moduan.

Lerma jaunari jagokonez, barriro be esan dau, ez nahastau, ez gaizuez endredau. Hau da, orain gura dozu Metroaren lineei, mobikortasun-azpiegiturei jagokonez Ganbera honetan ez berba egitea. Hau da, zuk esaten dozu zuek ez daukazuela zerikusirik mobikortasun-azpiegiturakaz. Egia da Eusko Jaurlaritzak trenbidearen eskumena daukala, egia da ETS lako eragile bat dagoala, proiektu horreen buru dana, baina ez gaitez an engainau, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza dira gure lurraldeko mobikortasun-azpiegitura guztiak finantzatzen, erabagiten eta martxan jarten dituenak, beti izan da holan. Izan be, interesetan jatzuenean, holan erabilten dozue. Orduan, mesedez, eskatzen deusut seriotasun



apur bat gehiago izan daizun alde horretatik, ze gaur zuri balio ez deusunka, iragarki handiak egin behar diranean, zure alderdiari balio deus, bai horixe.

Eta, jakina, hemendik egingo ez doguna, nire batzarkide-taldearen izenean nabil, Bizkaiko mobikortasun-azpiegituri buruzko eretxia emon barik geratzea da, jakina. Esan deusuedan moduan, ezin dana da, hainbeste urteren ostean, 5. lineari jagokonez, holan egotea, egoera horretan egotea, eta uste dogu hemen beharrezkoa dala burokrazia gitxiago eta herritarren beharrei erantzuteko borondate eta anbizino gehiago izatea. Garaiz zagozie, Bizkaiko Foru Aldundiko jaun-andreok, eta Usansolori urtenbide egokia emoteko unea orain dala uste dogu.

Era berean, ez dot ahaztu Jerónimo jaunak esandakoa, proponiduten dogun eredu fiskalagaz etorkizunean garraio publikoko sareak galarazotea leporatuta. Jerónimo jauna, jakina, eta hori probauta dago, posible dala zergak jaistea, posible dala zerga-jatsiera horreekaz enpresa gehiago erakartea, enplegu gehiago sortzea, eta guk defendiduten dogun ereduagaz posible da diru gehiago batzea, eta diru-bilketa horregaz zerbitzu publiko hobeak euki ahal izatea, eta, jakina, mobikortasun-azpiegitura hobeak, guretzat funtsezkoak diranak.

Besterik ez, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

Terminado el debate, sometemos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Votos emitidos 49. A favor 16. En contra 31. 2 abstenciones. Por tanto no se aprueba la moción.

Pasamos al punto 4 del orden del día.

La Sra. **SECRETARIA / IDAZKARI** andreak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000636](#))

Autor: De Madariaga Martin, Eneritz (GM/TB-EB)

Asunto: Mejoras a introducir en las políticas públicas para reducir el peso del cuidado familiar respecto al institucional o de responsabilidad pública

Documento Principal:

([R.E.12/E/2024/0000636](#))

Expediente: ([12/B/20/0000932](#))

4.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000636SE](#))

Egilea: De Madariaga Martin, Eneritz (GM/TB-EB)

Gaia: Politika publikoak hobetu eta zaintzen pisua erakundeetan edo erantzukizun publikoan jartea, familia-zaintzarena murrizteko

Dokumentu Nagusia: ([12/E/2024/0000636SE](#))

Espedientea: ([12/B/20/0000932](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es turno de la juntera que ha presentado la iniciativa. Tiene la palabra la portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.



La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Mozino deribadu honen sarrera moduan, gogoratu gura dot joan dan Kontroleko Osoko Bilkuran itaun bat ekarri genduala Ganbera honetara, Foru Aldundiak planteetan dituan neurriak eta egutegia ezagutzeko, familia-zaintzak erakundeen edo erantzukizun publikoaren aldean dauen pisua murrizteko. Helburu hori Zaintzen aldeko Euskal Itunean eta Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoan jasoten da, eta gaur egungo zaintza-sistemeak eskatzen dauen desfeminizazioa dakar, behar-beharrezkoa dana.

Gai horren aurrean, foru-diputaduaren erantzuna izan zan eragindako personei galdetu jakenean zer uste eben lehentasunezkoa izan behar zala administrazio publikoentzat, menpekotasun-egoeran dagozan personen beharrezkoen jagokenez, %46k etxez etxeko laguntza-zerbitzu gehiago garatzearen alde egiten ebala esan euskun, %33k adierazo ebala etxebizitza mendetasun-egoeran dagozan personen egoeretara egokitu behar zala eta %32k mendetasun-egoeran dagozan personak jagoten ditueni laguntzearen garrantzia azpimarratu ebala. Eta, era berean, aurreratu eban Aldundiak familia-zaintzaren pisu hori murrizteko emon dauen erantzuna, erakundeen edo erantzukizun publikoaren ganekoa, iraupen luzeko zaintzen trantsizionarako Foru Planaren bitartez emoten dabilela (2021ean jarri zan martxan), bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gainerako zerbitzuen eta prestazioen bidez be. Gainera, foru diputaduaren beraren berbetan, komatxoak zabaldu, "Ondo funtzionetan dau, eta ondo funtzionetan dau, baina hobea izatea gura dogu, eta holan hobeto lagundu. Horrek esan gura dau daborduko funtzionetan dauena apur bat gehiago hobetu behar dala.

Gure taldea ez dator guztiz bat baieztapen horregaz. Uste dogu alderdi batzuek funtzionetan dabela, eta beste batzuk nabarmen hobetu daitezkeza. Gure ustez, Gizarte Zerbitzuen lehenengo Plan Estrategikoaren eta bigarren Planaren ebaluaziotik, Bizkaiko Aldundia orain arte zabaltzen dabilen politika eta neurrietan aintzat hartzen ez diran ondorio eta agindu batzuk ataraten dira, eta, beraz, beharrezkoa da aldaketa batzuk sartzea.

Eta, alde horretatik, hor planteetan dogu ondoriozko mozinoa. Era berean, esan behar dot mozino eratorri hori bertan behera geratu dala, akordioa lortu dogulako Alderdi Jeltzaleagaz eta Alderdi Sozialisteagaz. Gainera, eskerrak emon gura deusadaz Urquieta Zuzaeta andreari alkarrizketarako edegiteagaitik, baita Antxustegi Ziarda andreari be, eta azaldu egingo dot zein dan transakzio-akordio horren edukia.

Hasieran, guk eskatzen genduan, alde batetik, aurretiazko dokumentu bat egitea, garatu beharreko jarduketan eta prestazioen proposamenagaz, familia-zaintzak erakunde-zaintzaren aldean dauen pisua murrizteko; edo erantzukizun publikokoa, dokumentu horretan proposamen eta proiektu zehatzak sartuta, hain zuzen be, etxeko zaintzarako laguntzak eskaintzera bideratuta dagozan zerbitzu eta prestazio mota desbardinatarako, Gizarte Prestazioen eta Zerbitzuen Karteran sartuta egongo direnak edo ez. Eta Aldundiari eskatzen geuntsan dokumentu hori eztabaidatu eta Gizarte Ekintzako Batzordean bertan jaso eiala, azterketa-batzorde baten bidez edo lantalde baten bidez. Baina tira, Batzordearen barruan eztabaidea gizarte-eragileei eta adituei be zabaltzeko aukerea emoten deuskun edozein figurak balio dau, lan hori ekarpenen dokumentu batez amaitzeko, ondorioen dokumentu batez.

Nire ustez, hori ondo jasoten da lotu dogun erdibideko zuzenketan. Gainera, uste dot esparrua zabaldu egiten dala, uste dot partekatzen dogun esparrua dala, eta egin genduan interpellazioan partekatzen genduala. Era berean, ados nago iraupen luzeko zaintzen lehenengo trantsizino-planari buruzko ebaluazioa egiteko egiten dan ekarpenagaz. Eta uste dot, neurri baten, hasierako proposamenaren literaltasuna, gitxienez, proposamenaren barruan islatzen dala, eta, beraz, uste dot akordio ona dala eta eskatzen genduanaren ildoan dagoala.



Elkarrekin Podemosetik ziur gagoz, benetan sendoa izango dan eta gaurko beharrei eta etorkizuneko beharrei erantzungo deutesen zaintza-sistema bat eregi gura badogu, beharrezkoa dala hobekuntzak sartzea, daborduko detektatuta dagozanetatik hasita. Eta egin dan hasierako detekzino bat dago, familia-inguruneko zainketen prestazino ekonomikoa barriro planteetako behararen planteamentu partekatu bat dago. Era berean, planteamentu partekatu bat dago laguntzaile personalaren prestazino ekonomikoa birplanteatzeko premian. Zerbitzuari lotutako prestazino ekonomikoaren birplanteamendua egiteko premia partekatua be badago. Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren estaldura eta arreta zalantzan jarri dira. Hori guztia ez da gure uzta. Ondorio gisa, Gizarte Zerbitzuen lehenengo Plan Estrategikoaren ebaluazinoan jasota dago, eta, hain zuzen be, Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoaren idazketan be agirian geratu da gai horreek garatzeke dagozala.

Nire ustez, gai horreek hausnartu egin behar dira, dokumentu bi horreek emoten dituen datuakaz batera: Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoan zerbitzu eta prestazino jakin batzuetarako plazak beteteko egiten diran aurreikuspenak ez datozela bat, hain zuzen be, helburu horreekaz, egin dan lehenengo aurreikuspen horregaz; eta, ganera, hausnarketa horreek gizarte-eragileakaz eta zainzaileakaz eta etxean zaintzak jasoten dituen menpeko personakaz be partekatzen dirala.

Nire ustez, une ona da, gainera, hori egin ahal izateko, hau da hausnartzeko unea: hobekuntzak sartu ahal izatea, alde batetik, gizarte-adostasun argia eta politikoa dagoalako zainketa-eredua hobetzeko premian, eta, bestetik, orain dabilzalako lanean mapetan, Prestazinoen eta Gizarte Zerbitzuen Zorroan. Eta uste dot horrek guztiak, gainera, eta halan espero dot eta gura dot, Gizarte Zerbitzuen Lege barri bat ekarriko dauela, egokituta egongo dana eta bizi dogun garaiaren mailara, apur bat zaharkituta geratu dalako doguzan premiei jagokenez. Baina hori egingo da. Oso ondo. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señora De Madariaga Martín.

A continuación tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora Presidenta, señoras y señores, buenos días.

Euskadin 10 edo 15 urte daukaguz aurretik iraupen luzeko zaintza-premiak eten barik eta gero eta gehiago hazteko, eta jakitun gara gerora murriztu egin beharko dogula. Datuen arabera, 2030. urte inguruan 110.000 persona gitxiago egongo dira lan egiteko adinean, eta 65 urtetik gorako 150.000 persona gehiago. Hori 2050. urterako aldatu egingo dala uste da, baina erronka horri egin behar deusagu aurre.

Gure gizartean oso barria eta inperfektua da politika publikoek balorautako eta araututako jardueren munduan zainketak sartzea. Izan be, ez dago zainketen sektore-esparru edo -adarrik, beste ondasun, jarduera, produktu edo zerbitzu askoren kasuan dagoan lez. Zalantzarik barik, zaintzak oso funtsezkoak, oinarrizkoak eta ezinbestekoak dira bizitzarako, eta ondo horniduta egotea edo ez eukitea, kalidade ona edo txarra, berez eta beren baitan izan daikien balioaz edo garrantziaz gan, eragin kolateralak daukie, zuzenean, gizakiak dituan beharren beste arlo kritiko batzuetan. Beraz, zainketak oso erabagarriak eta estrategikoak dira personen bizitzarako eta bizi-kalidaderako.

Halan be, nabarmendu behar dogu nagusitasun eta hegemonia patriarkalaren intensidade luze eta tematiak bakarrik azaldu leikela, eta ez dauela justifiketan,



gure gizartean zainketen ikusiezintasun paradoxikoa eta itxurazko hutsaltasuna. Zaintza oso ondasun konplejua da. Batez be familia-harremanen barruan egin izan da, eta, hain zuzen be, harreman horreek teknologia edo harreman profesinonalakaz ordezkutzen edo osotzen saiatzen garenean, orduan konturatu gara kontuan hartu beharreko elementu, osogai, faktore edo dimentsino ugariz eta askotarikoez.

Hain zuzen be, osogaien aniztasun horregaitik, zaintza modulagarria da, hau da, zatika emon daiteke. Holan, persona bat arduratu daiteke beste bati eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletan laguntzeaz, eta beste bat, barriz, oinarrizkoetan laguntzeaz, txukuntzeaz eta jateaz kasurako. Halan be, modulartasun mugatu edo baldintzatua da, zati horreetan beharrezkoa dan batasuna, integrazinoa eta hierarkia kontuan hartuta. Horregaitik, arreta integradua aitutzen da, baita integrala be, zainketen ezinbesteko ezaugarri gisa. Ondasun baten ikugarritasun handiagoak edo txikerragoak eskatzen dau, halaber, kontuan hartzea zelán ebaluau behar dogun ondasun horren hornidura edo errealizazioa, eta, horregaitik, baliabide horreek definiduteko eta apliketako orduan, ona da hibetzea eta metrikak izatea, horreek baloretako eta hobetzeko.

Beste ezaugarri bat da zainketek presentzialtasun handia eskatzen dabela, bai espazioan, bai aldiberekotasun handian. Hau da, beste produktu eta zerbitzu askok ez lez, zainketa gehienak ekoizten diran une eta leku berean kontsumiduten dira. Zainketak oso interaktiboak diranez, zaintza-sare edo -ekosistema bateko nodo edo elementuetako bati edo besteari eragiten deutson edozein asaldurak gainerakoei eragiten deutse, bereziki zaintzak jasoten dauzan personari edo pertsonai.

Beraz, zaintza aniztasun edo heterogeneotasun handiko ondasuna da. Zaintza-profil oso desbardinak dagoz, eta, azken baten, persona bakoitxak zaintza partikularreko pakete eta dinamika desbardina behar dau, gainerako personena ez lakoa. Izan be, zaintzak emotean, jasoten dauen personari inporta jako, eta asko eragiten deutso nork emoten deutzazan, bai eta zaintzen dauen personagaz dauen harreman mota be. Horregaitik dinogu zaintza zerbitzu, jarduera, produktu bat dala, edo, bestela esanda, harreman handikoa, hau da, personen arteko konexinoetan eta konexinoetatik jazoten dala. Zerbitzu hori emoten dan egituren, azpiegitura fisikoen, harreman-egituren eta balio-sistemen ingurunearen menpe dago. Horregaitik, esan behar da personek jasoten daben zuzeneko arreta hobetzea bezain beharrezkoa dala beren bizileku-, harreman- eta moral-testuinguruak aldatzea.

Iraunkortasun sozialak populazinoen kohesinoa eta egonkortasuna eta hareen bizi-garapena indartzea dau helburu. Ingurumenagaz eta ekonomiagaz batera, gizarteremua funtsezkoa da babesik bako komunitadeen inklusinoa eta aukerak hobetzeko. Personek eta enpresek oso gogoan izan behar dabe azken hori.

Halaber, kontuan izan behar dogu eskalagarritasuna, hau da, erraztasuna, azkartasuna, intensidadea eta erabilgarritasuna, eta alderdientzako errentagarritasuna, zerbitzu edo jarduera baten estaldura handitu geinkelako. Esan daikegu zaintza-jarduerek edo -zerbitzuek eskalagarritasun txikerra, gatxa edo mugatua daukiela, bai behintzat gaur egun teknologia digitalak (bereziki digitalak) txertatzen doazenean.

Sozialistok pozik gagoz zainketen aldeko Euskal Akordioan aurrera egin dalako. Akordio horren bidez, Autonomia Erkidegoko erakunde nagusiek, Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek, 14 konpromiso dituan dokumentu bat sinatu dabe, gure zainketa-sistemea hobetzeko. Horregaz, eredu inklusiboagoa, ekitatiboagoa, jasangarriagoa eta homogeneoagoa lortu gura da, eta horreek dira laster landu beharko diran helburuak. Zuzeneko zein zeharkako zaintza-sistemak hobetzeko akordio integral bat, zenbait konpromiso finkatzen dauzana, ondoren jarduera-ildoetan zehazteko.



Hori dala eta, pozik gagoz Elkarrekin Bizkaiagaz eta Euzko Abertzaleak taldeagaz akordioa lortu dogulako. Ekimena proponidu dauenak azaldu dauenez, nik nire berbaldian errepikatutzat jotzen dot. Besterik barik, uste dot akordio ona dala, guztiok daukagun kezkaeren ildotik doana, eta puntu garrantzitsua izan daiteke, gizarte-zerbitzu integral horren garapena, guk, sozialistok, danontzat onuragarria izan daitekela esaten dogun Gizakidetza hori.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Otermin Eraso.

A continuación tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor López de la Fuente.

El Sr. **LÓPEZ DE LA FUENTE** jaunak: Gracias señora Presidenta. Señoras y señores diputados, buenos días.

Debatimos una moción derivada de la interpelación presentada por el grupo juntero Elkarrekin Bizkaia sobre las mejoras a realizar en las políticas públicas para reducir la importancia del cuidado familiar con respecto a las instituciones, o la responsabilidad pública.

Mozinoaren justifikazioa, Antxustegui andreak, Gizarte Ekintzako diputatu andreak, martiaren 20an, Kontroleko Osokoan, emondako erantzunetik abietan da, eta Gizarte Zerbitzuen lehenengo Plan Estrategikoaren balorazioak jasoten dituan ondorio eta gomendioetan eta Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoak eta Zaintzen aldeko Euskal Itunak jasoten daben egoerearen, helburuen, ekintzen eta proiektuen diagnostikoan oinarrituta dago.

jatsi gara. Eta azkenengo datuen arabera, Euskadi hazten doan arren, pisu erlatiboa galtzen doa, autonomia-erkidegoak baino gitxiago hazten dalako. Ildo horretan, 2022an, Euskadi bederatzigarren autonomia erkidegoa izan zan hazkundean, eta estaduko batez bestekoaren azpitik egon zan. Eta datu horreek, objektiboak diranak, ezin dira ulertu azken hamarkadetako industriako BPGren beherakadarik barik, sektorea BPGren %44 izatetik 80ko hamarkadaren erdikaldeko industriaren mobimentutik %22 ingurura igaro da.

Eta, zentzu horretan, eta azkenengo datuak ikusita, industria da gure ekonomiaren dezelerazinoa gehien igarten dauen sektorea. Halan adierazoten dabe txosten barriek. Euskadin industria izan da beti gure ekonomiaren arlo estrategikoa, besteak beste gure lurraldean izan dauen lurralde-azarpen garrantzitsuagaitik. Eta baita industriak kalidadezko enpleoa ekarri dauelako eta gure ekonomiari balio erantsia emon deusolako be. Egia da krisiak, COVID-19agaitik jasandako egoerak, eragina izan ebala euskal industrian, baina ordurako geunkan egoera larriagotu baino ez eban egin. Industrian inbersino barriak egin behar dira, barrikuntzaren alde egin behar da, produkzio-ekipoak barriztau behar dira, bestela, jasaten ari garen gainbeheran jausi geintez. Eta datu batzuk kezkarriak dira, esan dodan moduan, Eustaten arabera, 2023ko abenduan egindako euskal esportazioen %66k maila teknologiko ertain-txikia edo txikia eukelako. Egoera horri heldu behar deusagu, industria-enpresak dira Bizkaiko ekonomiaren ardatza, eta efizientzian, produktibidadean eta nazinoarteko posizionamenduan oinarritutako etorkizuna behar dabe, eta, jakina, esparru eta ekonomia globalizatu baten konpetenteak izan behar dabe.

Bilduko jaun-andreak, ez gaitez an gainau. Gure ustez, zuen eredu ekonomikoa euskal ekonomiari gertatu leion okerrena da, zuen ereduak ez dauelako funtzionatzen, eta, jakina, industriak ez dau hori behar. Hauteskunde autonomiko honeetan, zuen programan, gitxienez 5.000 milioi euro gehiago proponidu dozuez zerga-igoeren eta zerga-tasa barrien artean biltzeko. Hori da zuen eredu. Eredu horrek ekimen pribatuari biztugarriak kentzen deutsoz, Bizkaia inbersinorako lurralde erakargarria izatetik urrun jartzen dau, enpresak galtzera daroa eta gure lurraldea enpresa-ekimenean leku izateari ixten deutso. Eta guk uste dogu egoera ekonomikoari, egoera industrialari, beste modu baten heldu behar jakola. Uste dogu lehentasunezkoa dala gure lurraldeari segurtasun juridikoko esparru egonkor bat emotea inbertidu gura dauenarentzat. Gure ustez, garrantzitsua da karga fiskala murriztuko dauen zerga-erreformari ekitea, bai enpresentzat, bai langileentzat, eta, era berean, zerga-tasen igoerea edo zerga-tasa barriak sortzea geldiarazotea. Eta hori egonkortasuna eta kanporako lurralde erakargarria bermatzeko.

Era berean, uste dogu beharrezkoa dala produkzio-ekipoetan inbersinoak sustatzea eta atzerriko inbersinoak etortea sustatuko dauen fiskalitatea izatea. Eta hori guztia industria-lurzoruaren hazkundearen eta sustapenaren esparruan. Baina gure lurraldearen etorkizunerako beharrezkotzat jotzen doguzan neurri horreez aparte, jakina, beharrezkoa da Ekonomia Sustatzeko sailek, kasu honetan Foru Aldundiarenak, inplikazioa eukitea industria-sarean, enpresa-sarean, zubiak eregitea, inbersinoak bultzatzea, eragileak hartu-emon aktiboak izatea, gure enpresa-sarean inbersinoak jaso ahal izatea, eta, jakina, zoritxarrez Mecaner eta Envase industriales enpresek jasaten dituen egoerak eragozte.

Uste dogu beharrezkoa dala erakundeek, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiak, egoera horreetarako inbertitzaileen eta finantziarioaren bilaketa aktiboa egitea. Baina, jakina, esan deusuedan moduan, ulertuko dozue gure eredu ekonomikoak ez daukala zerikusirik Bilduren eredu interbentzionistagaz, eta uste dogu Bilduren ereduak gure industria-sarearen lehiakortasuna kolokan jarten dauela. Eta, horregaitik, mozino hau ez dogu babestuko, sakoneko karga ideologiko handia daukalako eta funtzionetan ez dauen eredu defendiduten dauelako.

Eskerrik asko.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor. Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Zurro Tobajas.

El Sr. **ZURRO TOBAJAS** jaunak: Buenos días. Egun on danoi. Muchas gracias señora Presidenta.

Hasteko, esan gura neuke euskal sozialistok, gobernuetan parte hartuta, apustu argia egin dogula 4.0 industriaren alde, Euskadin errotuta. Enpresa txiker eta ertainei laguntza emon deutsegu, enpresa-azpiegiturak eta industria-lurzorua bultzatu doguz, lehentasunezko jarduera-eremuak lehenetsi doguz, zailtasunak daukiezan enpresei lagundu deutsegu, eta euskal enpresen nazinoartekotzea eta merkatu barriak bilatzea bultzatu dogu. Eta politika horrek ondorio positiboak izan dauz, azken urteotako erasoei beste lurralde batzuek baino hobeto eutsi deutsegulako.

Halan be, politika horreen hedapena gorabehera, egia da industriak atzerakada txiker bat jasan dauela ekonomian osotasunean hartuta. Egia da 2011tik 2021era arte industria sektoreak EAeko BPGri egindako ekarpena %1,7 jatsi zala, Eustaten arabera. Baina dana esan behar da, ez dalako Euskadi bakarrik izan. Egia da, halaber, jatsiera hori Alemaniako ekonomiak jasan dauenagaz alderatu daitekeela, aldi berean %1,5 galdu eban eta. Edozelan be, eta hori gogoratzea ona da, industria-sektoreak Euskadin daukan pisua 27en Europar Batasuneko batez bestekoa edo Frantziakoa baino handiagoa da oindino, adibide bi emotearren. Datu horreen arabera, Eustaten datuen arabera, 2021ean sektoreak EAeko aberastasunaren %23,4 sortu eban Alemanian, eta orduan %24koa zan, datu guztiak testuinguruan kokatzeko. Eta industriak, datu horreen arabera, ia %20ko ekarpena egiten deutso Euskadiko enpleo osoari, Europako batez bestekoa baino 4 puntu gehiago.

Baina, ba ete dago arazorik industriaren sektorean? Ba jakina, arazoak dagoz, edozein gizarte konplejutan lez, batez be Mendebaldean:

Batez bestekoaren azpitik gagoz gastuan, ikerketan eta garapenean. Autonomia-erkidego batzuk gure ganetik dagoz talentua erakarten eta lotzen.

Gero eta eragozpen handiagoak daukaguz gure enpresek behar dabezan profil profesinonalak aurkitzeko.

Arazo bat daukagu enpresa-ondorengotzagaz, adibidez, familia-enpresen %70 ez dira hirugarren belaunaldira heltzen. Eta hori arazo bat da euskal ekonomiaren bizkarrazurra familia-enpresa danean.

Edo gure enpresen tamainak txikiak izaten jarraitzen dau, eta hazi eta globalizau egin behar dira, edo finantza-nodo handien aldeko erabagi-guneen galerea dator.

Horixe da egoera. Eta ahulezia horreei adi egon behar dogu, baina ez da komenidu datu onak ahaztea, beti izango dalako errazagoa haztea, sektoreak, erakundeen laguntzinoagaz, datuek emoten dituen beste indargune horreei eusten badeutse. Casanova jaunak esan dauen moduan, EH Bilduren proposamen zehatzak, errespetu osoz, krisian dagozan enpresen egoereagaz zerikusia dauen alderdi oso zehatz eta oso espezifiko bati baino ez deutso heltzen. Krisi ekonomikoa daukien enpresok, beste baten berba egiteko, enpresa-sareari eragiten deutesien krisi guztiei buruzko hausnarketa sakonagoa egiteko aukerea eukiko dogu. Baina proposamen horri buruz, Ekain Rico nire kideak 2019an Euskal Sozialisten izenean adierazo ebana esango deusut, kasu horreetarako mekanismoak badagozala, eta lankidetzaz, eta lankidetzaz instituzinonalak funtzionetan dauela, nahiz eta batzuetan, orain aste gitxi hemen gogoratu ziran kasuetan kasurako, danok gura doguzan emoitzak ez lortu.



Orduan Arauz Besteko Proposamen moduan eztabaidatu zan hemen 2019an, azkenengo krisiak eta pandemiak eta geopolitikak mundu osoan eragin dituen aldaketa sakonak baino dezente lehenago. Proposamenak ia bardinak dira, 2019koak, PNN hori eta gaur aurkeztu dozuen mozinoa. Gaur prebentzinoaren, esku-hartzearen eta konponketaren hiru kontzeptuak baino ez dozuez gehitu. Hau da, urteak joan arren, hainbeste denpora igarota, proposamena bardina dala emoten dau, baina ez dakit hauteskunde-egoereagaitik dan edo, zure gairik gogokoenetako bat danez, hona industria-politikea eztabaidatzera ekarri gura ginduzuzala.

Une haretan, 2019an, jakinarazo geuntsuen beti dagoala leiho bat zabalik krisian dagozan enpresentzat, eta hartu-emon etenbakoa dagoala erakunde-maila desbardinaren artean, gobernetan dabenak gobernetan dabela. Danok esaten geuntsuen orduan, industria-sektore indartsu eta oparoari eusteko gagoz. Esan geuntsuen Bideratu moduko programak badagozala, krisian dagozan enpresak berregituratzen eta berbultzatzen laguntzeko. Era berean, oso gauza garrantzitsua esaten geuntsuen, euskal sozialistok ez gagozala jarduketak bikoizteko, erakundeen koordinazioaren alde gagozala konponbideak aurkitzeko.

Baina, ganera, 2019tik aurrera, hainbat lege onartu dira, eta garrantzi handia daukienak kasu honeetan: finantzen Euskal Institutuaren lege barria, Eusko Jaurlaritzaren finantza-tresna guztiak berrantolatzeke zuzenbide pribaduko erakunde publiko bat sortzea aurreikusten dauena, Finkatuz barne. Edo diru-laguntzen araubidea arautzen dauen Legea, besteak beste, deslokalizetan diran enpresei emondako laguntzak osorik itzultzea jasoten dauena. Edo enpleoari buruzko lege barria, enplegarritasuna eta kobragarritasuna hobetzeko programa osogarriak arautuz, enpleo-politika publikoen ezinbesteko zutabe bihurtzen dauena birkualifikazioa. Eta horrek garrantzi handia dauka krisian dagozan enpresa horreetako beharginei arreteta emoteko, lan-trantsiziorako laguntzea eskaintzea ezinbestekoa dala uste dogulako.

Sozialistok prebentzino-neurriak, esku-hartze goiztarrekoak eta kalteen konponketakoak hartzearen alde gagoz, zuen hizkerea erabilteagaitik, baina hori industria-politika integralagaz egiten da; industria-politika integralagaz eta erakunde guztien lankidetzegaz enpresei lagundu ahal jakelako krisiak modu eraginkorrangoan gaintitzen, enpleguak, langileak babestuz, enpresa-sarea babestuz eta garapen jasangarria sustauz.

Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Zurro Tobajas. Tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Arregi Osoro.

El Sr. **ARREGI OSORO** jaunak: Gracias, señora Presidenta. Buenos días, señora Diputada General, apoderados/as. Buenos días a todos/as.

El señor Casanova presenta una moción dirigida a esta Diputación Foral y al resto de instituciones públicas a fin de que elaboren un protocolo para las industrias en crisis. Coincidimos en que es labor de estas instituciones poner en marcha protocolos e iniciativas que dependen de procesos de mejora continua.

Pero hay una gran diferencia entre decir eso y presentar la moción que hoy debatimos. Señor Casanova: usted está pidiendo a la Diputación que haga algo que ya está haciendo, pero cambiando el nombre del protocolo. Como comprenderá, no podemos votar a favor de ello.



Mozino horren bidez, Aldundiari eta beste erakunde batzuei daborduko egiten daben zeozer egiteko eskatzen jake, baina beste izen bategaz, zalantzazko egokitzapen praktikoko burutazinen bat gehituta. Ulertuko dozu ezin dogula partekatu. Are gehiago, zure proposamena ikusita, pentsau geinke bere helburu nagusia Protokoloari izena aldatzea dala, orain arte ez dala ezer egin sinistuzoteko. Ez, Casanova jauna, bizitza ez da zuekaz hasten. Azkenengo 40 urteotan herrialde garatua eraiki dogu, lurralde barrizalea, talentuduna, erakargarria, konektatua eta orekatua. Jakina, hobetu geinke, hobetu egin behar dogu. Ez da autokonplazentzia, baina errealismo-ariketa batetik eta diagnostiko zehatz batetik abiatu behar da.

Zuen proposamena 3 hankatan oinarritzen da, eta lehenengoak Prebentzinoa dauka izenburua. Prebentzinoa da honezkero Ekonomia Sustatzeko Sailak garatzen dauzan jarduera guztien oinarritzko zutabea, eta, edonola be, badakizu zein dan prebentzinorik onena? Prebentzinoa industria-politika publikoa, aktiboa eta proaktiboa bultzatu eta garatzean datza, azken hamarkadetan Bizkaiko Foru Aldundiak eta EAJk gobernetan dauzan gainerako erakundeek egiten daben moduan. Europako herrialde askotan eta Europatik kanpo oso politika onartua, balioetsia eta kopiata. Prebentzinorik onena industria-enpresak eta zerbitzu aurreratuetako enpresa lehiakorak izatea da. Bizkaia enpresentzat lehiakorra izatea, enpresok sortu, garatu eta sendotzeko.

Eta zelan egiten da hori? Aldundiak enpresa-lehiakortasunari laguntzeko programa, zerbitzu eta ekimen ibilbide osoa dauka. Horreek guztiak industriako eta zerbitzu aurreratuetako enpresak indartzera bideratuta dagoz.

- Barrikuntza, nazinoartekotzea eta lankidetzat sustatuta.
- Digitalizazinoa eta iraunkortasuna lehenetsiz.

Hori guztia deskarbonizazinoan eta emisinoen murrizketan aurrera egiteko, horreek funtsezkoak diralako lehiakortasun globalerako.

Eta, jakina, Ekonomia Sustatzeko Sailak, kluster batzuekaz eta besteakaz lankidetzan, gure lurraldeko jarduera-sektore nagusien egoerari eta aurreikusitako bilakaerari buruzko informazino eguneratua dauka.

Horreek guztiak ezin deusku “berri” itxura emon. Bizkaia Denontzat 2023-2027 Agintaldi Planean dago, Batzordeko Diputatuak azaldu euskunez.

Prebentzino proaktiboa, Casanova jauna. Ahalik eta baldintza sozioekonomiko onenak sortzea, mantentzea eta bultzatzea, alde batetik, enpresak izan daiguzan, industrialak barne, kalidadeko lanpostuak sortu daiezan; eta, bestetik, Bizkaiko persona guztiok aukera onenak izan daiguzan eta inor ez daiten atzean geratu.

Voy a abordar ahora el segundo punto de su propuesta, que lleva el título de “Intervención”.

La señora diputada Basurko nos ha explicado en varias ocasiones la existencia de un protocolo para casos concretos de empresas en situación de crisis. Este protocolo es coherente con nuestro ámbito competencial y con el marco jurídico existente.

¿Por qué digo esto? Porque en su moción presenta ciertas ocurrencias indeterminadas. Puede que suenen bien al oído, pero, tal y como usted las plantea, no se corresponden con la realidad.



Aldundiari jagokonez, entzun ahal izan dogu zelan egiten dauen lan eta zer alkarrizketa egiten dan alderdi desbardinakaz. (Bide batez, alderdiek gura izan behar dabe alkarrizketa). Protokoloak Bizkaiko Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dauzan baliabideak be jasoten dauz.

Enpresa bat krisian sartzeraren egoerak desbardinak dira kasu batetik bestera, eta, beraz, kasu bakotxean planteamentu desbardinak eskatzen dabez, beti Aldundiak diseinatutako protokoloaren esparruan. Eta kasu bakotxerako erabili daitekezan tresnak aztertzen dira, bat bera be baztertu barik, jarduerari eta ahalik eta lanpostu gehienei modu jasangarrian eutsi ahal izateko.

Azkenik, eta zuen mozinoaren hirugarren ideatzat, proposamenean “Konponketa” deitzen dozuena daukagu. Mozinoak berak autortzen dauen moduan, kasu batzuetan ezin da saihestu jarduera etetea. Eta ez protokoloak huts egin dauelako, ezta? Kasu horreetarako, eta hori honezkero badakizue, lanpostua galdu daben personak birkualifikatzeko programak dagoz martxan. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren programak.

Izan be, zure proposamenaren idazkera antz handia dauka Lanbideren Aukeraberri programak jasotako helburuagaz.

Hor dagoz Laguntza Programak, hiru “beak”: Birbideratzea/Birkualifikatzea/Birkokatzea, PEAC, etab.

Gainera, gure lurraldeko industria-sektoreko enpresen gaur egungo langile-preminaren ondorioz, hainbat erakunde eta enpresa-elkartek be lan egin dabe persona horreek profil horreek behar dituen enpresetan sartzea errazteko. Prebentzinoa, esku-hartzea eta konponketa, deitu gura dozun lez, baina egon dagozan eta martxan dagozan ekintzak eta programak dira.

Azaldutakoak azalduta, ez gatoz bat mozinoagaz eta kontrako botoa emongo dogu.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Arregi Osoro. Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra el portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señor Casanova Alonso.

El Sr. **CASANOVA ALONSO** jaunak: Buenos días de nuevo. En primer lugar agradecer al señor Vaquero por su respaldo. Poco más puede decir, porque en general coincidimos. Muchas gracias.

PPko ordezkariari be eskerrak emoten deusudaz azalpen argiagaitik. Ez dago sakoneko akordio handirik, baina zuk eskumako politika ekonomiko ortodoxoa, liberala eta zaharkitua zer dan azaldu dozu, eta Pradales jauna atzo telebistan entzuten nengoala iruditu jat. Zuk diskurtsoa egin dozu - zu portau zara, ez dozu bolibartarrarena esan, ez deutsezu aurrezki-kutxei tresna bolibartarrak deitu - baina, tira, gitxi gorabehera hortik egon zara. Jakina, alde handiak dagoz. Zuek uste dozue herrialde hau infernu fiskal bihurtuko dogula, Danimarka lez, edo Suedia lez, adibidez, askatasunik ez dagoan eta ekonomia hondoratuta dagoan herrialdeak, ezta? Ba hor presino fiskal handiagoa daukie hemen baino. Oindino be badaukagu nondik ibili. Zergak erabili eta kargau egin behar dira, ez nonork esaten dauen moduan, asmetan dabilelako, klase ertain eta bajuei, ezpada zerga handiagok bere gain hartu lekiezan gizarteko



zentroei buruz. Arlo ekonomikoan be baliabide gehiago lortu daitezke sustapen ekonomiko eraginkorragoko politiketarako.

Zurro jaunari be eskerrak emon behar deusadaz. Hara, zuk esan dozu gauza batzuetan ados zengozala, beste batzuetan ez, baina diagnostiko bat egin dozu, uste dot nahiko zehatza dala, programei buruz berba egin dozu, eta nik uste dot beste pausu bat emotea falta jatzuela, gauza batzuetan ados gagozalako eta beste batzuetan ez. Berba egin dot, berbarako, dirulaguntzei buruzko Legeaz, deslokalizetan diran enpresei diru-laguntzak kentzeaz, eta Euskal Herria Bilduk egindako proposamen baten oinarritutako ekimena da, deslokalizazinoei buruzko lege bat proponidutekoa, lehenengotan tramitatzeko onartu eta gero dirulaguntzen legean sartu zan. Edo egoera ahulean dagozan eskualdeei emoten jaken arreteari buruz berba egin dot. Garai modernoan be, 2015eko proposamenean dauka jatorria, Ezkerraldeari eta Oarsoaldeari buruzko azterketa-ponentzia bat sortzeko proposamenean, gure Taldearen ekimena izan zana. Nik ulertzen dot antzekotasunak dagozala, eta uste dot zintzoa izan zarala autortzeko orduan ahulezia batzuk dagozala eta gauza batzuk hobetu daitezkezala. Egia da trikimailu txiki bat egin dozula 2011tik BPG industrialaren galera atera dozunean, eta ez 2008tik, ze, jakina, hor aldekoago urtetan jatzu, 1.7, baina 2008tik orain arte, izan be, galeraren zatirik handiena 2008-2011 izan zan, 4 edo 5 puntu dira, eta nire ustez hori esanguratsua da.

Gu ez gatoz hona diskurtso katastrofista egitera, eta uste dot inoiz ez dogula egin. Ez dogu esan euskal ekonomia eta industria hondoratzen doazenik. Uste dogu ikuspegi kezagarria dagoala. Gainera, uste dogu geldialdia dagoala eta hobetzeko tartea dagoala. %23 horri buruz berba egin genduan, diputaduagaz izandako itaunean eztabaidatzeko aukerea izan genduan, industria ez eze, industria eta zerbitzu aurreratuak be neurtu behar dirala esaten euskunean. Baina hori apur bat ekina izan behar da, ze orain BPGaren %24an nago eta agintaldi bi jartzen ditut helburutzat, 25era heltzea. Eta agintaldi bitan porrot egiten dodanean esaten dot garrantzitsuena ez zala 25era heltzea. Orain gauzak neurtzeko modua aldatuko dogu, eta garrantzitsuena beste gauza bat da. Garrantzitsuena da zerbitzu aurreratuak garatzea, baina garrantzitsuena da, halaber, manufakturak indartsuak izatea eta gure BPGan pisua hartzea.

Baina gaur, hasieran esan dodan moduan, zuek be beste elementu batzuk sartu dozuezan arren, ez daukagu industria-politikari buruzko eztabaida orokorrik, alderdi jakin batean zentru gura genduan. Nahi-ta oso elementu prebentibo asko dagozan, adibidez industria-politika aktibo bat garatzea maila guztietan, enpresak egoera hobean egon daitezcan eta halako egoeretara heldu ez daitezcan. Baina batzuetan heltzen dira. Eta ez dinot danak heltzen diranik, eta ez dinot erakundeen betebeharra danik edo erakundeen esku dagoenik guztiak salbetea. Hemen kasuistika handia daukagu. Nik ez dakit subertea edo zoritxarra dan baina hartu-emonetan egon naz, zati handi bategaz, ez dodaz danak esango, ezta gehienak be, baina azken hamarkadan herrialde honetan krisi-egoeretatik pasau diran eta ixtera behartuta egon diran enpresen zati handi bategaz. Nik zuen protokoloak entzuten dodazanean, eta zuen papeletan idatzita dagoena aditzen dodanean, entzun egiten dot, baina nik errealitatea zein dan ikusi dot. Izan be, lehenengo personan ikusi dot, ehundaka langilegaz berba egin dot, dozenaka enpresa-batzordegaz, prozesu horreek guztiak gertutik bizi izan dodaz, eta protokolo horreek ez dira apliketan zuok planteetan dozuen moduan, eta aplikau ostean be, holan aplikauta be, ez dabe emoitzarik lortzen. Eta barrero dinot, ezin da enpresa guztiak salbatzea eskatu, ze batzuk, materiala, produktua, instalazinoak zaharkituta dagozalako, kanpoko arazoiak dirala eta, gero ixteko beste bide bat daukielako, jakina, galera jasanezinak metatzen dozelako. Ez gabil horretaz, baina bai gehiago egiteaz.

Adibide zehatzak jarriko dodaz, zoritxarrez denpora amaitzen doalako. Mecanerrek enpresako jardueraren trantsizino ekosozialari buruzko lana egin dau. Urdulizko Udalak finantzatu dau lan hori. Navaleko langileek bideragarritasun juridikoari buruzko lan bat egin eben, enpresaren kapitalean diru publikoa sartzeko Europako araudiaren arabera. Lan hori



Madrilgo bulego bati eskatu eutsan enpresa-batzordeak, eta bere boltsikotik ordaindu behar izan eban. Holango gauzak egin daitezke, hau da, bideragarritasun-planetarako, inbersino jakin batzuen legezotasun-planetarako eta ekoizpen-jarduera eraldatzeko planetarako laguntzen dau. Hori egin daiteke.

Beste adibide bat, aurreko eztabaidan aitatu genduan Planarena da. Eusko Jaurlaritzaren plan bat dago, kasu honetan ez da Aldundia, langileek krisi-egoeran dagozan enpresetan partaidetzak hartu ahal izateko, bideragarritasunari ekarpena egiteko. Plan hori ez da inoiz erabili, funts horreek ez dira inoiz erabili. Horrek esan gura dau plan hori txarto pentsauta dagoala.

Beraz, guk uste dogu, protokolo hori existiduten bada, erakutsi deiguel, ba al dago nahitaez bete beharreko erakunde arteko protokolo integralik krisian dagozan enpresen egoerei apliketako? Ez dago halakorik. Badira zenbait praktika, lehen aitatu dogun lez, kasuistikari erantzuten deutenak, kasuz kasu aldatzen diranak, kasu batzuetan hobeto apliketan diranak, eta, beste kasu batzuetan, langileak dira etenbako erakundeen atea jotzen egon behar dabe, erantzun deien. Hori sistematizatzea, hobetzea, eragile guztiakaz berba egitea eskatzen dogu, ahal diran hobekuntza guztiak sartzeko eta zorrotz apliketako.

Pensábamos que eso sería una mejora y que eso sería aceptable, pero creo que algunos todavía piensan que lo hacen todo bien y desgraciadamente otra oportunidad perdida.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias señor Casanova Alonso. Tiene la palabra el portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señor Vaquero Moreno.

El Sr. **VAQUERO MORENO** jaunak: Muchas gracias.

Labur azaltzen ahaleginduko naz. Guk, Gómez-Guadalupe jaunak ez bezala, asko azpimarratu dogu eta azpimarratzen jarraitu gura dogu produkzio-eredua aldatzeko beharraz. Arlo publikotik bultzada handiagoa behar dogu euskal industriaren indarra berreskuratzeko. Esku hartze politiko industrial irmea behar dogu enpresak kapitalizetako, errotzea bermatzeko, eta interes komunaren eta herrialdearen interesaren arabera be arautu daitezkan.

Nik egia esaten badeutsut, Casanova jauna, gustauko litxakigu aurreko interpelazinoa egiteko orduan gu kontuan hartu izana, Mecanerren trantsizino ekosozialeko planaren aurkezpenean Arrieta jaunagaz geratu nintzan moduan, baina badirudi ez dala unea, eta hobeto dala bakarrik burukatzea, ez dakit etekin politiko handiagoa lortzeko, akatsa iruditzen jatan arren. Esan lei erakunde honetan ez garala Urdulizko Udalean bezain baliagarriak zuretzat, eta bildur gara botoak lortzeko lasterketak perspektiba galduazotea. Halanda be, eta hasieran esan deusudan moduan, gure botoa aldekoa izango da. Izan be, alternatibak aurkezten diranean, entzuteko eta erantzuteko ahaleegina egiten danean, aurreko puntuan esan dogun moduan, egoera kritikoen aurrean planak sortzea bultzatzen danean, siglen kolorea, guri behintzat, ez jaku ardura.

Nazinoarteko inbersino-funtsen esku dagozan euskal enpresen kopurua hazi baino ez da egiten, eta horrek Euskadin produkzio-ahalmena, diru-sarrera fiskalak eta enpleoa sortzea galtzea dakar. Halanda ze, gure industria-politikea barriro planteau behar dogu, esan dodan moduan, beranduegi izan baino lehen. Adibide bat jartzearen, Mecanerregaz buru-belarri bilatu dogu kudeaketa-eredu barri bat ahalbidetuko dauen birmoldaketa bat, fabrikaren beharrak eraldatuko dituana eta lanaren jarraitutasuna eta, beraz, enpleoak ahalbidetuko dauzana. Lehen



esan dozun moduan, enpresa-batzordeagaz egon gara, manifestazinoetan parte hartu dogu, alternatibak bilatu doguz eta trantsizino-proposamenak babestu doguz, baina orain arte, ondo dakizunez, ezertxo be ez. Baina, tira, argi dago ez dogula amore emongo.

Esan dodan moduan, gure politika industrialak birplanteatu behar dogu beluegi izan baino lehen. Idea barrizailleak behar dira, gure ondarea zatika saltzen goazelako. Eta idea barrizaille horreen barruan, zuek aitutzen dozuen esku-hartzeak gai izan behar dau, nire lehenengo agerraldian esan dodan moduan, errotzea bermatuko daben enpresak kapitalizetako, interes komunaren arabera arautu daitezkan, eta hori guztia funts soberano bat sortuz egin daiteke. Bide batez, atzo Andueza jaunak eztabaidan esandakoaren antzeko zeozer. Baina horrek beste interpelazino baterako emoten dau.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Vaquero Moreno.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Muchs gracias señora Presidenta.

Oso labor erantzungo dot tarte honetan, uste dodalako nire lehenengo agerraldian nahiko argi itxi dodala Alderdi Popularraren eretxia. Nik datu objektibo batzuk emon deusuedaz, eta, beraz, ukatuezinak dira. Datu horreetan, argi eta garbi ikusten zan zein zan Euskadiko industriako barne-produktu gordinaren egoerea, industriako barne-produktu gordinaren pisu-galera, bai azken 40 urteetan, bai denpora-tarte mugatuagoetan, baita azken ekitaldiko desazelerazino ekonomikoan be.

Jakina, hori errealidadea da, kezkatu eta okupau egin behar gaituen errealidadea da, industria funtsezko elementua dala uste dogulako. Esan dodan moduan, gure ekonomiaren trankizino-elementu bat dago, eta erakundeek horretan murgildu behar dabe. Baina esan deusuet zelan uste dogun erakundeek, alde batetik, lurralde erakargarri bat euki behar dabela, bere baldintzakaitik, bere industria-lurzoruagaitik, bere fiskalitateagaitik eta nazinoarteko inbersinoakazko erakarmenagaitik. Eta, jakina, uste dogu bide horretan hobekuntza asko egin behar dirala, eta mekanismo asko indartu behar dirala. Eta, jakina, dagozan protokoloak hobetu behar dira, edo funtzionetan dabenak zabaldu, bai Eusko Jaurlaritzarenak, bai Bizkaiko Foru Aldundiarenak, inbertitzaileak bilatzeko sareen gaitasuna handitu behar dala uste dogulako, finantziarazino-mekanismoak optimizatu daitezkeela uste dogulako.

Baina, gure ustez, Herri Administrazioek, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiak, sektore ekonomikoari eta industria-sektoreari jagokenez, laguntzeko papela jokatu behar dabe, enpresei eta industria-sektoreari baldintzarik onenak eskaintzekoa, baina beti be laguntza aktiboko zeregin batetik, inoiz ez esku-hartzetik.

Eta guk defendiduten dogun eredu ekonomikoari jagokenez, nik uste dot gurea argia dala. Casanova jauna, nik ez deusut ezer atera Venezuelari buruz, zuk atera gura izan dozu, ez dakit identifikauta sentiduten jarraitzen dozun, eta Eskandinaviako herrialdeez berba egin deustazu. Baina herrialde nordikoak dirala-ta, harago joan behar da, eta ulertu behar da zein dan herrialdeon egoerea, asko aberatsak diralako sektore batzuetan, petrolioan kasurako.



Eta, gero, kontuan hartu behar da herrialde horreetan, beharbada batzuetan, karga fiskalaren hazkundera herritarren ezinegona eragin dauela, eta horrek mobimentu populistak eragin dituala, eta, gure ustez, mobimentu horreek ez dira bape positiboak gizartearen garapenerako.

Azken baten, uste dot argi eta garbi defendidu dodala Batzarretako Talde Popularretik zergaitik ez dogun Bilduren mozino hau babestuko, uste dogulako politika industrialari beste modu batera heldu behar jakola. Enpresentzat erakargarria izan behar dau, nazinoarteko inbersinorako erakargarria izan behar dau, erakargarria izango dan fiskalitatea be euki behar dau, eta, jakina, gure enpresak eta gure industria-sarea zaindu eta jarduera-protokoloak eskaini behar ditu, baina, jakina, ez dau inoiz esku hartzean eragin behar, Bilduk gaur hemen proponiduten deuskun moduan.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA** / **LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

A continuación tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Zurro Tobajas.

El Sr. **ZURRO TOBAJAS** jaunak: Muchas gracias.

Zintzotasuna autortu deustazu, baina behin eta barriz dinozu ez dala ezer egiten, edo egiten dana erdizka egiten dala, zeozelan esanda, eta gero zenbakiakaz tranparen bat egiten deusudala esaten deustazu.

Nik irakurri dodanaren arabera, euskal enpresak behar dituan funtsak dirala-ta berba egin daikgunaz harago, danon hauteskunde-programak ikusi dodaz, eta tira, desbardintasunak dagoz, agirikoa da, baina antzekotasunak be badagoz, finantza-erakundeen inplikazioa eta abar.

Lehenengo hitzaldian esan deusut krisiaren kontzeptuak, orain enpresakaz lotuta dagoanak, ziurbakotasun-egoeran dagozan enpresak hartu behar dituala barruan, 2019ko krisiaren aurreko testuingurutik oso bestelako testuinguruan gagozalako. Funtsezkoa da, zuek aitatzen dozuen prebentzioaren eremu horretan, talentua sortzeko aldagaia, kualifikazioa eta birkualifikazioa be sartzea, hori dalako arazo nagusia industria-sektoreko eta zerbitzu aurreratuen sektoreko enpresentzat.

Metaleko Enpresen Euskal Federazioaren koiuntura-txostenaren arabera, metaleko enpresen arazo nagusia profil profesinonalak bilatzea da. 10etik 7k dinoe talentua sartzea dala Bizkaiko garapen ekonomikorako arazo nagusia. Ba arlo horretan, prebentzioaren arlo horretan, Aldundia, berbarako, hainbat programa garatzen dabil, esate baterako, Lanberri programa, urtero 1.000 persona baino gehiagoren kualifikazioa eta birkualifikazioa bultzatzen dauen programa, %15etik gorako laneratze-maila daukienak; edo Laborlan programea, programa horren bitartez personei lagundu, enpresek eskatzen daben prestakuntzea emon, eta 3 hilebeteko esperientzia profesinonala eskaintzen da, Aldundiaren aurrekontuagaz ehuneko ehun finantzautu. Aurreko edizinoetan, laneratze-maila, lanbide-esperientziaren etapa igarota, %50etik gorakoak izan da.

Zuen protokoloan aiatatu dozuen esku-hartzeko kasuan, adibide bat jarriko deusut: Bideak Zabaltzen programa, Metaleko Enpresen Bizkaiko Federazioagaz lankidetzan egin zana, aldi baterako lan-erregulazinoako egoeran dagozan enpresetako langileen



birkualifikazioa eta birkokapena bultzatzeko. Une haretan Arcelor enpresa egoan egoera horretan. Jarduera honek egin ziran: enpresak erakarri eta aztertu, personak aktibatu eta mobilizatu, personak lan-aktibazioaren prozesuak, birkualifikazio-prozesua, gaitasun barriak eskuratuz, eta bitartekotza eta laneratzea. 141 enpresagaz lan egin zan, 11 prestakuntza-ekintza egin ziran, 81 parte-hartzailegaz, eta 53 persona birkokatu ziran.

Eta hemen aitatu izan dira 3R programak, birbideratzeko, birkualifikatzeko eta birkokatzeko programak. Bat bakarrik aitatu dot, hemen gehien interesetan jakuna, 3R Empresa, krisian dagozan sektore eta enpresetan beharginak birbideratzeko, birkualifikatzeko eta birkokatzeko programa bat, helburu bikotxa daukana: personak azkar gizarteratzea eta Bizkaia garatzeko funtsezkoak diran sektore ekonomikoetako enpresetan talentua sartzea, besteak beste, industria-sektorean, eraikuntzan, teknologian, ingurumenean edo elikaduran. 2020tik, 3.000 personagaz lan egin da, eta 922 persona birkokatzea ahalbidetu da.

Eta azken adibide bat jarriko deutsut, askoz txikerragoa, udal batek egin leikena, Ermuko Udalaren adibidea jarriko deutsut. Bide batez, kontauko deutsudan guztia Eibarren EH Bilduren babesik barik egin eban, galdetu zeinke, Ermuko EH Bilduk Eureta gainean lurzoru industrialak sortzearen aurka bozkatu ebalako, adibidez, ezetz bozkatu deutse ekintzailatza-planei, edo zuntz optikoaren sareari, zuntz optiko neutroko sare hori Administrazioaren, enpresen eta Ermuko herritarren eskura jartzeari. Eta ez eban indar handirik egin be Izarra Centreren alde. Eraikin horretan 50 enpresa teknologiko, ingurumen-enpresa, ekonomia zirkularragaz, digitalizazioagaz, adimen artifizialagaz lotutako enpresak dagoz, eta profil profesinonal barriei edo etorkizuneko enpleoei lotutako kalidadezko enpleoa sortzen dabe. Ermuko adibidea, barrero be begirada bat egiteko gomendatzen deutsut, azaldu deitsuela Monroe, adibidez, 350 langiletik 750 langilera pasau dala, eta orain enpresa horren barrikuntza eta ikerketaren zati handi bat Ermuan egiten dala, Belgikan egin beharrean, lehen han egoan eta.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Zurro Tobajas.

Y para terminar el debate, tiene la palabra el portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señor Arregi Osoro.

El Sr. **ARREGI OSORO** jaunak: Gracias señora Presidenta.

Bizkaiko Foru Aldundia aitzindaria izan zan enpresen deslokalizazioa saihesteko araua onartzen, uste dot badakizula, ezta? Paragrafo bat irakurriko deutsut, ea ezagun egiten jatzun: “Zailtasunak daukiezan enpresetako jarduketak, modu ordenauan berregituratzera, birbideratzera edo ixtera bideratutakoak, langileak birkokatzeko neurriak”. Esan leiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren agintaldiko planean jasotako esaldia dala, horixe dalako egiten dabilena, “Prebentzino fasean eragitea batez be, enpresei lagunduz lehiakorak izan daitezkan, ekintza proaktiboen protokolo bategaz jardunez, alkarrizketea sustatuz, krisian dagozan enpresen egoera aztertuz, modu indibidualizatuan eta sakonean, baliabideak ad hoc eskaintzeko”. Baina ez, zuen hauteskunde-programako puntu bat da, Otxandiano hautagaiak erantzun gura ez dauen zeozer galdetzen jakon baxotxean irakurteko agintzen deuskun programa horretakoa. Eta, programara joan behar izateagaitik zer proponiduten dozuen jakiteko, gauza bitxiak aurkitu ditut, adibidez krisi berba 41 bider erabilten dala, dana txarto dago, baina bata bez industriagaz lotuta. Edo “hay que” esamoldea ia beste hainbestetan erabilten dala, 40 aldiz.



Guk indikatiboa, oraina eta etorkizuna erabilten dogu gehiago, egiten dogu, egigo dogu, bultzatzen dogu, bultzatuko dogu, indartzen dogu, indartuko dogu. Mesedez, koherentzia apur bat. Alde batetik, euskal erakundeak dana txarto egiten dabizala esaten deuskuzu: ez deusie enpresei laguntzen, ez deuse arazoei aurre hartzen, ez dabe ezer egiten gauzak txarto datozenean, langileak botata ixten dabez. Eta, bestetik, gureak modukoak diran proposamenak baino ez deusuguz entzuten.

Badakizu zerk huts egiten deusun? Diagnostikoak. Azken aldian asko entzun dogun berbea da, ba hori, Euskadi eta Bizkaia ez dirala hutsetik abietan autortuko dauen diagnostiko batetik abietea falta jatzu. Lehen esan deusut, Casanova jauna, bizitza ez da zuekaz hasten. Azken 40 urteotan, herrialde garatua eregi dogu, lehen esan dodanez, lurralde barrizalea, talentua daukana, erakargarria, konektatua eta orekatua. Ez da autokonplazentzia, jakina hobetu geinkela, hobetu egingo dogu, errealismo-ariketa bat da. Badakigu ez dogula dana ondo egiten, kritikoak eta zorrotzak gara geure buruagaz, eta, horregaitik, etenbako hobekuntzaren alde egiten dogu.

Datu batzuk emongo deusudaz, ezagutuko dozuz baina. Bizkaiko barne produktu gordina, 2023an, %1,7koa izan zan. Europan, oro har, 3 aldiz txikerragoa izan zan, gitxi gorabehera. 2012tik, Euskadiko BPGa %40 baino gehiago hazi da. Industriako enpleoa enpleo osoaren 34,7 da, gure industriako eta zerbitzu aurreratuetakoa BPGa %40,8 da, bai, %40,8. %40 gaintzeko helburua denporea baino lehen lortu dogu. Aurreko Osoko Bilkuran, interpelazinoan, kezu agertu zinan Tapija sailburuari datu hori galdetu zeuntsielako, eta ez zenduelako lortu. Hemerrotekan, Googleko bilaketa baten egoteaz ganera, bai, Tapiak Basque Open Industry emon eban hitzaldian be badaukazu, eta oker ez banago, zu bertan egon zinan.

Eta jarraitu egiten dot, 2023an Euskadiko industria-produkzioa hazi egin zan, eta ez zan gauza bera jazo, ez Europar Batasunean (%2 jatsi zan), ez eurogunean (%2,4 jatsi zan). Europako Batzordeak berak Euskadi bikaintasun-polotzat hartzen dau. Halan da, Europako Batzordeak berak dino Euskadik ekonomia, industria-oinarri sendoa eta teknologia-eduki handikoa daukala, eta barrikuntza-estrategia desbardinak bultzatzen dirala nabarmentzen dau.

Begira, Casanova jauna, industria da gure herrialdeko ekonomiaren bizkarrazurra, industriak definidu gaitu, eta, horri esker, ondoizate-maila munduko rankingaren buruan daukagu, Bizkaian eta Euskadin, NBERen GGI indizearen arabera. Non egon zarie azken urteotan, gurditik tiraka edo gurpiletan trabak jartzen? Gogoratzen dozu 80ko eta 90eko hamarkadetako Bizkaiko industria-panorama, 2008ko finantza-krisia? Eta osasun-krisia? Gaur egungo errealidade ekonomikoa ez dalako zerutik etorri galdetzen deusut.

Jakina, aurre egin beharreko erronkak daukaguz. Trantsizino energetikoa, ekologikoa, digitala edo demografikoa kasurako. Baina badakizu zer? orain arte egin dogun moduan egingo deusegu aurre, beharraz eta konpromisoagaz, eta etenbako hobekuntzaren aldeko apustuagaz. Eta badakizu zer gehiago? Personengan, euren bizi-kalidatean eta ondoizatean pentsatuz. Hori da gakoa, Bizkaiko eta Euskadiko personen bizi-kalidatea hobetzen jarraitzea, egunez egun, aukerak sortuz eta politikak garatuz, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EAJk gobernetan dituan ganerako erakundeek egiten dabezanen modukoak, ez paper baten hiru lerrotan zirriborrotutako formulak erabilia.

EH Bilduren dana txarto eta trabak ipintearen aurrean, EAJ-PNV taldeak gurditik tiratzen laguntzen jarraituko dau, beti egin dauen moduan.

Mejorar la calidad de vida y el bienestar de la ciudadanía requiere trabajo, compromiso y apuesta por la mejora continua. Eso es lo que hace el PNV tanto en la Diputación Foral de Bizkaia como en otras instituciones públicas de Euskadi.



Por todo lo expuesto, votaremos no a su moción. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Arregi Osoro jauna.

Terminado el debate, señor Casanova, no tiene usted la palabra. Sometemos a votación la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente. Votos emitidos en total 49. Ha habido 16 votos a favor. En contra 33. No ha habido abstenciones. Por tanto, no se ha aceptado la moción.

El punto 6 del orden del día es la moción presentada por Izaskun Duque Santacoloma:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Moción derivada de Interpelación ([R.E.12/E/2024/0000638](#))

Autor: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Asunto: Acuerdo institucional sobre el Pacto de País por los Cuidados

Documento Principal:

([R.E.12/E/2024/0000638](#))

Expediente: ([12/B/20/0000934](#))

6.- Ekimenari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itaunetik eratorritako Mozinoa ([12/E/2024/0000638SE](#))

Egilea: Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

Gaia: Zainketen Aldeko Herri-Itunaren akordio instituzionala

Dokumentu Nagusia: ([12/E/2024/0000638SE](#))

Espedientea: ([12/B/20/0000934](#))

La Sr. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Gracias, buenos días.

Para defender mi moción, o esta moción que presenta mi grupo, hoy quiero plantearles un pequeño juego y dos canciones. Hemos hablado mucho sobre el sistema público comunitario de cuidados, hoy, en la anterior moción también hemos hablado de esto, y yo creo que el Partido Nacionalista y el Partido Socialista han utilizado también ese término. Y las palabras son las mismas que nosotros hemos podido repetir muchas veces en esta Cámara, ha sido un concepto que hemos utilizado en varios debates. Y no solo en debates o discursos. Aitor ha hecho muy bien la introducción para plantear mi juego, porque yo también he hecho un ejercicio ahora que estamos en la recta final de la campaña de las elecciones autonómicas y los partidos hablamos estos días de nuestras propuestas programáticas. Entonces, yo he hecho un ejercicio, y yo creo que igual la dirección ha sido la contraria, lo que yo he hecho ha sido el ejercicio o el juego de encontrar similitudes y suelos comunes entre nosotros.

He tomado los programas de la campaña anterior, los he leído y, como les he dicho, los he comparado y me ha parecido un ejercicio muy interesante. Entonces les leeré 2 párrafos y les animo a ver si, acaso así también obtengo su atención, a adivinar a qué partido pertenece lo que voy a leer. Así dice el primero:

“El cuidado mutuo que está en la base de la relación interpersonal está en crisis; tradicionalmente se atribuyeron los cuidados a la responsabilidad de la mujer como consecuencia de la dominación del patriarcado y como actividad feminizada se devaluó e invisibilizó; cuidar hoy, no es cómo tratamos a los ancianos, a las criaturas en sus primeros años de vida, o a las personas enfermas; implica reconocernos personas limitadas, vulnerables, interdependientes, que dispensamos y recibimos apoyos; las Administraciones deben incentivar



los cuidados primarios en su vertiente de deber cívico, como responsabilidad universal, y por tanto fuera del rol del género femenino”.

No sé si lo han reconocido, pero este párrafo lo he recogido del programa electoral del Partido Socialista para las elecciones municipales y forales de 2023.

Y el siguiente y último:

“Envejecimiento y dependencia. Uno de los grandes retos sociales, en Europa y también en Bizkaia, es el de la atención a las personas que precisan cuidados de larga duración. Vivimos más y mejor gracias a los sistemas de bienestar, ciencia, salud y educación que hemos construido. Las niñas y niños que están naciendo hoy en Bizkaia, con casi toda seguridad, vivirán 100 años. Esa vida más larga nos exige realizar una transición sociosanitaria porque las enfermedades crónicas y las situaciones de dependencia tienen mayor probabilidad de estar presentes a lo largo de nuestra vida.

En una vida larga, y especialmente en edades avanzadas, es más probable que podamos tener necesidad de cuidados. La mayoría queremos recibir esos cuidados “en casa” y, si esto no es posible, “como en casa”.

Supongo que lo ha reconocido, recogido del programa electoral del PNV para las elecciones forales de 2023.

Creo que no tendríamos muchas dificultades para coincidir con este diagnóstico. Pero ¿cómo hemos llegado hasta aquí? ¿Cómo se han convertido las políticas de cuidados en el eje central de los debates políticos?

Y ahora la primera canción. Ibil Bedi tiene una canción que dice Eskerrak bideari (gracias al camino), que de alguna manera cuenta cómo hemos llegado hasta aquí, con quién hemos hecho el camino. Eso dice la canción, destacando que eso también es bonito y necesario. Y habla de poner en valor también esos dos asuntos. De celebrarlos y de poner sobre la mesa en qué dirección queremos caminar y continuar caminando. Y nosotras hoy queremos reflexionar sobre el camino que se ha tomado en torno a las políticas de cuidados: queremos reflexionar con ustedes sobre cómo hemos llegado hasta aquí, con quién y hacia dónde queremos ir.

En el Pleno anterior intenté situar el contexto para explicar cómo hemos llegado hasta aquí, y marqué algunos hitos cronológicos. El primero era el movimiento feminista de Euskal Herria que organizó una huelga en 2018 que marcó un hito en nuestra historia. Cambió el paradigma de la huelga. Por primera vez se hizo un llamamiento a parar no sólo el sistema productivo, sino también el sistema reproductivo.

El año siguiente la huelga feminista de 2019 profundizó en las demandas relacionadas con los cuidados. En 2020 con la crisis sanitaria del Covid reforzó con crudeza la tesis del movimiento feminista: estamos sumidos en una crisis de los cuidados. Los años posteriores continuamos en la crisis y en 2023 se convocó una huelga feminista histórica para reivindicar el sistema de cuidados público-comunitario.

¿Y cuáles han sido los pasos más destacados que las instituciones han dado en este contexto? Destacaría dos iniciativas. La primera, el Congreso sobre Cuidados organizado en Donostia, en Tabakalera, presentado como un espacio de reflexión y debate bajo el lema "Avanzando hacia un pacto vasco por los cuidados".

Y la segunda iniciativa importante fue el pacto mismo. Los ayuntamientos de las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca (Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia-San



Sebastián) y las tres diputaciones forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y el Gobierno Vasco firmaron un acuerdo institucional para alcanzar el Pacto de País por los Cuidados. Una vez más ustedes, con ustedes y entre ustedes.

El propio documento consensuado señala que el presente acuerdo, sobre la base de lo acordado, “está abierto en su alcance y contenido, a cuantos agentes quieran vincularse al mismo y participar en su desarrollo”. Y la invitación está hecha desde hace tiempo por parte del movimiento feminista, y aquí ya la hemos mencionado varias veces.

Se me acaba el tiempo. Citaré la segunda canción en el siguiente turno.
Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Duque Santacoloma.

Como los grupos Euzko Abertzaleak y Socialistas Vascos presentaron una enmienda, tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, el señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Buenos días de nuevo.

Hitzaldia euki dot prestauta, baina ez dot irakurriko. Jolasen kontu hori nahiko gustetan jatalako, eta nik beste bat proponiduko dot. Eten barik gabilz berbaz krisi hitzaz. Gure kulturaren grekotik dator, krimen aditzetik, bereiztea esan gura dauena. Ez zan ez ona ez txarra, ez egoan adiera moralik, ez etikorik, ez ezelako baliorik, baina latinera pasau zanean ziurbakotasun gisa interpretatu eben. Idea hori heldu jaku guri, krisi bat dagoanean, ziurbakotasun bat dagoanean, eta negatiboari begira jartzen gara.

Halan be, Ekialdean, Txinan, Japonian, krisi berba ikusteko beste modu bat daukie, eta aukera moduan ikusten dabe. Hobetzeko aukera, bizitzan dana da aldakorra. Politikak ezin dira zaharkituta egon, egoera barrietara egokitu behar dira, eta, beraz, begiratu behar dogu zer dan mantenido beharreko gauza ona, eta zer dan jarraitu behar ez dauena, baliabideak kontsumiduten dabezalako eta alperrekoa dalako.

Horregaitik, nire berbea, edo jolasa, da, norantz jotzen dozue zuek, aukerara edo ziurbakotasunera? Izan be, eta barrero berba egin geinke zainketa-ereduaz, gura badogu, eta gure hauteskunde-programa esan deuskuzu, eta bide batez, pozik nago esan deuskuzulako, ikusten badogu, beteten gabilz, edo gagozan lekuan beteten ahalegintzen gara. Beraz, eskerrik asko ekarteagaitik.

Baina, hasteko, esan dozu bat egiteko puntuak bilatu gura dozuzala, eta zuzenketa bat eskaini deusugu eta atzera bota dozu, zuen eredu ez dalako hori, bale. Orduan, alkarguneak bilatzea, ereduaren diagnostikoagaz be bat egin barik, zertarako proponiduten dira alkarguneak? Ba, hauteskunde prozesu baten gagozalako, gagozanetik gertu gagoz, eta hemen nabarmendu egin behar da. Izan be, une honetan, nire hitzaldiagaz, gaur gai horri buruz hirugarrenez berba egiten dot, eta laugarren bat etorriko da erantzunagaz.

Helburua ez da sistema indartzea, zainketak hobetzea, ezpada ahotsa bereiztea. Eta hori legitimoa da, zuzena, bai, baina esan daigun, esan daigun. Eta zer proposatu dogu guk? Irakurri egingo dot, eguneroko erabagietan jasota geratu daiten, ganerako guztia erreproduziduko da eta 4. puntuaren esan dodana labur-labur. Euzko Alderdi Jeltzaleagaz batera, proposamen honeek aurkeztu ditugu:



“Bizkaiko Batzar Nagusiek Bizkaiko Foru Aldundiari eta zainketen aldeko Euskal Ituna sinatu daben gainerako administrazioei, hau da, Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiei eta, Eusko Jaurlaritzari, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei, eskatzen deusie:

1. Itunaren jarraipen-mahaia osotzea ofizialki, 3 hilebeteko epean. Mahai horretan ezarriko da ituneko puntuak lantzeko lan-egutegia.

2. Aurreko puntua gauzatzeko, hilebeteko epean, erakunde bakotzak bere eskumenekoak diran puntuak identifikauko dauz, Itunean agertzen diran puntu guztien artean, bai eta prestetea zein puntutan dagoan be, deitu beharreko jarraipen-mahaian zehaztutako egutegia egin ahal izateko.

3. Jarraipen-mahaiak adituen, eragileen eta kolektiboen laguntza izatea, mahaiko kideek parte hartzea beharrezkotzat jotzen daben kasuetan.

4. Jarraipen-mahaiak zehazten dauen lan-egutegian zainketen aldeko Euskal Itunaren sinatzaileak eta laguntzaileak sartzeko aukera jasotea.”

Hau da, aurrekoari jarraituta, lankidetzarako eta lanerako esparru bat eskaintzen dogu, kolektiborik bereiztu barik, eta nik autortzen dot zainketa-lanari aurre egin behar izan deusien persona guztiek izan daben meritua. Esan dot, errazoi kulturalakaitik eta gure bizitzan ia modu naturalean bideratzen gaituen nolabaiteko patriarkalismoagaitik, eta hezigarria da, hori emakumeen eta familiaren barruan emakumeen kontua dala esatea, burubakokeria, astakeria da. Baina Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak eta 2006ko Menpekotasunari buruzko Legeak zehazten dabena persona jakin bat jagotea da, eta ezin dogu euren orde zentsau, laguntza behar daben personakaitik, euren eretxia euki behar dogula, zein baliabide jarri behar doguzan jakiteko.

Beraz, barriro dinot, guretzat krisiak aukera bat dira, alde negatiboa daukienak, urduritasuna eragiten dabelako. Baina egin gura dan hobekuntzari uko egiten badeutsagu, geure burua makaldu baino ez dogu egingo, alkarrerri trasteak burura bota, puntu baten jarraitzeko, eta puntu hilak egin geinken errakuntzarik handiena dira, mobimentua dan egoera eta bizitza baten.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Otermin Eraso.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak señora Urquieta Zuzaeta.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Gracias señora Presidenta. Buenos días.

El pacto por los cuidados firmado el 22 de febrero de 2024 entre las tres capitales, las Diputaciones Forales y el Gobierno Vasco, tal y como se dijo en el Pleno de Control celebrado el 20 de marzo, es una hoja de ruta. Es el reflejo del compromiso de las diferentes instituciones que ya han firmado el documento para visibilizar lo que están haciendo y seguir mejorando el sistema de cuidados de forma colaborativa.



Horixe da itun handi hori, Oitk 100 urtera bitarteko bizitzarako zaintza-politikea, eta eredu publiko eta komunitario bateranzko trantsizinoa. Beste erakunde batzukaz kontrastatutako politika, trakzino-proiektuen bidez bultzatua. Horreekaz batera, hirugarren sektore sozialagaz eta beste eragile batzukaz. Oinarri berberetan oinarritzen dira Bizkaiko zainketen arloko foru-politikak, planak eta ekimenak, iraupen luzeko zainketen trantsizino-planagaz eta proiektu traktoreakaz, EtxeTIC zerbitzua eta erreferentziazko eskualde-zentroak, besteak beste.

La Diputación Foral de Bizkaia, y en concreto el Departamento de Acción Social, considera fundamental el contraste en la elaboración de los programas y recursos con los colectivos a los que se dirigen, con los expertos en la materia, o con otros agentes implicados, siendo, incluso, la única manera de que estos recursos sean efectivos.

Las políticas que se elaboran tienen que ser cercanas, y la cercanía es, precisamente, escuchar.

Tal y como se indicó en el Pleno de Control, desde el inicio de esta nueva legislatura, el grupo de Acción Social y la propia Diputada Foral se ha reunido con más de 250 personas que les han expuesto diferentes realidades y necesidades. Asimismo, se han acercado a unos 40 recursos y se dijo que ese sería el ritmo de trabajo y el estilo de este departamento para conocer de primera mano las realidades que vivimos en Bizkaia para poder darles una respuesta eficaz.

En cuanto al movimiento feminista, no sabemos exactamente de qué movimiento feminista hablan ustedes, porque hay muchos grupos feministas, pero, de todas formas, ningún grupo se ha acercado al departamento de Acción Social ni se ha puesto en contacto con él. La puerta al trabajo y a las aportaciones constructivas está permanentemente abierta.

Pero hay una cosa que debemos tener clara. No estamos para perder el tiempo porque la crítica constante que no realiza aportaciones propositivas no conduce a nada. Y no nos parece justa la descalificación que desde innumerables perspectivas y trayectorias se hace al trabajo de tantas personas e instituciones que están contribuyendo a que este pacto y su desarrollo sea lo más amplio y completo posible.

Tras este primer hito vendrán otros y seguiremos trabajando.

Ante su moción, hemos presentado una alternativa real y que podría materializarse en poco tiempo, y el señor Otermin ha leído. Siendo más compatible y realista, creemos que nuestra propuesta es más adecuada que la moción original. El pacto vasco por los cuidados tiene vocación de aunar todas las voces, aportaciones, agentes y elementos interesados en construir una nueva cultura de los cuidados; y aquí me gustaría aprovechar para agradecer a la señora De Madariaga la disposición al acuerdo que ha tenido en el punto anterior, porque hemos coincidido en la misma vía de trabajo.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Urquieta Zuzeta.

Tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.



La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

2023ko zemendiaren 29an, Ganbera honetan bertan, oraintsu, hemen gertatu zan gauza bat gogoratzen hasi gura dot. Nire taldeak, Elkarrekin Podemosek, Gizarte Ekintzako diputaduari itaundu eutsan, Euskal Herriko mobimentu feministeak zemendiaren 30ean deitutako greba-eguna zala eta. Baina ez bakarrik Euskal Herriko mobimentu feministarena, ze greba-deialdi horrek euskal gehiengo sindikalaren, gizarte-eragileen eta gizarte-mugimenduen babesa eukan, pentsinodunena adibidez. Une haretan, zaintzarako eskubide kolektiboaren alde deitu zan greba feminista.

Egun horretan egin genduan galderia izan zan gaur Duque andreak mozino eratorri honetan aurkeztu dauen antzekoa, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak, eta zehatzago esanda, Gizarte Ekintza Sailak, zein neurritan hartuko ebazan kontuan mobimentuaren aldarrikapenak. Galdera horren erantzunak txundituta itxi ginduzan une horretan, gaur gauza bera entzuteak harritu gaituan moduan, eta uste dot komenidu dala gogoratzea, gaurko eztabaidearen eta Gobernuari eusten deusien taldeek aurkeztutako zuzenketaren harira, zein izan zan erantzun hori.

Foru diputaduak orain Urquieta Zuzaeta andreak errepikatu dauena erantzun eban, eta komatxoak zabaltzen dodaz: “Holan, esan behar deusut ezer gitxi entzun ahal izan dogula zuzenean Euskal Herriko mobimentu feministearen aldetik, zuek deitzen deusazuen moduan, ez dalako Sail honegaz hartu-emonetan jarri inolako proposamen, aldarrikapen edo eskaerarik aurkezteko. Era berean, ez dogu jakin mobimentu feminista horrek gure alkarriketea bilatu gura izan dauenik edo bilatu dauenik.”

Baieztafen horren aurretik, kontuan hartu beharreko beste zeozer be esan zan. Esan zan, “Uste dot ez dala ona Euskal Herriko mobimentu feminista homogeneizatzea, mobimentu anitza baita, anitza, ikuspegi, aldarrikapen eta praktika desberdinakaz”. Mobimentu feministearen aniztasunari buruz esaten ebanagaz bat etorrita, garrantzitsua da, era berean, onartzea aniztasun hori, ikuspegi desbardin horreek, Bizkaiko Foru Aldundiak entzun eta kontuan hartu behar dituala, batez be, milaka eta milaka persona batzen baditu, mobimentu feminista horrek egiten dauen moduan.

Baina, batez be, martiaren 8an, zemendiaren 30eko greban, zemendiaren 25ean, errebindikatzen urten ginan milaka eta milaka emakumek partekatzen daben zaintza-sistemearen egoerearen ikuspegia daukalako, eta onartzen dogulako diagnostiko hori, beragaz ados gagoz. Horregaitik ez gabiltz mobimendu feministaz bakarrik, zaintzan, modu formalean edo informalean, menpekotasuna daukien personen milaka emakume zaintzailek adierazoten dabenaz baino. Mobimentu feministeak egiten dauen diagnostiko horretan be ordezkatura dagoz, eta ez da itxaron behar mobimentu feministak ate joka etorri dakigun, ardurabakokeria dalako.

Zer gai planteetan dira eta dagoz hor? Zerbitzu publikoen pribatizazioa, hori aldarrikatzen dabe, eta, beraz, konponbideak eskatzen ditue, horreen kalidadea degradetan daben zainketen merkantilizazioagaz amaitzeko. Gai hori hainbat eta hainbat adibide ekarri doguz legealdi desbardinetan, txarto egiteari, arretaren kalidade faltari eta langileen baldintzen kalidade faltari buruz. Bai etxean zaintzen daben personena, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan zaintzen dabenena, uste dot ez dala gauza arraroa, ezta langileek eurek salatu ez dabena be.

Zaintzaileentzako prestazino ekonomiko urriak be eskarietan dagoz. Eta hori hemen hamaika aldiz aitatu dogu. Izan be, aurreko puntuan be aitatu dogu, zainketez berba egiten genduan. Benetan itunean bertan eta Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoaren barruan planteau badogu, hau da, zaintzaileen lana autortu eta duindu gura badogu, badakigu, jakina da, eta, ganera, bat gatoz, prestazino ekonomiko horreek handitu egin behar dirala.



Zer gehiago? Zainketen feminizaziorako konponbideak eskatzen ditue, eta helburu hori Itunean eta Gizarte Zerbitzuen bigarren Plan Estrategikoan jasoten da. Zaintza formal eta informalen lana duintzeko neurriak, eskariaren hazkunderari aurre egiteko zerbitzu gehiago, duintasunez erantzuteko ratio gehiago. Gai horreek jasota dagoz, 3 aldundiek, Eudelek eta Eusko Jaurlaritzak sinatu daben Itunean jasota dagoz. Hau da, diagnostiko partekatua daukie, eta, beraz, ez gatoz bat horri urtenbidea emoteko moduagaz. Eta, deserosoa egiten jakunez, ez dogu mahaira konbidau gura, ez dogulako abotsa altxetan dabenik euki gura, Ganbera honetan Duque andrea edo ni lakoak. Hori da jazoten dana.

Horreek dira mobimentu feministak planteetan dauzan eta eragile sozial eta sindikalek partekatzen dabezan aldarrikapenak. Elkarrekin Podemos be bat dator, eta esan geinke gizarte zibila parte hartzen dabilela, iraupen luzeko zainketen eredu barriagaz garatuko diran zerbitzuen eta politika publikoen konfigurazioaren, diseinuaren, ebaluazioaren eta politikaren barruan.

Baina egia da, eta geure buruari autortu behar deutsagu, bilera horreetan agertu daitekezan gaitako asko Gobernuak hartzen dauen erabagiaren arabera eroaten dirala edo ez dirala. Hau da, eragile sozial sindikalak, gizarte-mobimentuak euki geinkez neurriak ados dagozanak, baina zuek hori ez dala gauzatuko erabagitea, milaka, milaka eta milaka emakume konponbidea hor dagoala ados egon arren. Eta, benetan, ez dot uste hain gatxa danik, beste eragile sozial eta sindikal batzukaz egin dan lez, mobimentu feminista hurrengo Zainketen Euskal Sistema izan beharko leukeenaren barrikuspenean, eraikuntzan eta diseinuan sartzea. Gure ikuspuntutik, hareen ekarpena ezinbestekoa dala uste dogu.

Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

Tiene la palabra el portavoz del Grupo Popular Vizcaíno, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

El Sr. **GÓMEZ-GUADALUPE GARCÍA-TEJEDOR** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Egun on hirugarrenez.

Gaur inauguretan naz gai horretan, eta Euskal Herria Bilduk egindako itaunetik eratorritako mozino bat eztabaidatzen gabilz. Mozino horretan, euskal 7 administrazio nagusiek, Eusko Jaurlaritzak, 3 Aldundiek eta uriburuetako 3 udalek egin eben zainketen aldeko herrialde-itunari buruzko erakundeen arteko akordioari zelan heldu planteau da.

Batzarretako Talde Popularretik uste dogu egiteko pausu asko dagozala, gure herritarren artean gertatzen diran menpekotasun prozesu guztietan zaintza duinak bermatuko dituan sistema egituratzeko daukaguzan erronkak. Eta, horregaitik, uste dogu erakundeek erantzun barriak emon behar dabezala, gure ondoizate-sisteman erronka eta behar horreei, eta ez dira gitxi, aurre egin ahal izateko.

Alderdi Popularraren eretziz, aurrerapena da Administrazio Publikoetatik zainketa-politika barriak bultzatzea, baina, gure ustez, garrantzitsua harago joatea da, ez azalean geratzea, askotan ohikoa dan moduan. Zaintza-sistema osotzen daben administrazio publikoak erabilgarriak eta eraginkorrak izango diran eta printzipio teorikoetatik harago joango diran eredu bat defendatzen dogu, benetako arazoei konponbideak emoteraino, horixe dalako guri jagokuna.



Proposamena egin dauenak esan dau nora joan behar dan. Guk ikusi doguna da gaur eztabaidatzen dogun mozino honetan alderdi ideologikoa gailentzen dala beharrezko konponbideak bilatzearen ganetik, eta ez dauela alkargunerik bilatzen. Gure ustez, zainketa-sistemeari buruzko eztabaidea administrazino publikoek emon beharreko erantzunetara bideratu behar da, eta uste dogu, esan dodan moduan, oraindino bide luzea dagoala egiteko. Eta gure jarrera politikoa zainketen lana duintzea sustatzea eta defendidutea izango da, eta horretarako funtsezkotzat jotzen dogu Bizkaiko Foru Aldundiak benetako konpromisoa hartu gura izatea.

Gaur egun zaintza-lanak egiten dabezanak gehienak andrak dira, eta gizonak apurka-apurka sartzen badoaz be, oso garrantzitsua da arlo horretan behar dan erronka eta aldaketa kulturala, baina baita emakume horreek familia barruan eta kanpoan egiten daben lana duintzea be.

Eta, gure ustez, badagoz ildo horretako gakoak, esate baterako, Bizkaiko Foru Aldundiak Menpekotasun Legean prestazino ekonomikoak hobetzea eta zabaltzea, eta ahalik eta gehien hurreratzea lanbide arteko gitxieneko soldatara, familia-inguruneko zainketen prestazino ekonomikoaren kasuan. Era berean, uste dogu laguntzaile personalaren prestazino ekonomikoan gauza bera behar dala; izan be, prestazino horren zenbatekoak, askotan, edo kasu gehienetan, urriak, eta ez dira heltzen behar dauenarengana.

Guk familia guztien bardintasuna defendatzen dogu, euron baliabide ekonomikoak alde batera itxita, senitartekoak etxean bertan zaindu ahal izateko. Eta errespetau desgaitasuna daben adinekoak, edo menpetasuna daukien personak, zaintza horreek etxean bertan jaso gura badabez.

Eta kasu honetan, argi dago, familia zaintzaileei laguntzeko, garrantzitsua da andrei laguntzea be, zaintza-lanak egiten dabezanen artean gehiengoa dira eta. Guk emakumeen benetako premiei erantzun gura deutsegu, uste dogu beharrezkoa dala aitaturako prestazinoak lanbide arteko gitxieneko soldateagaz parekatzea. Eta, alde horretatik, gure esku dagoanean, urtez urte inplementatzen ahalegintzen gara. Pozgarria litzateke Bizkaian lortu ahal izatea gure batzarkide-taldeak Araban lortu ebana, familia-inguruneko zainketen prestazino ekonomikoa %27,5 handituz eta laguntzaile personalaren prestazino ekonomikoa fiskalki arinduz.

Baina erronka gehiago be badagoz alde horretatik, esate baterako, lehen mailako arreteta indartzea, eta hor urterik urte huts egiten dabe EAJk eta euskal administrazinoek, preminazkoa dalako, barbarako, geriatriako espezialistak sartzea, hemen gertatzen diran beste egoera batzuen artean Euskadin atzeratuta gagozalako, eta hori ezin da izan.

Gure ustez, personak ekintza politikoaren erdiunean jarri behar dira, ez beste alde batera begiratu, eta ezin gara diskurtso teorikoetan edo diskurtso ideologikoetan babestu, ze berba handiakaz egin leitekez, baina askotan zalantzazkoa da zetarako balio daben, azkenean zelan inplementatzen diran ikusita. Eta uste dogu personak jarri behar dirala gizarte-ekintzaren erdiunean eta benetako konponbideak eskaini behar dirala.

Gizarte politikakaz konprometiduta gagoz, baina kasu honetan, mozino honetan, ez gatoz bat Bilduk proponiduten dauenagaz, gure jarrera Gobernu taldearenetik hurrago dago, Gobernu taldeari eusten deustien alderdienetik, eta ez daitela aurrekaria izan, itunaren jarraipenerako mahai eratzaren alde, inplikautako administrazinoei, adituei, eragileei eta kolektiboiei entzutearen alde egiten dauelako. Garrantzitsuak diralakoan gagoz, eta zainketen aldeko Itunerako akordioaren esparruan emoten diran urratsen barri izango dogu.



Baina, esan deusuedan moduan, guretzat lehentasuna politika errealak dira, hau da, benetako konponbideak. Horregaitik ez dogu babestuko Bilduk gaur hona ekarri deuskun mozinoa.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Gómez-Guadalupe García-Tejedor.

Pasamos al turno de réplica. Tiene la palabra la portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: No sé, claro que es un debate ideológico, es un debate político, para eso estamos aquí, nosotros no somos meros tecnócratas, ¿no? Gestión o meros gestores, nosotros somos políticos, nosotros hacemos política, y tenemos que dar respuestas a los ciudadanos, esa es nuestra responsabilidad. Pero, repetimos: para poder confrontar también necesitamos espacios de diálogo.

Están ustedes hablando de un pacto, y ¿en algún momento han analizado qué valor y qué peso tienen las palabras “pacto vasco” o “pacto de país”? Porque nosotras coincidimos: está claro que los cuidados necesitan un pacto vasco. Pero un pacto vasco o un pacto de país es un acuerdo que se construye y se alcanza entre diferentes partidos políticos, con miras a políticas a largo plazo que la ciudadanía necesita. Y ustedes no están en ello.

Para ello es necesario el reconocimiento mutuo y la escucha. Y quizá piensen ustedes que pueden hacerlo solos: pues no. No, porque no tienen capacidad, porque es demasiado grande lo que tenemos entre manos, porque tiene raíces demasiado profundas. Y nosotras estamos preparadas. Pero cuando ustedes miren a este camino, ¿podremos cantar “gracias al camino”? Aquí se ha planteado la pregunta acerca de cual es el sujeto que está detrás del movimiento feminista, qué personas están detrás? Es cierto que la primera huelga la convocó el Movimiento Feminista, y si no me equivoco, las mujeres del Partido Nacionalista y del Partido Socialista también participaron. Pero la huelga feminista de 2023 la convocó una plataforma, Bizitzak Erdigunean, que agrupa a cientos de grupos feministas autónomos. Pero aparte de eso, y por hacer justicia, en el Pleno anterior y poner en valor cómo hemos llegado hasta aquí, yo les leí la lista de los agentes que componen dicha plataforma.

Y yo creo que cuando hablamos de esto, y Eneritz también ha hecho ese ejercicio, poner en valor cuántas personas han estado detrás de esta reivindicación, y citaré algunas: el Consejo del Euskera, IKAMA, Joxemi Zumalabe, Komite Internazionalistak, Gure Esku Dago, Mugarik Gabe, Fekoor, Euskal Herria Colombia, AEK, SOS Racismo, Bizi Bisexualidad, Ongi Etorri errefuxiatuak, Zaintza Araba Elkartea, y si miramos a los sindicatos creo que solo falta uno. Dentro, participan en esta plataforma, ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, ETXALDE, CGT y CCOO.

Así que si preguntan cuál es el sujeto, ahí tienen la lista. Creo que también hay otro espacio interesante, formado por diferentes agentes, y que tienen mucho que decir, y, por cierto, dentro de ese proceso, llevando a cabo la huelga general, o incluso en ese proceso, en su web tienen un documento muy interesante, con propuestas concretas, con propuestas aterrizadas. Les recomiendo que lean, pero insistimos, los retos de país exigen diálogo, confrontación de ideas, y los espacios compartidos son imprescindibles para la confrontación.



Y tengo muy poco tiempo, y les he dicho que he traído 2 canciones, y esa segunda canción, seguramente la conocerán, es “Cuida a quien amas”, de Ruper Ordorika. Han pasado más de 20 años desde que Ordorika compuso esa canción, y creo que las preguntas que hace la canción siguen vigentes. Al mismo tiempo, es una canción con elementos para responder a un jeroglífico aún por dilucidar, pero cada vez son más los que se suman a ese cuidado activo a pesar de todas las contradicciones. Las nuevas generaciones están asumiendo el liderazgo y a nosotros nos toca, al mismo tiempo, dejar paso a las nuevas generaciones.

Y encontrarán las mismas preguntas, y tendrán que escuchar a su manera en un mundo en constante y rápido cambio, y seguramente como al cantautor Ruper, a ellos tampoco les saldrán las cuentas, ni acertarán por sí mismos a dar solución a cuestiones muy difíciles desde lo más profundo. La canción termina con el simple “cuida”, y quizá, y esto es una reflexión compartida, y quizá la respuesta esté en esa sencilla receta, “cuida”.

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Duque Santacoloma.

Tiene la palabra el portavoz del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Ikusi daigun, danok aurkeztu dogu zuzenketa-proposamena, ez dot erantzunik hartu, ulertzen dot ez dala onartzen, eta ondorioztatzen dot errazoa dala ereduak ez dirala partekatzen. Ados, guk be proposamenaren kontra bozkatuko dogu.

2008. urtetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak, 2008ko abenduak, kapitulu bat dauka, bosgarren titulua, 61-71 artikulua, beti aitazten dodana, erantzukizun publikoko zerbitzuak emoteko lankidetzaz publiko-pribatua. Ordutik hona, Legebiltzarrean ez da inoiz titulu horren aldaketarik aurkeztu, ez Euskal Herria Bilduren aldetik, ez Elkarrekin Podemosen aldetik, ez beste inoren aldetik. Eta nik ateraten dot, zainketen inguruko akordio horregaz jazoko dana dala zati hori aldatu beharko dala, edo, gitxienez, hobeto mugatu edo definitu. Ze hor, lankidetzaz publiko-pribatua ez da ezartzen bakarrik merkataritza-erakundeakaz edo irabazi-asmoa daukien erakundeakaz, baita zerbitzuak emoten dituen irabazi-asmorik bako beste erakunde batzukaz be, GKEak, Gorabide lako alkarteak, etab., hor dagoz danak, baina definitu egin behar da, eta ez da inoiz proponidu aldatzea. Beraz, hori da danok, eta parlamentu guztietan, berba egin beharko dogun elementuetako bat.

Bigarren, bai, badago lagundu daben eta kezka baten bat egiten daben erakundeen katalogo bat, baina haren kezka ez da mugatzen hareek pentsetan dabenera, gogoetan erakunde gehiagok parte hartuko dabe. Guk, gure zuzenketa proposiduten gendua da errealidade horreekaz zerikusia daukien guztiei kontsultetako aukerea be zabaltzea, sindikalak izan, edozein motatakoak izan, zainketen gaia oso garrantzitsua dalako. Hain garrantzitsua ze, menpekotasuna daukien personak etxean zaindu leikien personak kontratatzeke diru-laguntza, 2012an, Mariano Rajoyren Espainiako Gobernuak ezarri eban aurrekontu-egonkortasunari buruzko Legea dala-ta, persona horreen Gizarte Segurantzaz ordaintzeko ekarpenari jagokon zatia, Espainiako Gobernuak baliobakotu egin eban, eta Bizkaian, ostera, eutsi egin jakon. Eta erreklamazio historikoen zati bat da 2016. urtera arte ezin izan zala arautu. Beraz, ezin da esan hemen txarto jokatu danik. Beharbada gauzak hobeto egin daitezke, baina txarto ez.



Egia da, era berean, defizit asko daukagula, eta sistemeagaz erlazinonauta hobekuntza eta abantaila asko daukagula Estadu osoan, ez dalako Bizkaiko edo Euskadiko arazoa bakarrik, oso arazo handia da. Eta jakin behar dogula norantz goazen, norantz doan gure zahartzea, zelakoak diran gure baliabideak, zein tresna daukagun, eta zein dan gure egitura, bai instituzinonala, bai legearena.

Hori dana daukagu berba egiteko, ez bakarrik kolektibo batek esaten dauenaz, eta errespetuz onartzen dogn, egia dalako bere atsekabea, bere mina, arazoaren mugan dagozalako, hor dagoz, abangoardian. Baina zaindutako personak be badagoz, izan be, gaur izan doguzan eztabaida guztietan, eta hau nire laugarren esku-hartzea da, eta barriro esango dot laugarrenezz, inork ez deutse galdetu eragindako personei zer pentsetan daben, zer behar daben, zelan dagozan, ez, bakarrik ze baliabide behar diran, eta nortzuk diran baliabidea kudeatzen dabenak, eta zelan osotu baliabide horreek.

Hemen desoreka bat be badago, Legea hain zuzen be, 2006ko Menpekotasun Legea eurentzat dala, gu guztiontzat, danok menpekotasunerako prozesuan goazelako, zoritxarrez. Niri gitxiago falta jat, burusoil geratzen hasi nazelako, baina hau badoa. Hau da, danoi helduko jaku menpekotasuna. Kontuz ibili gaitezana, beraz, espazioak hainbeste mugatzeagaz, eta, batez be, honegaz amaitzen dot, gaur aukera bat izan da, eta zoragarria izango zan laugarren puntuan alde guztien erabateko adostasuna lortu izan bagendu, baina domekan datorrenari begira mezuak bialtzeko beharra egoan. Beraz, ondo guztiontzat eta suberte ona domekan.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted señor Otermin Erasó.

Tiene la palabra la portavoz del grupo Euzko Abertzaleak, señora Urquieta Zuzaeta.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Gracias de nuevo.

EH Bilduren mozinoan, erabagiteko sektorearteko organu bat sortzea eskatzen da, De Madariaga andrea eta Duque andrea, eta daborduko badago sektore arteko organu bat, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Administrazioek, Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Eudelek, hirugarren sektoreak, sindikatuek, patronalak eta alkargo ofizialek parte hartzen dabena. Kontseilu hori Gizarte Zerbitzuen Legearen bidez sortu zan. Zeozer sortuko dogu paraleloan, legerik garatuko ez dauena, mobimentu feminista eskatzaileari abotsa emoteko bakarrik?

Gainera, Emakunderen Aholku Batzordea dago, zainketen gaia be landu dauena, behar dan genero-ikuspegia emoteko. Oinarri horreek Migrazinorako eta Asilorako Euskal Foroaren Bardintasun Batzordeagaz be alderatu dira.

Alkarrizketa zibilerako mahaiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eremuan hirugarren sektore sozialaren alkarrizketa zibilerako eta parte-hartze instituzinonalerako organu gorena danak, bere ikuspegitik azken dokumentuan falta behar ez ziran elementuak be identifikau ebazan. Alkarrizketa zibilerako mahaiakoak bat egin dau alkarrizketa sozialerako mahaiak lortu eban akordioagaz. Beraz, alkarrizketa edegia eta aberasgarria lantzen da hainbat eragileguz, zaintza-eredua eraldatzen jarraitzeko praktikak adostera bideratuta.

Saben que lo que hemos planteado es factible, que comencemos con las instituciones que han firmado, que en definitiva son las competentes, y en la mesa de



seguimiento que ellos conforman se definirá cómo dar continuidad a la dinámica, es decir, una planificación. En esta planificación también se puede prever la participación del movimiento feminista, junto con otros agentes, porque todo esto parece no tener ningún valor si no está el movimiento feminista al que se refieren, y eso no es justo. Nosotros no entraremos en la confrontación, ni aceptaremos confrontar jurídicamente con otros, creo que lo aprobado con Podemos, y también lo propuesto por EH Bildu abre una vez más las puertas a la colaboración. Tenemos elecciones, está claro, hemos demostrado una vez más nuestra disposición al consenso, hemos hecho un esfuerzo para llegar a un consenso, como siempre, tenemos voluntad, pero la mano tendida que dicen, hoy no la han tenido, señora Duque. Ustedes sabrán por qué, señora Duque, pero se han quedado fuera del pacto sobre cuidados de hoy y de los acuerdos para seguir avanzando en las políticas de cuidados. Votaremos negativamente a la moción original.

Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora Urquieta Zuzeta. A continuación tiene la palabra la portavoz del Grupo Mixto-Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Gracias señora Presidenta.

Antza danez, erduetan daukagun desbardintasuna da agirian jarri dana, eta ez naz nekatuko gauza bat errepikatzen lankidetzaren publiko-pribatuaren gaia sortzen dan bakotxean. Kasu honetan Otermin jaunak atera dau, eta aitatu dau ez dogula inoiz eskatu 61. artikulutik 71. artikulura aldatzea, horreek arautzen dabelako, Gizarte Zerbitzuen Legean, lankidetzaren publiko-pribadua.

Nik beti aitutzen dot hori, baina badirudi ez dala entzun gura, ez dagoala aldatu beharrik 7. artikulua beteten badogu, eta irakurri egingo dot. 7. artikulua, a) atalean, luze samarra da, baina azken zatira mugatuko naz, hor dagoalako jasota jaso gura dodana. Azken zati horrek honako hau esan gura du: “Esparru honetan, eta oro har, kudeaketa publikoaren eta gizarte-ekimenaren bidezko kudeaketaren nagusitasuna, Zorroan eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazinoen katalogoan aurreikusitako zerbitzu eta prestazinoen horniduran”. Ni ez naz Hizkuntzaren Errege Akademiako langilea, baina zuzeneko kudeaketa publikoaren nagusitasuna, eta prebalentzia lankidetzaren publiko-pribatuaz dihardugunean, gizarte-sektorearena, uste dot, prebalentzia hori balego, beharbada gitxiago kexauko ginatekela.

Eta barriro esango deusut, ez dagoala artikulurik aldatu beharrik, eta, hain zuzen be, begira horrek eztabaidarik sortu dauen ala ez, ituntze-dekretu barria sortu zanean, eta hemen Eusko Legebiltzarrean egon diran diputadu batzuk dagoz, korapiloetako bat, Dekretu ha hainbeste atzeratzeko, hain zuzen be, gizarte-sektoretik, eta 7. artikularen a) idatz-zati hau azpimarratuz, saihestu gura zana zera da, lehen esan dodan moduan, edozertarako balio daben enpresa handiek Euskadiko personarik ahulenen arreta-eskubideak bermatzen dituen zerbitzuak eskuratu ahal izatea. Baina barriro dinot, ez dago Gizarte Zerbitzuen Legea aldatu beharrik puntu horretan, oso argi geratzen dalako zein dan prebalentzia.

Duque andreak planteau dauen gaiari buruz. Nire ustez, herritarrak oraintxe bertan eskatzen dabena Zaintzen Euskal Sistemari jagokonez, politika publiko ausartak dira, eta jagoletzak merezi daben lekuan jartea eskatzen dabe, jakina, zaintzen diran eta menpekoak diran eta zaintza horreek behar dituen personen ikuspuntutik. Zaintzan diharduen emakumeen ikuspuntutik be, barriro errepikatuko dot, espazio formaletik, informaletik, eta esklabotza-egoeran dagozanetatik, emakume horreei be entzun behar jake. Eta, nire ustez, urte batzuetatik



hona mahai ganean jarri dana horixe da, hain zuzen be, zer gertatzen dan arretearen kalidadeagaz, lan-baldintzen kalidadeagaz.

Eta mobimentu feministeak, diagnostikau ez eze, mahai ganean jarteko neurri zehatzak dituan ikuspegia dauka, eta hori entzutea garrantzitsua dala uste dot. Eta uste dot garrantzitsua dala kontuan hartzea, eta nik jarraitzen dot esaten bat natorrela Antxustegi andreak momentu horretan esan dauenagaz, mobimentu feminista anitza dala, eta egia da, erakunde askok, erakunde ugari osotzen dabela. Eta, hain zuzen be, horregaitik entzun behar da, hain aniztasun handia dagoalako, ze garrantzitsua da Aldundiak jasotea eta entzutea, ze azkenean berak egingo dau eta islatuko dau sistema barria izan daitekeena. Uste dot garrantzitsua dala hor egotea. Ezinbesteko aktorea da Euskal Zaintza Sistema barria egiteko. Eta nik uste dot gitxienez entzuteko ariketa bat egin beharko zeunkiela, eta esaten dabilenari jaramon egin beharko zeunkiela, ze barrero esango dot, emakume askok partekatzen dogu, askok, ez 10 edo 20, hau da, diagnostikoaz gan, neurriak be partekatzen doguz milaka emakumek. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señora De Madariaga Martín.

El Grupo Popular no va a tomar la palabra. Por tanto, terminado el debate se procede a la votación de la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente: 49 votos emitidos. A favor 16. En contra 33. No hay abstenciones. Por tanto la moción queda aprobada.

Agotado el orden del día, se da por finalizada la Junta General. Que tengan un buen día.

Batzarra 14:10ean amaitu da.

Se levanta la sesión a las 14:10 horas.

